

MUTRIKU

historia eta ondarea
historia y patrimonio



Carlos J. Martínez Álava



Mutrikuko Udala



MUTRIKU

historia eta ondarea
historia y patrimonio



Carlos J. Martínez Álava



Eusko Ikaskuntzak eta Mutrikuko Udalak eskertzen diete liburuki honetan parte hartu duen egileari eta, elkartearen tradizioaren arabera, haren irizpide eta uste guztiak errespetatzen dituzte, nahiz horrek ez duen esan nahi bereziki haietako ezein beren gain hartzen dutenik.

Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Mutriku muestran su agradecimiento al autor que ha colaborado en este voumen y respeta todos sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que asuman en particular cualquiera de ellos.

Mutriku: Historia eta ondarea = Mutriku: Historia y patrimonio / Carlos J. Martínez Álava – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2009.

280 or. : ir. ; 31 cm.

ISBN: 978-84-8419-193-3

Euskarazko itzulpena / Traducción del euskara: Mara Mara Taldea

Argazki kredituak 187. orrian / Créditos fotográficos en la página 277

Azaleko argazkia / Fotografía de la portada: Carlos J. Martínez Álava, Mutrikuko Udal Artxiboa

L.G.: 55-1588-2009

Michelena artes gráficas - Astigarraga (Gipuzkoa)

Aurkibidea

MUTRIKU, HISTORIA ETA ONDAREA

AGURRA	9
1. HITZAURREA	11
2. ERDI AROA	19
2.1. Astigarribia eta Mutriku Goi Erdi Aroan	22
2.2. Mutriku eta hiri gutuna	35
2.3. Hiribilduaren osaketa eta Erdi Aroko definizioa	37
2.4. Udala eta herriko armarrria	47
2.5. Parrokia zaharra	48
2.6. Erdi Aroko dorretxeak eta jauregiak	52
2.7. Herriko dokumentuek osatutako ondarea	69
2.8. Herritarrak, biztanleak eta itsasontzietako jendea	72
3. ARO MODERNOA	77
3.1. Suteak: hirigintza ereduaren aldaketaren eraginea	79
3.2. Lehendabiziko eraikin zibilak: udaletxea eta lonja	83
3.3. Harresiaren, kostaldeko defentsen eta kaiaren bilakaera	88
3.4. Eliza Aro Modernoan	90
3.5. Arte barroko erlijioso gehiago: komentua eta basilizak	98
3.6. Etxeak monumentu bihurtuta: jauretxeak	114
3.7. Hiri paisaia berriko nobleak, itsasgizonak, dontzeilak eta kapilauak	138
4. ILUSTRAZIOA ETA XIX. MENDEA	145
4.1. Udalak Mutrikuri buruz zuen ikuspegi berria	148
4.2. Udalerriko hiri trazatuaren arrazionalizazioa	149
4.3. Parrokia berria, ikur neoklasikoa	150
4.4. Eskulturak eta monumentuak	163
4.5. Mutrikuko bizimodua XIX. mendean	166
BIBLIOGRAFIA	169
OHARRAK	175
ARGAZKI KREDITUAK	187



MUTRIKU, HISTORIA Y PATRIMONIO

SALUDA	193
1. INTRODUCCIÓN	195
2. LA EDAD MEDIA	197
2.1. Astigarribia y la comarca de Mutriku en la Alta Edad Media	197
2.2. Mutriku y la donación de la carta puebla	202
2.3. La formación de la villa y su definición urbana medieval	204
2.4. El regimiento y el escudo de la villa	207
2.5. La parroquia vieja	208
2.6. Las torres y palacios medievales	210
2.7. Patrimonio documental depositado en la villa	214
2.8. Vecinos e moradores e gentes mareantes de naves e bajeles	215
3. LA EDAD MODERNA	221
3.1. Los incencios: fin y principio de una idea urbana	221
3.2. Los primeros edificios comunitarios civiles: el Ayuntamiento y la lonja	224
3.3. La evolución del cerco amurallado, las defensas costeras y el puerto	226
3.4. La iglesia parroquial en la Edad Moderna	227
3.5. Más arte barroco religioso: el convento y las ermitas	231
3.6. La monumentalización del caserío: las casas-palacio	237
3.7. Nobles, marinos, doncellas y capellanes para un nuevo paisaje urbano	246
4. LA ILUSTRACIÓN Y EL SIGLO XIX	253
4.1. El ayuntamiento y su nueva idea de Mutriku	253
4.2. La racionalización de las trazas urbanas de la villa	254
4.3. La parroquia nueva, emblema neoclásico	255
4.4. Esculturas y monumentos	257
4.5. La vida en Mutriku a mediados del siglo XIX	258
BIBLIOGRAFÍA	261
NOTAS	265
PIES Y CRÉDITOS FOTOGRÁFICOS	277



Agurra

1209. urtean, Gaztelako errege zen Alfonso VIII.nak, Mutrikuko herriari hiri gutuna egiletsi (eman) zion. Arrantza munduari oso lotua zegoen herria zen Mutriku, eta batez ere balearen arrantzari, hori izan zen Gaztelako Erregeak gure herria bereganatzeko izan zuen arrazoi nagusia.

2009. urtean, Mutrikuren 800. urteurrena ospatzen dugun honetan, historian zehar begirada bat botatzeko une egokia zela eta, 2008ko Martxoaren 5ean, beka deialdi bat egin zuen Mutrikuko Udalak, Eusko Ikaskuntzaren lankidetzarekin. Gure herriko dokumentuen aberastasuna erakusteko asmoz, Udal Agiritegiko dokumentuetan oinarritu behar zen Beka ikerketa.

Orain, urte bete pasa eta gero, Carlos J. Martinez Alava, historialari Nafarrak egindako lanaren emaitzaz gozatzeko aukera dugu, gure herriko erdi aroko dorretxe, parroki eta izan diren pertsonai ospetsuen inguruan egindako ikerketaz eta argazki ederraz. Leire Arrietak 1996. urtean idatzitako Mutriku: Gure Historiara Hurbiltzen histori liburuaren osagarri izan daiteke hemen esku artean daukagun liburu hau.

Udaletik, esker mila Carlosi egin duen lanagatik eta baita Eusko Ikaskuntzari ere, bere elkarlanari esker Mutrikuko herriari bere historiaz gozatzeko aukera eman digulako. Horrez gain, eskerrak baita era babesle izan diren, Eusako Jaurlaritza eta Diputazioko Kultura Saila eta Kutxa Gizarte- Ekintza.

Josebe Astigarraga Lete
Mutrikuko Alkatea



1. HITZAURREA

Herri bitxia da Mutriku. Zaila da haren ezaugarriak bereizgarriena antzematea. Ez da erretratzen erraza. Konplexua da, poliedrikoa. Txikia eta bildua. Paradoxa hau ulertzeko, bertako kaleetan ibili besterik ez dago. Izan ere, kanpoaldetik begiratuta formarik gabekoa eta nahasia dirudienak 800 urteko historiak taxututako ordena du barrualdean. Adin horixe dute bertako kaleek eta bideek. Hirigune historikoan ibiliz gero, txokoei usain berezia dariela ohartuko gara, halako dotoretasun berezia baitago, dirudunek izan ohi dutenaren modukoa, etxetzarretako aurrealdeetan eta nobleen armarri ikusgarrietan. Gauza bera gertatuko zaigu parrokiako aurrealde neoklasiko handiaren edo flandestar estiloko komentuko koadroen aurrean. Eta atzean, itsasoa beti. Itsasoa, herritik ikusita; itsasoa eta portua.



Mutrikuren airetiko ikuspegia.



Kalbarioaren basiliza,
atzealdean Mutriku
duela.



Mutriku, itsasoaren
eta mendien artean.



Mutrikuko parrokiako
atariaren xehetasuna.

Historiografiaren ikuspuntutik ere berezia da Mutriku. Azterlan ugari jorratu dituzte herriko historia eta arte ondarea. Leire Arrietak, Agustín de Zubicarayk eta Luis Murugarrenek Mutrikuko historiako gertaera nagusiak aztertzeko lan zailari ekin zioten. Azken urteotan, arkeologiak aberastu egin ditu ezagutza horiek, Aranzadi Zientzia Elkartearen azterlanek ia gai guztiei heldu diete-eta: Astigarribia, Atxukale, Santabata, Talaixa eta, nola ez bada, herrigune historikoa eta bere bilakaera. Ignacio Barandiaránek, Jose Maria Aspiazuk eta Borja Aguinagaldek egindako azterlan partzialek osatu egin dute ikuspegi aberats hori, eta historiografia emankor eta eguneratua eskaini digute denen artean.

Arte ondarea artisten sormenaren emaitza da. Baita haien nagusien behar praktiko, espiritual edo sinbolikoena ere. Izan ere, gaur egun harrotasunez eta mirespenez begiratzen ditugun monumentu horiek gizon eta emakume jakin batzuen babespean sortu baitziren historiaren une jakin batean. Edonola ere, kontuan hartu behar dugu gizon-emakume haiek beste testuinguru batean bizi ziren, gaurkoarekin zerikusi gutxi zuena. Arte ondarea historiaren irudia da, beraz. Dena dela, ondare hori ulertzeko, ezinbestekoa zaigu orduko egoerak eta testuingurua kontuan hartzea, artisten eta haien nagusien erabakiak egituratu zituztenak.



Mutrikuren ikuspegi orokorra, ekialdetik behatuta.

Lan honetan, Mutrikuko arte ondarea aztertuko dugu –hala galdutakoa, nola orain arte iraun duena–, herritarren bilakaera sozial eta ekonomikoarekin eta historiarekin lotuta eta eguneroko bizimoduari erreparatuta. Horrez gain, kronologiak eta estilo loturak ahalik eta gehien argitzeko ahalegina egingo dugu, eskura izan dugun bibliografia aberats eta askotarikoan oinarrituta, gehienetan. Horixe baita bigarren helburua: ondasun bakoitza bere aipamen historiografiko guztiarekin lotzea, orain arte sakabanatuta eta elkarren arteko loturarik gabe egon direlako. Hortaz, funtsezkoa zaigu ohar eta bibliografia corpusa, aipamen horiek guztiak ordenatuta eta elkarri lotuta ager daitezen.

Zorrotz eta zintzo jokatzuz egin dugu hau guztia, dibulgaziotik bitxikeriaraino joan nahi duen tonuaz, txutxu-mutxuetatik azterketa akademiko eta espezializatuenetaraino. Tonu ezberdintasuna, nahasgarria beharrez, gai hauek herritarrei gerturatzeko baliagarria izatea nahiko genuke, nekezak eta mamitsuak izaten baitira askotan. Honako hau ez da Mutrikuko historiaren azalpen orokorra, ordea; ezta herriko monumentuen katalogoa ere. Bi eredu horien batuketa partziala da, gure arte ondarea hobeto ulertarazi nahi duena. Mutrikuko arte ondareari balio handiagoa ematea baita helburu nagusia. Herentzia aberats horrek 800 urte egin behar ditu, eta hori eta askoz gehiago ere merezi du.




Mutrikuren ikuspegi orokorra, kaitik behatuta.



Mutrikuko kaiaren xehetasuna.

2. ERDI AROA



Erdi Aroko Mutrikuri buruz dokumentu baliotsuak ditugu, bertako antolaketaz eta gertaera nagusiez nahiko zertzelada zuzenak ematen dizkigutenak. Euskal Herriko kostaldearen bilakaeraren berri ematen duten garrantzi handiko azterlan historikoak ere badaude gaur egun. Azterlan horiek nabarmendu egin dute Gaztelako eta Nafarroako erresumen arteko borroketan kostaldeak izandako garrantzi estrategikoa eta ekonomikoa; asko dakigu itsasoarekiko loturaz, balearen arrantzaz, merkataritzaz, bertako ohiturez... Erdi Aroko Mutrikuko historia zehaztasunez eza-gutzeko modua dugu, beraz.

Alderantzizkoa gertatu da garai hartako arte adierazpideekin eta ondasun historikoekin, oso elementu gutxi iraun baitute: udal artxiboko dokumentu gutxi batzuek, zenbait ate eta leihok, kale egiturak, nobleen zenbait dorretzek... Hau da, idatzizko historia luze eta aberatsa daukagu, baina oso argazki gutxi, ordea. Adibidez, ez dakigu zehatz-mehatz non zegoen eta nolakoa zen harresi zaharra, dokumentuek behin eta berriro aipatutakoa; parrokia, Mutrikuko Erdi Aroko era-kin nagusia, XVIII. mendean galdu zen; etxe gehienak zaharberritu egin dira suteen, moden, egu-neroko beharren eta abarren arabera.

Mutrikuko Erdi Aroko ondarea aztertzerakoan, hori dena hartu beharra dago kontuan. Ondo zehaztutako edo zehaztu gabeko harresiz inguratuta, Mutriku berritu egin da gutxienez 500 urtez, eta berrikuntza horiek gaur egungo tokian bertan egin ditu, mendi-hegal berean. Etxeak



Mutrikuren airetiko ikuspegia.

bata bestearen gainean, plazak lursailen gainean, lursailak harresiaren gainean, plazak atarien gainean... Leku berean betiere, mutrikuarrek etxeak eta herriko gainerako elementuak berriitu dituzte belaunaldiz belaunaldi. Etengabeko berrikuntza arkitektonikoa izan da, beraz, egitura zaharrak galtzea ekarri duena –bai ikusitako ondare gisa, bai oinarri gisa, baita substratu arkeologiko gisa ere¹-. Gerora ikusiko dugunez, XIII. mendean lursailak, bideak eta gotorlekua mugatutakoan, berehala ekin zioten mutrikuarrek hirigintza lantzeari. Hamarkada eta mende luzetako berrikuntza prozesu etengabea etorri zen ondoren: berreraikitzea eta lursailen gainean lur gehiago botatzea, lursailak zatitzea, atariak eta harresia hartzea... Zorigaitzak ere astindu zuen eguneroko bizimoduaren inertzia; suteen ondorioz, zenbait belaunaldik hutsetik hasi behar izan zuten, eta horregatik, batzuetan berraztertu egin zituzten eraikitako lursailen jabetza edo erabilera.

Lehenik eta behin, Mutrikuko historiako lehen mendeei buruzko zenbait zertzelada labur emango ditugu: lehen biztanleengandik eta 1209ko oinarri juridikotik hasita, garai aldaketa eta jabetzaren berrazterketa ekarri zuen 153ko suteraino, hain zuzen ere.

2.1. Astigarribia eta Mutriku Goi Erdi Aroan

Denboran barrena egin behar dugun bidaia honek Deba ibaiaren ondoko Astigarribia auzoa izango du abiapuntu, Mutrikuren hego-ekialdean. Erdi Aroan ekingo diogu bideari; «mende iluntan», topikoei kasu egingo bagenie. Dokumentu falta dela-eta, ia-ia protohistoriara garamatzen garai batean, alegia. Zorionez, oso bestelakoa da Mutrikuko auzo zaharraren kasua. Izan ere, hari esker, eskuartearen dugun urteurrena baino 150 urte lehenago ekingo diogu bidaiari; gerora badian sortutako populazio txikiari erregeak forua eman baino askoz lehenago, beraz.



Astigarribiaren ikuspegi orokorra.

Astigarribiari buruzko dokumentuak ez ezik, bertan egindako sei indusketen emaitzak ere baditugu, eta horiei guztiei esker, nahiko ideia zehatza dugu sekuentziaren lehen katebegi hau osatzen duten herritarren ezaugarriez, ohiturez eta kronologiaz. Izan ere, kontserbatutako arte ondasunak aintzat hartzen baditugu, Astigarribiako biztanleak izan ziren, Mutrikun, halakoak egiten lehenak. Dokumentuen arabera, haiek osatu zuten Mutrikuko lehen populazioa, eta haiek dira, beraz, gure historiaren abiapuntua.

Nolakoak ziren Kantauri itsasoko kostaldean X. mendean geroztik sortutako populazioak? Ezer askorik ez dakigu, egia esan. Demografia aldetik, bailararik dinamikoenak barrualdeko ekialdean zeuden, Euskal Herriko erdialdeko lurretan, Nafarroan. Kostaldean, aldiz, populazio sarea ahulagoa zen, eta gunek sakabanatuago zeuden. Abeltzaintza, arrantza eta nekazaritza baliabideez gain, lehen populazio haiek segurtasuna ere bilatzen zuten barrualdeko bailaretan eta mendi mazeletan², baita mendi malkartsuetan ere. Mesfidantzaz eta zalantzaz beteta begiratzen zioten itsasoari. Erregimen juridikzional feudala zuten, monasterio eta nobleen kokaleku txikiek sustatutakoa.

Sakabanatutako landa eremu haietan, harrizko eraikin erlijiosoak egiten hasi ziren XI. mendean geroztik, biztanleen bilgune izan zitezten³. Dokumentazioak dioenez, XI. mendean geroztik monasterioen eta populazio guneen dentsitate handi samarra zegoen kostaldean. Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldeko bailaretan irautea lortu duten eraikin zaharrenak txikiak eta gutxi egituratutakoak dira, eta ez dute apaingarri askorik izaten. Egurrak toki handia hartzen zuen eraikin haietan, bai estalkietan, bai eliza atarietan. Ezaugarri arkitektonikoen, beraz, zaildu egiten zuten eraikinek luzaroan irautea. Behe Erdi Aroan, herriko populazioa haziz gero, berreraiki egiten zuten



Astigarribiako San Andres basilizaren ikuspegi orokorra.

eliza, behar berrietara egokituta, eta herrixka hustuz gero, aldiz, egurrezko teilatua erori egiten zen, inork ez erabiltzearen, hezetasunaren eta denboraren joanaren ondorioz, eta horrek hondamendira zeraman eraikin osoa. Antzeko zerbait ikusiko dugu gero Mutrikuko lehen parrokia gotikoaren jatorrizko ezaugarri buruzko gure hipotesian. Honen guztiaren erakusgarri, Bizkaian bi elizak baino ez dute iraun garai hartakoen artetik: Zumetxagako San Mikelek eta Bakioko San Pelaiok. San Pelaiotik gertu, Gaztelugatxeko Doniene ermita dugu, Bermeon. Gaur egun, basilizak ez du jatorrizko egitura erromanikoaren aztarna bakar bat ere, oso-osorik berreraiki baitzuten zenbait mende geroago. Dokumentuen arabera, Gaztelugatxeko Doniene 1053an eman zioten dohaintzan San Juan de la Peña monasterioari.

Are aztarna erromaniko gutxiago dago Gipuzkoan. Eraikin osorik ez dago: aurrealde sorta polit bat (XIII. mendekoak, gehienak), leiho bat edo beste, eta ezer gehiagorik ez. Horrexegatik du hainbesteko garrantzia Astigarribiako San Andres basilizak Euskal Herriko kostaldeko Erdi Aroko arkitekturan. San Andresek interes berezia du, baliagarria delako Gipuzkoako hiribildu nagusiak sortu baino lehen eskualdeotan nolako eraikinak egiten zituzten jakiteko. Izan ere, eliza txiki honek aspaldiko eraikin bat du, oso interesgarria, XI. mendekoa ziur asko. Monasterioari buruzko garai hartako agiri sorta bat ere badu Astigarribiak.

Azter ditzagun, lehenik, dokumentuak. Gaztelugatxeko Doniene bezala, Astigarribia ere hegoaldeko monasterio baten esku utzi zuten; hain zuzen ere, Gaztelako Alfontso VI.ak egindako dohaintza 1081ean, Lope kondearen bitartekaritzaz:

En nombre de Cristo nuestro redentor. Yo Alfonso, emperador de toda Castilla y Toledo (...), para el recuerdo de la muerte de los míos y para la salvación de mi alma, aconsejado por el señor conde Lope con su esposa doña Ticlo, para obtener favor para mi, y hago memoria y donación a San Emiliano presbitero y confesor de Cristo, y a ti, padre abad Blasco y a todo el colegio de monjes que allí sirven a Dios, de aquel monasterio de San Andrés apostol llamado Stigarrivia, situado entre Bizcahiam y Ipuzcoam, y que es del rey, para que os acordéis de mí en vuestras oraciones, y así merecer escapar del infierno por intercesión de san Emiliano. Os lo concedo firmemente, con pastos y montes y manzanos y los puertos para pescar, para que los tengáis por todos los siglos amén. Ahora bien, si alguno de mis hijos o nietos o condes u otros quiere quebrar mi voluntad sea maldecido por el Señor Dios. Hecho el documento en la era mil ciento diecinueve. Como testigos para confirmar lo que yo he cedido, lo confirma el conde Lope dominante en Bizcahiam y Ipuzcoam, es testigo don Alvaro Didaz, lo confirma la condesa Ticlo Diaz, lo confirma el conde don Grasea dominante en Naxera, es testigo don Lope Gosalviz, es testigo don Lope Sanchez, es testigo don Didaco Sanchez⁴.

Argi dago agiria noizkoa den: 1119. aroa 1081. urtea da gure egungo egutegian. Argi dago, era berean, monasterioa erregearen lurretan zegoela, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko mugan. Lurrak XI. mendean eskualdean ohikoak ziren jarduera ekonomikoetara bideratuta zeuden, bestalde: aziendarentzako larreak, ehizarako eta egurgintzarako mendiak, sagardoa egiteko sagarrondoak eta arrantzarako portuak. Nekazaritza eta abeltzaintza ia XX. mendera arte izan dira ohiko Euskal Herriko kostaldeko eskualdeetan.

Dohaintza Gaztela eta Nafarroa arteko mugako eskualdeen antolaketaren harira ulertu behar dugu. Astigarribiaren kasuan, nabaria da «monasterioaren berrantolaketaren bitartez, Bizkaiaren eragina Deba ibaiaren bokaleraino zabaltzeko helburua»⁵.

Donemiliaga Kukulako kartularioaren arabera, handik hamar urtera, 1091n, Lope kondeak eta bere emazteak⁶ berretsi egin zuten Astigarribia lehen aipatutako monasterioko abadearen eta monjeen esku utzi izana:

Aquel monasterio de San Andrés Apostol llamado de Stigarrivia, entre Vizcacha y Ipuzcua, que está desde la parte del rey, para que nos tengáis presentes en vuestras oraciones y en las de vuestros monjes, para que disfrutéis en aquel lugar de la pesca. Y nosotros hemos disfrutado durante un tiempo de la jurisdicción del sitio en lugar del rey, y confiamos en que no prohibía nuestros mandatos o hechos sino que hacía donación de ellos por todos los siglos. Yo el abad Álvaro por la confirmación de San Andrés, para obtener el favor del conde don Lope, di a este una mula que fue de Pedro Petriz, valorada en quinientos sueldos⁷.

Bietako bat: edo mandoak izugarri handia behar zuen, edo monasterioak izugarri txikia. Pentsa dezagun, hala ere, ekintza sinbolikoa izan zela, fede ona adieraztea zuena helburu; halako komisio bat, Gaztelako Erregeak dohaintza egin zezan, kondeak egindako bitartekaritza ordaintzeko Donemiliaga Kukulak emandakoa⁸.

Pentsatzekoa da Astigarribiako antzinako populazioa Deba ibaiatz baliatu zela bere burua babesteko eta itsaso aldera ateratzeko. Horregatik dio dokumentuak arrantzarako erabiltzen zela. Ibaian zingo txikiko ontziak ibil daitezke, eta baliteke garai hartan babesleku eta arrantza portu moduan erabili izana. Hain zuzen ere, testuak arrantzarako portuak aipatzen ditu hitzez hitz (*portis ad piscandum*) eta, beraz, arrantza jasotzen du leku horretako jarduera ekonomiko nagusien artean⁹. Portuekin batera, kostaldeko eskualde hauetako Goi Erdi Aroko funtsezko nekazaritza jarduerak jaso ditu agiriak: larre eta sagarrondo ugarien ustiapena. Izan ere, inguru osoa benetan malkartsua den arren, Astigarribiako San Andres aldean ibar emankorra dago –baserri historikoen eremu horretan, nekazaritzan dihardute oraindik ere–.

Jakina, lekuak balio estrategiko nabarmena zuen, eta hori ere Astigarribian monasterioa eraikitzeko arrazoietako bat izan zen; ibiaren eta, ekialdetik mendebalderantz, kostalde ondotik zihoan bidearen alboan zegoen-eta. Aurrerago ikusiko dugunez, harlauzazko eta harri koskorrezko



Astigarribiako 4oko hamarkadako bidea.

aspaldiko bide bat izan da bertan duela gutxira arte –orain baserriak lotzen dituen errepidearen azpian dago–. Kartularioak berak dioenez, XII. mendearen hasieran sagaratu zuten monasterioko eliza, 1108an:

Por orden del abad de San Millán fue consagrada la iglesia de San Andrés apostol en Stigarrivia en el límite con Vizcahie, por Bernardo obispo de Santa Maria de Lapurdi, siendo prior en aquel monasterio el monje Pedro, en la era mil ciento cuarenta y seis¹⁰.

San Andresek monumentu gisa eta historia aldetik garrantzi handia duen arren, interesik gabekoa dirudi kanpotik begiratuta: gorputz handi bat, ia karratua; egurrezko atari bat; bi isurkiko teilatu zabal bat eta kanpandorre soil bat. Alboko murruek baoak dituzte, gezileihoen modukoak, eraikin osoari gotortutako bolborategi itxura ematen diotenak.

Barrualdean, aldiz, ezaugarriak bereizgarrietako bat dago. Izan ere, San Andres eliza, berez, bi eraikin baitira, bata bestearen barruan, eta korridore zabala du bien arteko perimetro osoan. Osagairik zaharrena eta arte aldetik baliotsuena barruan dago, absidean: bi bao axial dira, eta haietako batek, azpikoak, ferra itxurako uztai ikusgarria du. Txaranbeldura hirukoitzez, dobela estu eta sakonez, eta luzeran jarritako janba finez eginda dago. Leiho izugarri berezi



Astigarrriako San Andres basiliza, inguruko korridoretik behatuta.

honi buruz mota guztietako interpretazioak egin dituzte; jatorriz bisigodoa dela ere esan dute batzuek¹¹. Markoko harlanduak eta uztaiaren dobelak ikusita, ordea, ezinezkoa da hain zaharra izatea. Harlanduetako batzuk eskultorikoak dira, eta txaranbelduraren eskala harlandu bakar batean dute zizelkatua. Gainontzekoak, alboetakoak bereziki, luzeak eta meheak dira. Materialak kostaldeko *flyschetik* ekarri zituztela ere esan izan dute¹². Harlanduetako irregularitasunak ikusita, ondoriozta dezakegu egileek estandarizatu gabe zeuzkatela zizelkatze teknika eta baoaren kontzeptua, eta harria lantzeko zerabilten teknologia ez zela erabat erromanikoa. Beraz, edo haien lan egiteko modua erromanikoaren aurrekoa zen, edo tailerrak urrun zeuden oso Iberiako penintsulan erromanikoaren lehendabiziko formak jaso zituzten guneeetatik. Bestetik, erromanikoaren aurretikoak dirudite uztaiaren dobelek, meheak eta sakonak izaki. Estiloaren aldetik, ferraren profila bat dator mozarabiarren eraikuntza tradizioekin; hots, Donemiliaga Kukulako monasterioekin, adibidez –lehen ikusi dugunez, Astigarribiaren jabea izan zen gero-. Zoritxarrez, guk dakigula, ez da kontserbatu halako egitura duen ferra baorik –luzera handiko harlandu bertikalezko markoa eta dobelak mehe eta sakonez osatutako uztai integratua-. Ez dago 1100. urte inguruko kronologiara jotzeko moduko ezer, beraz¹³; ezta erromanikoaren estiloarekin lotutakorik ere.



Astigarribiako San Andres basilizaren burualdeko horma perimetrara, teilatutik behatuta.



Astigarribiako San Andres basilizaren ikuspegi orokorra.



Astigarribiako San Andres basilizaren burualdeko leiho baxua.

San Andres apaingarririk gabeko eliza dugu, bestalde; soila eta formetan berezia. Horrelako eraikinen aurrean, bi hipotesi izaten dira beti: oso antzinakoa izatea –horrek berezko forma horiek izatea justifikatuko luke– edota eraikitzaileek halako estilo zakar bati propio jarraitu izana –horregatik izango luke eraikinak itxura gogor hori–. Murruetan, ekialdeko hastialaren behealdean bereziki, barra-barra erabili zituzten eraikitzaileek gutxi laututako harri handiak, ibaian hartutakoak. Nire iritziz, aipatutako teknika horrek erromaniko aurreko joeretara garamatza berriro ere. Goialdean eta alboetako murruetan, aldiz, prisma itxurako harlauzak daude; antza, harria lantzeko teknikak nagusitu ziren alde horretan.

Izan ere, gaur egungo altxaerak ikusita, begi-bistakoa da eliza gutxienez bitan berreraiki zutela. Jatorrizko egiturari dagokionez, eraikinak presbiterioko hastialari eutsi dio –hortxe dago mailakatutako txaranbeldura eta ferra arkuak dituen leiho ospetsua–. Lehen esan bezala, presbiterioan nabariak dira erromaniko aurreko aztarnak. Berrikuntza egin berriak nabarmendu egin ditu, barrualdean, hastialaren eraikuntzaren bi momentu nagusiak; alderdirik zaharretan, harlanduak agerian utzi eta presbiterioko gainerako aldeak luzitu eta horiz margotu dituzte. Hastialeko erdialdean, eta leihoen lerro axialari jarraituz, pinoi bukaera dago. Horrek agerian uzten du bi isurkiko egurrezko teilatua zegoela antzina, eta neurriak txikiagoak zirela –gaur egungo elizaren zabaleraren erdia, gutxi gorabehera–. Baliteke, hasieran, presbiterio ondoko nabea gaur egungoa bezain handia izatea, Ignacio Barandiaránek proposatu zuen bezala¹⁴. Bildu dugun irudia San Andres elizari buruzko monografia interesgarri batean argitaratu berri dute¹⁵.



Astigarribiako San Andres basilizaren burualdea, inguruko korridoretik behatuta.

Gehixeago zehazteko moduan gaude, ordea. Izan ere, harri koskor dentsitateari erreparatuta, hastialean bi garai daudela nabari da: behealdea, ferra leihoa duena, gainerakoa baino zaharragoa omen da, eta eraikina txikia zela adierazten du –kapera baten modukoa ia–. Zabalera Barandiaránek proposatutakoa bera izango zen, eta altuera gutxi gorabehera erdia; ziur asko,

teilatu laua izango zuen. Alde horretatik, ferra baoak eta eraikinaren neurri txikiek testuinguru ezin hobea izango zuten erromaniko aurreko arkitektura mozarabiarrean¹⁶. Tenplua, bestalde, erromaniko aurreko eta mozarabiar estiloko altxaeretako zenbaitekin bat etorriko zen, baita gaur egun indusketa arkeologikoei esker ezagutzen ditugun planimetro neurketekin ere¹⁷.

Beharbada inguru osoa Donemiliagaren esku utzi izanaren ondorioz, eta eraikina sagaratzarekin batera, zabaldu egin zuten oratorioa, hastialaren goialdea, txaranbeldura duen bertako leihoa eta murrurik zaharrenaren beste zatia eginda. Dirudenez, murru guztiak berdin egin zituzten: harri koskorak eta harlauzak tartekatuta. Lan horren emaitza (oso erromaniko oinarrizkoa eta soila) 1108. urtean sagaratu zuten.


Erromaniko aurreko ezaugarriak eta XI. mende bukaera aldeko dokumentatutako kronologiak dituen eskualdeotako eraikin urrietako bat da, beraz, Astigarribiako. Horregatik, azterketa zientifiko bat egitea funtsezkoa zen, aztarna arkeologikoak bi kanpaina arkeologiko sorten emaitzekin lotzeko. Lehendabiziko kanpaina Ignacio Barandiaránek egin zuen 1969an eta 1970ean¹⁸, eliza barrualdean eta hilobietan batez ere. Aranzadi Zientzia Elkarteak 1999tik 2004ra bitartean bata bestearen segidan egindako bost kanpainak barrualdeko indusketa hura osatzera etorri ziren¹⁹. Perimetroko korridoreak eta elizaren ingurunea aztertu zituzten bost kanpaina horietan.

Kanpaina arkeologikoen aurkikuntzei arreta pixka bat eskainiko diegu orain. Lehendabizikoan (1969-70) elizako zoruari egin zuten indusketa, eta zimendurik zaharrenak eta hilobi ugari topatu zituzten; hilobien artean, barrualde antropomorfoa eta tapa dituen harlanduzko sarkofago bat. Materialei dagokienez, bostehundik gora txanpon. Txanponak egin zituzteneko datei esker ezagutu dugu hilobien kronologia: denak XIII. mende bukaeratik XVIII. mendera artekoak dira. Txanponak ez ezik, hainbat oihal, zeramika, metal eta beira zati ere aurkitu zituzten²⁰. Indusketa etenda geratu zen oholtzaren azpian, baina 2000. urtean, hura aldatu behar zutela aprobetxatuta, lanari heldu zioten berriro ere. Hilobi eta txanpon gehiago topatu zituzten orduan. 2001ean, perimetroko korridorea induskatu zuten, eta beste zortzi hobi aurkitu zituzten. Ondorengo kanpainen, kanpoaldera eta tenpluko burualdera iritsi zen indusketa. Beste hilobi batzuk aurkitu zituzten; haien artean, zaldun batena, etxeko gauza eta guzti, Goi Erdi Arokoa ziur asko, eta ezpata eta belarria ere kontserbatu dituen²¹. 2003an perimetroan egin zuten lan eta, aurkikuntzen arabera, Astigarribia eta ibia ia-ia batera sortu zirela dirudi²².

Arkeologia lan zehatz horiek bete egin dituzte Ignacio Barandiaránek San Andresen eraikuntzarako proposatutako bilakaera kronologikoaren atalak²³, gerora ere zientzia azterlan garaikideenak osatutakoak²⁴. Tenpluaren eraikuntzaren historia kronologikoak, orain artekoak, ondorengo atalak izango lituzke:

1. Lehendabiziko oratorioa (1086 baino lehenagokoa). Gaur egungo elizaren oinaldeko eta ekialdeko korridoreko nekropolia jatorrizko eraikin hari lotuta egongo ziren. Eliza txikia izango zen, egurrez estalia. Eraikin haren aztarna bakarrak hastialaren behealdea eta ferra baoa dira gaur egun.
2. Jatorrizko elizaren estreinako zabalkundea (1108an sagaratu). Hastiala zabaldu eta beste leiho bat jarri zuten. Eraikinak planta angeluzuzena eta nabarmendutako presbiterioa zituen. Hastialak jatorrizko nekropolia zeharkatzen zuen.
3. XIII. mendeko zabalkundean sendotu egin zuten aurreko lana, gainezka egiten ari zelako, eta burua presbiterioraino zabaldu zuten. Multzo osoak gaur egungo zabalera hartu zuen burualdean.

4. Kanpoko esparrua egin zuten (XIV. eta XV. mendeak), defentsa beste eginkizunik ez zuten galeriak perimetroan eraikita. Horretarako, oinaldeko jatorrizko ataria txertatu zuten kanpoko esparruan. Eliza gotortu izanaren testuingurua bilatu beharko bagenu, Behe Erdi Aroa litzateke une egokia, sasoi hartan bandoen arteko borrokek beldurra eragin zutelako eskualdean.
5. Garai hartan hartu zuen barrualdeak gaur egungo itxura (XV-XVI. mendeak). Aldatu egin zuten egurrezko teilatua, perimetroko murrutan peraltea eginda. Mendebaldeko hasiala kendu eta defentsarako mendebaldeko murruraino eraman zuten.
6. Berreraiki eta sendotu egin zuten teilatua (XVI. mende bukaera - XVII. mendea), egiturazko arazoak ematen zituelako. 1960ko hamarkadako berrikuntzara arte iraun zuen estalki hark.
7. Ataria berreraiki zuten (XVIII. mendea).
8. Kanpandorrea egin zuten (1889).
9. Azken hiru lanak XX. mendekoak dira: teilatua 60ko hamarkadan berreraiki zuten, indusketa lanak egin zituzten lur azpian, eta azken berrikuntza ere egin zuten.





Astigarrribiako San Andres basilizaren inguruko korridorea.

Astigarrribian egindako ikerketetan eta indusketetan oinarrituta, ondorio garrantzitsuak atera ditzakegu. Lehenik eta behin, gerora Mutriku udalerrriak hartu zituen lurretan jendea bizi zela, Behe Erdi Arotik gutxienez. Aurreneko populazio hura Deba ibaiaren ibarrean bizi zen, eta bertako baliabide naturalez zein ibi ondoan izateak ematen zion garrantzi estrategikoaz baliatzen zen. Arrantzarekin lotuta, ibaia ustiatzen ere hasiak ziren lehen biztanle haiek, errotan eta itsasontzi txikiak egiteko artisauek tailerren bidez. Giza espazioa dokumentatutako monasterio baten jaurgoen inguruan egitura-tuta zegoen. Litekeena da beste jaurgo batzuk ere izatea, leku estrategikoa zen-eta.

Astigarrribiako ibia eta inguruko dorretxeak funtsezko bidea izan ziren mende luzez eskualdearentzat, bai Deba-Mutriku-Ondarroa ibilbide laburra egiteko, bai kostaldeko bidetara egituratzaile bezala. Bidetara berarengatik baino gehiago, ibiarengatik zuen garrantzia Astigarrribiak. Badakigu, adibidez, kostaldeko bidetik Santiagora zihoazen erromesek bertatik zeharkatzen zutela ibaia.

Itziarretik, bideak behera egiten omen zuen, Deba ibaiaren Sasiolako igarobiderantz, Astigarribiatik oso gertu (...). Handik, Debaren ibaiertzetik, gora egiten omen zuen Mendaroraino, Deba eta Artibai arteko banalerroa Arnoate mendatetik gainditzeko gero, zeina XIII. mendeko dokumentuek aipatzen duten, eta berehala Bizkaian sartzeko²⁵.

Aurrerago ikusiko dugunez, Astigarribian ibaia zeharkatzea ahalbidetzen zuen gabarrrak garrantzi handia izan zuen Aro Modernoaren bukaera arte. Harlauzazko bide bati lotuta zegoen. Bide hori breazko zoruaren azpian dago gaur egun, eta kronologikoki Goi Erdi Aroaren –Astigarribiako elizarekin batera– eta Aro Modernoaren artekoa da. Ibiaren azpiegiturari ere lotuta egon zen gabarra²⁶. Eliza parrokia izan zen mende luzez, eta lurperatzeko leku gisa ere erabili zuten; lehendabizi, perimetroan –oinaldean, batik bat–, presbiteriotik kanpoaldean gero, eta azkenik, XIII. mendetik aurrera, barrualdean.



Astigarribiako San Andres basilizako aldarea, korutik behatuta.



Astigarribiako San Andres basilizako nabearen ikuspegi orokorra.

Astigarribiako San Andres eliza ezin hobeto dago kontserbatuta. Zabala eta atsegina du barrualdea. Zorua eta altzariak egur argiz daude eginda; teilatua duela gutxi berritu dute; presbiterioko murrak, jatorrizko hastiala izan ezik, horiz luzitu dituzte; perimetroko korridorea garbitu egin dute... Burualdeko ferra leihoaren bi alboetan, Gurutziltzatua eta Haurra duen Ama Birjina jarri dituzte, inspirazio erromanista dutenak. Ondoan, sagrarioko ate errenazentistaren atzealdean, San Andresen irudia dago. Horixe da pieza guztietan zaharrena. Bizarra, kizkur helikoidal ederrez osatutakoa, hondar gotikoaren imajinagintzaren ezaugarrietako bat da. Adituen esanetan, XV. mendekoa da²⁷.



Astigarribiako San Andres basilizako Ama Birjina, Haurrarekin.



Astigarribiako San Andres basilizako santu zaindariaren irudiaren xehetasuna.

Zoritxarrez, hiru iltzedun gurutziltzatu gotiko bat galdu du elizak. Ojangurenak 1936an egindako argazkiei esker dakigu pieza hori egon bazegoela. 60ko hamarkadan egiaztatu zuten galduta zegoela gurutziltzatu²⁸. Aurpegiak gotiko klasikoaren ohiko lasaitasuna erakusten du. Ilearen eta bizarraren konposizioak XIV. mendeko ereduei jarraitzen die. Hil oihala darama soinean, zimeldutako tolesturak dituena, eta anatomia adierazkorra du gorpuak. Egurrezkoa dirudi. Nahiko galdua du polikromia, eta pitzadura sakon bat du bularraren erdialdean. Gerra Zibilaren ondoren galdu zen gurutziltzatuaren arrastoa. Zorionez pieza suntsitu gabea bada, aurkitu eta haren jatorria dokumentatu ahal izango da egunen batean.



Astigarribiako San Andres basilizako gurutziltzatu, desagertuta dagoena.

Ez dira horiek Astigarribiaz egin beharreko aipamen bakarrak. Astigarribian etxe gutxi batzuk ere badaude sakabanatuta. Erdi Aroan estrategiaren ikuspegitik garrantzi handia izandako toki baten historia gorde dute etxe horiek. Nobleek eta beren leinuek irudi duinagoa izateko eta errealitate sozial bortitz eta liskartsuarekiko babes bermatzeko egindako harrizko eraikinak dira haietako batzuk. Baserrietako zenbaitek gotiko berantiarraren arkitektura zibilaren aztarna esanguratsuak dituzte. Geroago aztertuko ditugu batzuk, Erdi Aroko arkitektura jorratzen dugunean. Erdi Aroko bidexkan gora egin, Arno mendi inguruko tontorretara iritsi eta itsaso aldera jaisteko garaia da orain.

2.2. Mutriku eta hiri gutuna

Noiz arte izan zen Astigarribiakoa eskualde honetako populazio bakarra? Luzaroan, antza denez. XII. mendean aurrera egin arte, gutxienez; 1200. urterako, Mutriku gaur egungo toponimoaz eta gaur egungo kokalekuan ageri da dokumentazioan. Urte hartan, Gaztelako Alfontso VIII.a erregeak Santiagoren Ordenari eman zion mutrikuarrek berari urtero eman behar zioten balea²⁹.

Dokumentu horretatik hainbat ondorio atera ditzakegu. 1200. urtea *ante quem* erreferentzia dugu. Hau da, ordurako bazegoen «talde bat, nahiko egituratuta, baleak harrapatzeko eta haiek eraldatzeko gai zena, eta urtero, balea bat Gaztelako Erregeari eta, 1200. urtetik aurrera, Santiago Ordenari emateko moduan sobera izan zezakeena»³⁰. Ez dakigu noiz hasi ziren Mutrikuko badiako biztanleak Gaztelako Erregeari ordainketa hura egiten. Lehen ikusi dugun bezala, XI. mende bukaeran Gaztelako Errege-erregina zen Astigarribiako monasterioa. Badiako lehen biztanleak Astigarribiatik joandakoak zirela ere aipatu izan dute zenbait ikertzailek³¹. Mutrikuko badia, Getariakoa, Donostiakoa edo Pasaiakoa bezala, abiapuntu ezin hobea zen itsasoari etekina ateratzeko –arrantza egiteko, hasieran–. Bazegoen itsaso aldetik erasoak jasotzeko arriskua, baina merezi zuen hala ere, balea arrantzak etekina ekartzen baitzien badia horietako biztanleei.

Pentsatzekoa da lehendabiziko etxeak kostaldeko mendietako hegoaldeko mazelan eraiki zituztela, badia zuzenean aprobeixatu ahal izateko. Tokia ez zen eraikitzeko egokia, baina proposa zen kokalekuari zegokionez. Isurialdeak ekialde-mendebalde ardatzean zeuden. Eta babespean zegoenez, itsasaldeko ipar haizeak ez zuen zuzenean jotzen. Kokalekua aldapan zegoen, egutera, eta badiako harkaitzetatik zentzuzko distantziara. Han hasi ziren pilatzen etxeak, lerroetan terraza moduan eraikita. Barruko badia txikia ere erabil zezaketen lehen biztanle haiek, korronteetatik erabat babestuta zegoelako eta ez zutelako ezer askoren beharrik. Mutrikuren has-tapenak ziren haiek.

Nahiz eta 1200. urtea baino lehen sortua izan, Mutrikuko populazioak ez zuen arrastorik utzi Antso Jakintsua eta Antso VII.a Azkarra Nafarroako erregeen kartularioetan. Hau da, Gipuzkoa Gaztelan sartu baino lehen Mutrikun jendea bizi zen arren, Nafarroako Errege-erreginek ez zuten harekin loturarik izan. Haien eraginpeko lurraldetik kanpo zegoen beharbada. Astigarribiako monasterioa bera ere ez zegoen Iruñeko artzapezpikutzaren eremuan; aitzitik, Gaztelako erresumarena zen aspalditik.

Hipotesiak hipotesi, 1209an, Gaztelako Alfontso VIII.a erregeak sorrera hiri gutuna eman zien Mutrikuko biztanleei. Zer ekarri zien pribilegio hark garai hartako gizon-emakumeei eta haien ondorengoei? Lehen esan bezala, Erregeak forua eman baino lehen, Mutrikun bazen biztanlerik. Batik bat arrantzaren inguruan antolatuta zegoenez, itsasora joateko portua zuten badiari lotuta. Dena dela, Erregeak forua emandakoan sortu zen benetan Mutriku. Izan ere, lehen biztanle haiei, hamarkada luzez han bizi izandakoei, Erregeak bermatutako ziurtasun juridikoa eman baitzien foruak. Estatutu hark erraztu egin zituen biztanle zahar eta berrien bizi jarduerak, eta garapenaren eta hazkundearen oinarriak ezarri zituen. Horrez gain, barne antolaketa bidezkoa eta berdintasunezkoa izan zedila ahalbidetu zuen. Ez da gutxi, kontuan hartuta nolako inertzia juridikionalak ezarri ohi zituzten garai hartako nobleek euren feudoetan. Inguruko eskualdeetako gizon-emakumeentzat, beraz, feudo, noble eta leinu jakin batzuekin lotzen zituzten antzinako mendekotasun fiskalak eta morrontzak alboratzeko aukera ederra zen bizitzera Mutrikura joatea. Aldaketa erakargarria, dudarik gabe. Hura izan zen Behe Erdi Aroko hirigintza garapenaren oinarria.

Gaztelako erresumaren ikuspegitik, 1203tik 1237ra arteko bigarren sorraldian fundatu zen Mutriku. Urte haietan, portu sare bat eratu zuen Gaztelak Gipuzkoako kostaldean³². Donostiarekin batera –Nafarroako Antso Jakituna erregeak 1180 baino lehen sortutakoa–, Hondarribiak, Getariak, Mutrikuk eta Zarautzek populatutako gunek bat osatu zuen; ordura arte jarduera nagusi gisa nekazaritza eta artzaintza izan zituen eremu soziohistoriko batean, alegia³³. Herri horiei guztiei

Donostia sortzeko idatzitako forua eman zitzaien estatutu juridiko moduan, «merkataritza eduki nabarmena zuelako»³⁴. Horixe baitzen Gaztelako Errege-erreginen helburu nagusia. Herri horiek, hazten joan ahala, alturako zein baxurako arrantza jarduera bizia ez ezik –Mutrikuren kasuan, Erregeak hiribildua sortu baino lehenagokoa–, gero eta merkataritza harreman estuagoak zituzten Europako beste toki batzuekin.

Sorrera dokumentuari dagokionez, ez da erreferentzia zehatz bakar bat ere kontserbatu. Ez dago ezertxo ere; ez udal artxiboan, ez Alfontso VIII.aren erresumari buruzko dokumentazioan³⁵. Garibairen bitartez baino ez dugu sorreraren berri³⁶. Ikus dezagun zer zioen:

Hallandose el Rey Don Alosa en Guipuzcoa, y queriendo en sus marinas aumentar algunas poblaciones, dio a los pobladores de la villa de Guetaria su carta de priuilegio en lengua Latina, fecho en la villa de San Sebastián en primero de Septiembre de la Era de mil dozientos, y quarénta y siete, que es el mesmo dia y mes dél dicho año dél nascimiento de mil y dozietos y nueue, para que ellos y sus sucessores gozassen perpetuamente dél fuero de S. Sebastian en los montes, pastos y aguas, y en todas las cosas, de la manera q gozar solian en tiempo de los Reyes de Nauarra (...) Lo mesmo q de Guetaria, hizo el Rey Don Alonso de Motrico villa maritima de la mesma prouincia, dádo le el fuero de Sant Sebastian, con todo lo de mas, que dió a Guetaria³⁷.

Mutrikuko artxiboan Alfontso VIII.aren ondorengoek berretsitako, sinatutako eta berunez zigilatutako agiriak daude. Sorrera pribilegioa Fernando III.ak eta Alfontso X.ak berretsi zuten, 1237an eta 1256an, hurrenez hurren. Aurrerago ikusiko dugunez, azken berrespen horrek hiribilduaren jurisdikzioaren mugak zehaztu zituen, eta donostiarren askatasun eta salbuespen berak eman zizkien mutrikuarrei. Antso IV.ak berretsi egin zituen pribilegio horiek 1290ean³⁸.

Zer abantaila eman zien estatutu juridikoak Mutrikuko herritarrei? Donostiarrek bezala, mutrikuarrek ez zuten Gaztela erresuma osoan ate-saririk ordaindu behar (Toledon, Sevillan eta Murtzian izan ezik); ezta ainguraketa, *treintazgo*, bidesari, hamarrenaren ondorengo zati eta otura eskubideak ere. Urteek aurrera egin ahala, ordea, gero eta zailagoa zen eskubide onuragarri haiek erresuma osoan baliaraztea. Horregatik, aldian-aldian, notario batek Donostiako foruaren jatorrizko eskubideak kopia eta jakinarazi behar zituen. 1338an, Alfontso XI.ak idatziz berretsi zituen Mutrikuren foru eskubideak, haien jakinarazpena jasotzera Donostiara joan beharrik izan ez zezaten. Gauza bera egin zuten, ondoren, Henrike II.ak (1374), Joan I.ak (1379), Henrike III.ak (1393), Joan II.ak (1409) eta Henrike IV.ak (1456).

2.3. Hiribilduaren osaketa eta Erdi Aroko definizioa

Hirigintza egitura orokorra ulertzeko, funtsezkoa da hiribildu berriak itsasoarekin zuen lotura estua gogoan izatea. Herrigune historikoa bera ere portuko moilen arabera antolatuta omen dago³⁹. Kaleak harantz orientatuta daude, eta badiako eguteren dute bukaera. Lursailen jatorrizko egituraren arabera, hiribilduaren lehen planoan eliza zegoen, portuko moilen buru. Antzinako eraikin haren oso aztarna gutxi dugu: terrazako sendotutako murrak baino ez, Berriatua dorretxearen atzealdean. Gero ikusiko dugun bezala, murrak diagonaletik sendotzen duten bi kontrahorma horiek elizako presbiterioa osatuko zuten. Kontrahormek gora egingo zuten, gotiko berantiarren irizpideen arabera presbiterioko angeluei eusten zieten diagonalekin bat egin arte; presbiterioak itxitura zuzena izango zuen, eta nabe nagusiarenaren antzeko zabalera. Erdiko horma-bularra segurtasun errefortzua izango zen, beharbada goiko tenpluaren berrikuntzaren batean gehitutakoa.



Mutrikuko alde zaharraren airetiko ikuspegia.

Foru emakidarekin lotutako dokumenturik zaharrenek herriaren antolaketan jarraitu beharreko ildoak eman zituzten. Jarraibide haiek ez zuten gaur egungo udal ordenantzen antz handirik, noski. Errege-erreginek dohaintzak eta foru eskubideak ematen zituzten, baina, horrez gain, hiri-bildua egituratzen ere hasi ziren XIII. mende hartan. Aurrerago ikusiko dugun bezala, interesgarria da oso eliza/parrokiaren protagonismoa. Herritarren zerbitzu nagusia da, garapena eta hazkundera ahalbidetzeko antolakundera eta baliabideak dituen. Herrigunearen definizioa ere hor dago. Izan ere, hiri gutunak segurtasun juridikoa eman baitzien herritarrei, eta ondorioz baita segurtasun fisikoa eta sinbolikoa ere.

E mando que vos (los mios pobladoresde la villa nueva de Motrico) aiuntedes todos los de las comarcas/ a facerme esta mi villa e esta mi puebla e que fegades buestra çerca mui buena e vos que todos pobledes dentro en la çerca e ninguno non sea osado de morar fuera/ de la çerca e faédme buena puebla e buena villa e si Dios quisier todavia vos fare ayuda e bien e merçed.

Segurtasun fisikoa emateaz gain, etxeak eraikitzeke egur, nekazaritza eta abeltzaintza baliabide nahikoa bermatuko zuen udalerrir eremua ere zehaztu zuen dokumentuak.

Otorgo a vos los mios po/bladores de villa Nueva de Motrico aquellos terminos/ que vos dio e vos otorgo elrei don Alfonso mio visa/buelo e vos otorgo despues el rei don Fernando/ mio padre e los terminos son estos el agua de Deva/ fata Mendaro e de Mendaro fata Ybarrola e de/ Ybarrola fata Rannoatea e de Ranoatea fata/ Amallogutia e de Amallogutia fata Aalloanagucia/ e de Amalloanagucia fasta Ondarroa e estos termi/nos sobre dichos vos do e vos otorgo a vos los mios/ pobladores de la villa Nueva de Motrico con Montes/ con fuentes con aguas con rios con fefesas e con pastos con entradas e con sallidas e con todos sus derechos e con todas sus pertenencias⁴⁰.

Lehenik, beraz, segurtasuna eta lehengaiak. Segurtasun juridikoaren berme nagusia zen hiri gutuna –gizon-emakumeak herri horietara joatera bultzatu nahi zituen Gaztelako erresumak berme harekin–. Hortaz, eman beharreko lehendabiziko pausoa zen. Bigarren, familiaren eta talde



Fernando III.ak
Mutrikuren pribilegioak
berresteko 1237an
onartutako agiria.



Petri I.ak Mutrikuren pribilegioak berresteko 1352an onartutako agiria.

osoaren segurtasuna. Familiaren segurtasuna etxebizitzarekin lotuta zegoen; lursail batean eraikitako etxe-logelarekin, alegia. Talde osoarena, bestalde, herri esparrua ixten eta fisikoki zein simbolikoki landa eremutik bereizten zuen hesiak bermatzen zuen.

Erdi Aro osoan, hiribilduen baliabideetako asko bideratu zituzten harresietara, baina XV. mendean geroztik oztupo bihurtu ziren herrien garapenari eta zabalkundeari begira⁴¹. Izan ere, herrietan gora egin baitzuen biztanle kopuruak, baina esparrua lehengo bera izanda. Pixkanaka-pixkanaka, Mutrikuko etxeek bere egin zituzten harresietako murrak, ateak eta dorreak. Eta, horrela, XVII. mendean galdu ziren harresiak behin betiko.

Nolakoa zen harresia? Hiri gutunean ikusitakoaren arabera, Erregeak berak agindu zien herritarrei hesia egitea. Ohikoa zen hori. Baina eraikuntzaren tamaina ez zen beti bera izaten, ezta hura eraikitzen eta behar bezala mantentzen pasatu beharreko denbora ere. Gaur egun, ez dugu eraikitze lanaren kronologia ezagutzeko modurik. Herri osoaren eginkizuna izanda, eta batik bat harria erabili zutenez, lan luzea eta gorabeheratsua izango zela pentsa dezakegu. Horrez gain, mantentze lana beharrezkoa bai, baina garestia ere izango zen udalerriantzat. Baliteke, bestalde, eraikitako perimetroa behar bezain segurua ez izatea. Horregatik, Henrike II.ak honako hau jakinarazi zuen 1374an:

Sepan quantos esta carte vieren como nos don Enrrique por la gracia de Dios rey de Castiella de Toledo de Leon de Gallisia de Seuilla de Cordoua de Murcia de lahen del Algarbe de Algesira e señor de Molyña por faser bien merced al concejo et a los omes buenos de Motrico por quanto la dicha villa esta en fontera e esta mal separada y porque se pueble mejor para nuestro seruicio damos vos que tengades de nos para de cada año en adelante por siempre iamas dos mill maravedis de la moneda usual de dies dineros el maravedi que es la nuestra merced que ayades de cada año para reparamiento de los muros de la dicha villa et estos dichos dos mill maravedis que los ayades en cada año según dicho es en las nuestras rentas e derechos de la dicha villa e de su termino⁴².

«Betiko» dohaintza hura berretsi egingo zuten gerora Joan I.ak 1379an, Henrike III.ak 1397an, Joan II.ak 1420an, Henrike IV.ak 1456an, Errege-erregina Katolikoek 1485ean, Fernando Katolikoak 1501ean eta Joana I.ak 1508an⁴³.

Laguntza hark indartu egin nahi zuen hiribilduak mugan zuen eginkizuna. Kontuan hartu behar dugu oso garestia zela gotorlekuak konpontzea eta mantentzea. Ez daukagu, hala ere, Mutrikuko udal kontuei buruzko daturik. 1479an, Tolosak konponketa handi samarrak egin behar izan zituen herriko hesian, eta lanaren aurrekontua 210.000 marabedikoa izan zen. Bermeok ere antzeko kopurua bideratu zuten xede horretara garai berean, eta badakigu udalerrriaren urteroko diru-sarrera halako bi zela hura⁴⁴. 1532an, etxea hesiaren gainean zuten herritar guztiek hura konpontzeko lanak egin beharko zituztela erabaki zuen Mutrikuko Udalak. Atxatxinetik Arraturriagaraino eta Arraturriagatik Zuabiagaraino eta porturaino harresiaz bestaldea harturik zutenek leku horiek hustu behar zituztela erabaki zuen Udalak. Gauza bera gertatu zen 1540an –harresiak «karez eta harriz» konpondu behar zirela gogorarazi zuten–, baita 1551n ere⁴⁵.

Harresiaren oso aztarna gutxi iritsi dira gure artera. Beheko plazari eusten dion plataforma, Berriatua dorretxearen atzealdean, horma bular handiak dituen murrutzar batek sendotuta dago; dirudenez, murru hori harresiaren parte izan zen. Beste errefortzu murru batek, mendi mazelaren presioa saihestu nahi duenak, Alegria kalea ixten du iparraldetik. Logikaz, pentsa dezakegu harresiaren parte zirela bi errefortzu murru horiek. Denboraren joanean, bi paretak eutsi egin diote zeregin tektonikoari, eta irautea lortu dute horrela. Gainerako murrak harrobi moduan erabili zituzten, barrualdeko etxeak egiteko; batik bat, Aro Modernoan portaleak desagertu ondoren. Hesiaren gainontzeko arrasto guztiak hirigintza garapenak irentsi ditu.



Harresiaren aurrealdea, badiaren aldetik.



Beheko Plaza eusten
duen plataforma.



Alegria kalea.

Gaur egun, kale egiturak baino ezin digu eman Mutrikuko harresiaren nondik norakoaren inguruko lekukotza seguru samarra. Iparraldetik, aipatutako Alegria kaleak ixten zuen perimetroa, Kondekalek eta Erdikokalek bat egiten duten lekuraino. Sabanika eta Frontoi kaleek bidearen mendebaldeko erpina osatzen zuten. Hor, harresia Frontoi kaletik jaisten zen Zubiaga plazaraino; bertan zegoen hego-mendebaldeko erpina. Hesiak San Josefen atzealdetik egiten zuen, Montalivet jauregiraino, eta bertan zuen hego-ekialdeko erpina. Kale hauek guztiek ausaz itxita dirudite; ez dute ez aurrealderik, ez ataririk, eta oro har atzealde bezala definituta daude hegoaldean: harresiari atxikita eraikitako etxeen ohiko irudia dira. Montalivetetik abiatuta, harresiak Beheko plazako plataformaren karelekin bat egiten zuen, eta Berriatuaren atzealdetik, Modesto Txurruka Plaza eta Atxukale ingururaino iristen zen. Mendi mazelan gora igotzen zen berriro ere, Alegria kalearekin bat egiteko eta perimetroa osatzeko⁴⁶.



Erdi Aroko Mutrikuren airetiko ikuspegia.

Nola garatu zen herriaren lehendabiziko hirigintza etapa hura gotortutako esparruan? Hirigintza diseinua, eraikitzeko sailaren kontzeptu orokorra eta eraikin gutxi batzuk kontserbatu ditugu –eraikin horietan, hain zuzen ere, behealde gutxienez Erdi Aroaren bukaerako eredu tradizionalen arabera egin zutela dirudi⁴⁷-. Antza, lehen herrigune hark 1,6 hektarea zituen, 80 orubetan banatuta⁴⁸. Mendi mazelaren, ibarraren estugunearen eta bere eguteraren eraginez, ekialdetik mendebalderako orientazioa hartu zuten etxeek. Herriak, beraz, halako botila itxura hartu zuen; lepoak ibarrean gora egiten zuen, Bizkai aldera, eta oinarria, berriz, badia aurrean zegoen, etxe multzo sendo batek osatuta. Itsaso aurreko multzo horretan, elizak protagonismo berezia izango zuen hasieratik; bai hirigintza aldetik, bai defentsa eginkizunetik begiratuta⁴⁹.

Mutrikuko orube motei dagokienez, bestalde, ez dugu datu zehatzik. Ondorengo beste kasu batzuei erreparatuz gero, lursail berdinak banatzea izaten zen ohikoena. Hori proposatu zuen Azpeitiko 1310eko hiri gutunak. Mende bukaeran, Urretxun, bi lursail mota proposatu zituzten: bata, bestea bi halako. Gipuzkoan, eraikitzeko oruberik arruntenak sei bider bederatziz besakada zituen; hau da, zortzi metroko aurrealdea bider hamabi metroko sakonera. Gipuzkoako herri askotan oraindik ere oso nabaria da eredu hori⁵⁰.

Mutriku ez da salbuespena. Lehen aipatu dugun bezala, eraikitzeko 80 bat orube zatitu zituzten hasieran, berdintsuak guztiak ere. XV. mendean, ordea, oso bestelakoa zen egoera. Herriak arrakasta zuenez portuari, merkataritzari eta arrantzari esker, gero eta familia gehiago bildu ziren bertara. Ondorioz, hasierako orubeak zatitu eta, aldi berean, sailak ahalik eta gehien zabaltu zituzten; hau da, orubeak erdibitu eta etheen atzealdeetako baratzeak edo argi patioak hartu zituzten. Aldaketa horien eraginez, orube gotikoa sortu zen: estuagoa eta luzeagoa⁵¹. Kontrako prozesua ere gertatu zen: jabeetako batzuek zabaltu egin zituzten beren lursailak, ondokoak erosita. Halaxe sortu ziren lursail eta erdian edo lursail bitan egindako eraikinak, balio sinboliko handia zutenak; adibidez, Luardo dorrea, Arrietakua dorrea eta zabieltarrena –Aro Modernoan eraitsi egin zituzten azken bi hauek, jauregiak eraikitzeko–.



Erdi Aroan inspiratutako egurrezko armazoiak, Atxitxinen.

Eta nolakoak ziren lursail haiek hartu zituzten etxeak? Etxeak bizilagun berriek eraiki behar bazituzten, argi dago lehengai ugari izango zela herri inguruan. Segur aski egurra izango zen lehendabiziko eraikuntza materiala. Izan ere, XV. mende bukaera arte, eraikinak egur hutsean egiten ziren ia⁵². Hona hemen adibide bat. Elgoibarko herritarrek gutun bat bidali zieten 1485ean Errege-erreginei, zera adieraziz:

La villa con sus arrabales están edificados en forma muy peligrosa, e cerca del peligro del fuego, porque asy como comúnmente eran en toda esta dicha provincia las casas de madera y estaban juntas e apegadas, las unas a las otras de guisa que todos estan en peligro de una sola candela que se pusiese a mal recabdo, por lo qual se solian quemar e quemaban muchas villas e logares desa dicha Provincia⁵³.

Albiste hau biziki interesatzen zaigu, Mutrikun ere sute handia izan zelako garai hartan; 1553an herriaren zati bat suntsitu zuenaren aurrekaria, hain zuzen ere.

XV. mendearen azken laurdenetik aurrera, udal ordenantzen eta sen onaren ondorioz, harria, adobeak, adreilua edo buztina erabiltzen hasi ziren etxeen eraikuntzan. Kronologia horixe proposatu dugu guk behealdeak harrizkoa duten Erdi Aroko Mutrikuko eraikinetarako. Haietako askok puntadun ateak dituzte, batzuetan leiho bikiekin lotuta. Benetan ugariak dira halakoak. XVI. mende erdialdeko sutearen ostekoak al dira etxe horiek? Gure ustez, ez. Geroago sakonduko dugu horretan. Puntadun hutsune horiek agerian uzten dute etxeetako batzuek, osorik edo neurri batean, onik atera zirela sutetik. Hain zuzen ere etxe horiek ziren behealdeak harrizkoa zutenak. Puntadun ateak dituzten etxe sorta da horren lekuko.

Bi tokitan daude mota honetako eraikinak, biak ere periferiko samarrak. Sabanika kalearen bi aldeetan, hego-mendebaldean, ohikoak dira arku zorrotzak dituzten harlanduzko basamentuak. Ipar kalean ere gauza bera gertatzen da, ipar-ekialdean: apaindutako behealdeak eta puntadun ateak ageri dira hor ere. Bi toki horiek ez daude hiribilduko kale nagusien artean, eta han lursailak ez zuten hain presio handia. XV. mendearen bigarren erdialdekoak dira, ziur asko. Etxe multzo osoan sakabanatuta, Erdi Arokoak diruditen beste zenbait elementu daude. Zabilen jauregiko



Sabanika kalea.

erdi-sotoan, adibidez, puntadun aurrealde bat dago; Erdi Aroko dorreako izango zen segur aski, ondoren berriro erabili zutena. Modesto Txurruka kalean beste bi daude. Hori dena, maila ertaineko etxeei dagokienez; gerora aztertuko ditugu dorretxeen aztarnak; bai gotortutako eremuan, bai kanpoaldean.

Poliki-poliki, beraz, Mutrikuren Erdi Aroko itxura osatzen ari gara. Hiru ezaugarri nagusik definitzen zuten mendi mazelaren egutera kokatua zegoen herria: batetik, harriz inguratuta zegoela; bestetik, gaur egungoaren antz handia duen bide sarea zuela; eta, azkenik, nahiko neurri erregularreko etxebizitzak zeudela lursailetan. Irudia osatzeko, zera jakin beharra daukagu: zergatik eraiki zuten herria, nolatan sortu zen eguneroko bizimodua eta zergatik garatu zen arrakastaz. Badiako itsas baliabideak ustiatzeko sortu bazen Mutriku, badia portu eta babesleku moduan egokitzen joan beharko zuen hango hirigintzak. Antza, XIII. mendearen lehen erdialdekoak dira jatorrizko moilak, Fernando III.aren garaikoak⁵⁴. Barrualdeko lehendabiziko moila ere, Kofradia Zaharrekoa, sasoi hartan eraiki omen zuten. Kanpoaldetik begiratuta, haren harlandu erraldoi eta irregularrek Erdi Aroko paramentuen ezaugarri arkitektoniko berberak dituzte. Funtsean, Mutrikuko portuaren XVII. mendeko pinturek erakusten duten itxura zuen jatorrizko portuak.



Kofradia zaharreko kaia.

2.4. Udala eta herriko armarria

Mutrikuko Udala edo Kontzejua estu-estuki dago Mutrikuren sorrerari lotuta. Hiribildua Erregeak sortua zenez eta berezko estatutu juridikoa zuenez, bere burua antolatu behar zuen, elkarbizitzari buruzko ordenantzak behar bezala ezartzeko eta estatutuak bermatutako eskubideak zaintzeko ardura zuten herritar erakundeen bitartez. Herritarren antolaketa gaitasunaren esku zeuden, beraz, herriaren geroa eta arrakasta. Alkate eta errejidore postuak urtero aukeratzen zituzten, eta pixkanaka-pixkanaka hiribilduko elite ekonomikoen eta familiarren esku geratu ziren. Nahiz eta erakundeak Erdia Aroan duen jatorria, ez dugu 1482 baino lehenagoko alkate bakar baten izena ezagutzen. Urte hartan, Juan González de Mentita izan zen Udaleko buru⁵⁵. Orduz gerostik, agintarien jardueren inguruko dokumentazio ugari dago; urteroko diru kontuen likidazioaz bereziki.

Udalaren administrazioari lotuta dago hiribilduko armarria. Mutrikuko armarrarian urdin koloreko azalera bat ageri da, eta bertan arrantza irudi bat: ontzi batean doan marinela arpoia sartzen ari zaio balea bati. «Muy noble y muy leal» hitzak (Oso zintzo eta oso leial) Henrike IV.ak eman zizkion Gipuzkoa probintzia osoari; baita, beraz, bertako herriei ere.

Euskal Herriko kostaldeko herri askotako zigilu eta banderetan ageri da balea arrantza, euskaldunen ohitura zaharren lekuko⁵⁶. Zaharrenak Hondarribikoa eta Bermeokoa omen dira, XIII. mende bukaerakoak. Gerora gai hori bera agertu zen Mutrikukoan, Lekeitiokoan, Ondarroakoan eta Getariakoan⁵⁷.

Mutrikuko armarrarian irudirik zaharrena 1507ko dokumentu batean dago. Bertan, Joana erreginak berretsi egin zuen Mutrikuko merkatariak *treintazgoa* ordaintzetik salbuetsi zituen epaia –Bilboko probestuak eskatu zuen zerga ordaintzea–⁵⁸. Gero ikusiko dugunez, dokumentu ederra da oso; udal artxiboan direnen artean artistikoena, ziur asko. Balea arrantzaren irudi batek hartzen du armari osoa. Atzealdean kolore urdina da nagusi, itsasoa, uhin txiki batzuk dituela, eta zerua ageri baitira. Arpoilari bat eta hiru arraunlari daramatzen ontzi baten branka ageri da lehen planoan. Txaluparen azpian, balea bat uretatik ateratzen ari da, eta arpoilaria prest dago arpoi handi bat botatzeko. Zetazeoak itsas munstro itxura du ia.



Mutrikuko 1507ko armarria.

Atal honetako kronologia esparrutik zertxobait urrundu arren, azter ditzagun armariaren beste bi irudi, biak ere XVI. mendean egindakoak. Filipe II.aren foru eskubidearena da haietako bat, 1562koa. Bertan, bi ontzi dira protagonista, arraunlari, arpoilari eta guzti. Marinel horietako bi arpoiak balearen gorputzean sartzeko prest daude. Balea hiltzear dago ur azalean, eta odola darie beste bi arpoik eragindako zauriei. Erdi Aroko grabatuetan bezala, hemengoan ere itsas munstro itxura du zetazeoak. Beste irudia Luardo dorre ondoan dago, Zubiaga plazan. Filipe II.aren doku-mentukoaren antzeko multzo heraldiko baten parte zen. Gipuzkoako eta Mutrikuko armariak agertzen dira behaldean, eta pentsatzekoa da goialdean inperioarena egongo zela. Geroago sakonduko dugu bi armari horietan. Orain, hiribilduko armei baino ez diegu erreparatuko. Zoritxarrez, galdua da erliebearen goialdea. Itsasoko olatuen artean, balearen burua eta isatsa ageri dira; animaliairen gainean ontzi bat dago: arraunlari edo lemazain bat du txopan, eta baleari lehen arpoia sartzeko prest dagoen arpoilari bat brankan. Ikuspegi ikonografikoaren aldetik, egun kontserbatzen dugun konposiziorik zaharrenaren antza du; hots, Joana erreginak 1507an sinatu-tako dokumentuko armariarena.



Mutrikuko 1562ko armaria.



Mutrikuko armaria,
Zubiaga plazan.

2.5. Parrokia zaharra

Mutrikuko antzinako parrokia XVIII. mendearen bukaeran galdu zen, eta handik urte batzuetara eraiki zuten gaur egungoa. Eraikin berriak goitik behera aldatu zuen Mutrikuko hirigintza; mugarri izan zen ikuspegi historikoan, aro berri bat zabaldu baitzuen. Modernotasunak garrantzi historiko eta sentimental handiko biktima bat utzi zuen, ordea, gure herrian: Erdi Aroko parrokia zaharra.

Erdi Aroko herri orotan nahitaezkoa zen, kaleak diseinatu, etxebizitzak egiteko lursailak zatitu eta bideak egiteaz gain, parrokia eraikitzea. Eraikitze lan nagusietako bat zen hura. Oinarrizkoa zen herrietan. Juridikoki eta espiritualki, populazioarekin batera sortzen zen, eta herriaren garapenaren oinarrizko osagaia izaten zen; giltzarria, zenbaitetan. Garai hartan sortutako herri gehienetan bezala, Mutrikuko hiribildua bezain zaharra da parrokia. Parrokiaren sorrera administratiboa estatutu juridikoa jaso izanarekin lotu dezakegu, baina litekeena da are zaharra goa izatea.

Herrian zuen kokalekua ikusita, bistan da antzinako eraikina zela, eta garrantzi handikoa gainera. Mutrikuko Erdi Aroko parrokiak herriko lursailik zabalena eta baliotsuena hartzen zuen, hegoaldeko mendi mazelan. Eraikina ekialde-mendebalde ardatzaren arabera zegoen antolatuta, aldare nagusiak orientazio kanonikoa izan zezan. Eta elizak behar beste leku izan zezan, ekialderantz zabaldu zuten lursaila, terraza murru izugarri batez sendotuta. Murru hura, tenpluaren buruarekin batera, portuko bokalera eta moilen aldera ateratzen zen. Protagonismo nabarmena omen zuen eraikinak. Baina askoz ere gehiago dakigu elizaren historiaz, zeukan itxuraz baino. Ez baitugu, esaterako, parrokia zaharra agertzen den grabatu, zirriborro edo pinturarik. Teixeira 1634 baino lehen «erretreatatu» zituen badia eta hiribildua, portuko bokalea eta moilaren diseinua fideltasun handiz irudikatuta⁵⁹. Baina ez zuen berdin jokatu Mutrikuko etxe multzoari dagokionez: era eskematikoan eta xehetasun gutxirekin erretreatatu zituen etxeak, eta elizaren protagonismoa baino ez da nabarmentzekoa. Teixeirairen irudi ederra ikusita, beraz, eraikin hark hiribilduari itxura sendo eta bertikala ematen ziola ondoriozta dezakegu, eta kaitik begiratuta ia protagonismo osoa zuela. Behintzat halaxe jaso zuen ilustrazioan.



Mutrikuko irudiaren xehetasuna, *Atlas del Rey Planeta* liburua.


Ikus dezagun zer dioten historiak eta agiriek. Dirudienez, XIII. mendearen erdialdekoa da parrokiari buruzko lehen aipamena. Alfontso Jakitunak 1256ko maiatzean Mutrikuri emandako eta bere biloba Antsok berretsitako errege zedularen arabera, Errege-erreginek dohaintzan eman zuten eliza:

A los clérigos de vuestra villa (Mutriku) a los que ahora son e seran de aqui ad/lante la iglesia de Santa María de Motrico que/ es y agora e las que faredes de aqui adelante que/ los aian con todos sus derechos e con todas sus per/tenencias asi como los an los de Sant Sauastian salbo los derechos del obispo que los/ aian como los obieron (los otros obispos en tiempo) del rei don Alfonso mio visabuelo e del rei don Ferrando mio padre⁶⁰.

Dokumentuak forua eman zuten garaiarekin lotzen du eliza; alegia, hiribildu berriaren sorrerarekin.

Absidea kaialdera begira zuen parrokia zaharraren ezaugarriak aztertzerakoan, gehiago dira sortzen zaizkigun galderak eskura dauzkagun erantzunak baino. Ezaugarri haiez arrastoren bat eman diezaguketen erreferentzia gutxi batzuk baino ez ditugu. Zuzeneko hiru informazio iturri soilik dauzkagu: bi dokumental eta arkeologiko bat. Beheko plaza azpian Tranpakale aldean dauden murrak eta horma-bularrak jatorrizko lehen eraikin haren osagaiak direla dio historiografia modernoak aho batez⁶¹.

Lehen agiriak elizaren plantaren fisionomia eta mendebaldeko aurrealdearen altxaeraren zati bat erakusten ditu. Francisco Iberok XVIII. mende erdialdean, elizako aurrealde berria egiteko, Udalari aurkeztutako diseinuen eta marrazkien parte da dokumentua⁶². Datu gutxi utzi dizkigu Iberok, baina oso adierazgarriak. Plano mota hauetan ohi den bezala, proiektu berriaren marren azpian, aurreko egiturak ageri dira, trazu eta kolore ahulagoez; tenpluko mendebaldeko hastialaren marra dira, XVIII. mendera iritsi ziren bezala. Geroxeago ikusiko dugunez, osagaiak Erdi Arokoak dira erabat. Egitasmo berriaren marra lodien azpian, arkitektoak jatorrizko elizako hastialeko osagai nagusiak ere marraztu zituen. Iberoren planoaren arabera, irregularrak ziren alboetako murrak zein aurrealdea indartzen zituzten ostikoak: hegoaldeko murrak iparraldekoa baino lodiagoa zen, aurrealdeko paramentua hegoalderantz lerratuta zegoen, atea ez zegoen paramentuaren erdian, eta abar. Litekeena da eliza hainbat fasetan eraiki izana, sendotzeko elementuetan, atetan, murruetan eta abarretan lan zehatzak eginda, eta hain zuzen ere horregatik izatea irregulartasunak. Aurrealdeak 60 oin zituen orotara; hots, 18 metro inguruko zabalera. Neurri horiek Debako parrokiako hastialaren parekoak dira.



Erdi Aroko fatxadaren krokisa, Iberok marraztua.

Aurrealdeak aurreratutako paramentu baten gainean zuen txaranbeldura. Paramentuak, bestalde, erdiko bi horma bular zituen, aurrealdea hiru kale paralelotan egituratzen zutenak. 1790ean, eliza botatzear zirela, Alexo de Iranda arkitekto bergararrak honelaxe definitu zuen aurrealdea: «Arkodun aurrealdea, oso zaharra, sendoa, eta nabe txikiei eusteko balio duena»⁶³. Hastialeko kale nagusiko goialdean idi-begi bat zegoen –laua, antza–. Mendebaldeko aurrealdea pinoi erremate batez eta bi isurkiko teilatu batez bukatuta zegoen.

Barrualdea erregularragoa omen zen. Kanpoaldeko horma bularrei lotuta, nabe nagusiak bi euskarri multzo zituen murruan itsatsita; biek baketa handi bana zuten erdian, eta ukondoe-tan bina, txikiagoak. Euskarri soilak dira, garrantzirik gabekoak; gotikoak, zalantzarik gabe. Eta, berriro ere, antz handia dute Debako parrokiako hastialaren barrualdeko euskarriekin. Antzekotasun hori esanguratsua da benetan; izan ere, Debako Santa Maria eliza XV. mendearen ondoren berreraiki baitzuten, aurreko mendeko tenplu baten oinarrien eta hastialaren gainean. Jatorrizko eraikin hari dagokionez, mendebaldeko hastialaren zati baten altxaera besterik ez da kontserbatu.

Ezer gutxi dakigu Erdiko Aroko elizaren buruaren ezaugarriez. Barrualdean hiru nabe zitue-nez, logikaren arabera hiru kapera egongo ziren buruan. Ondorio horretara iristen gara, behintzat, XVII. mende hasieran egindako berrikuntza garrantzitsuari buruzko dokumentuak aztertuta. Agiriek diotenez, «kapera nagusiaren albokoak erortzear zeuden»⁶⁴. Tenpluaren Aro Modernoko historia aztertzean ikusiko dugunez, berrikuntza hark helburu handi samarra zuen, eta sakona izan zen benetan. Dirudienez, alboetako absideak berreraiki egin zituzten, Erdi Aroko kapera nagusia bere horretan utzita. Kapera nagusiari dagokionez, handik urte batzuetara berriro zuten. Ez zegoenez oso altuera handian, aldare nagusia apaintzeko neurri desegokiak zituela irizten zioten. Hiru nabe desberdinak eta perimetroko murrak indartzen zituzten ostiko eta bular horma sendoak ere ageri dira dokumentuan.

Buruaren egitura hori mendebaldeko aurrealdearen diseinuarekin lotuz gero, ondorio hauxe aterako genuke: tenpluak eredu gotikoei jarraitu ziela, eta, beraz, XIV. mende hasieran arrakasta handia zuten erduei. Hori ote da parrokiaren kronologia? Datu gutxi dauzkagun arren, nik baietz uste dut. Testuinguru historiko eta sozial hartako beste parrokia batzuek bezala, Mutrikukoak ere aldatuta zuen jatorrizko itxura, berrikuntza ugarien ondorioz. Hala ere, eskuartean ditugun datuez baliatuta, ziurtasun osoz esan dezakegu Mutrikuko Zeruratzearen eliza zaharreko mendebaldeko aurrealdeak XIV. mendeko erduei jarraitzen ziela.

Francisco Iberoren planoak aztertuta, atera al dezakegu eraikinaren ezaugarriari buruzko beste ondoriorik? Lehen esan bezala, eraikinak hiru nabe zituen, eta erdikoa alboetakoak baino handiagoa zen, 2:1 proportzioan. Nabe nagusiak zortzi metroko zabalera zuen, eta alboetakoek lau metrokoa. Planoan ez da euskarririk ageri alboetako nabeetako ertzetan; arkitektoaren atrebentzia izan daiteke, agian, egituren krokis hutsak izaten baitira marrazki horiek. Dena dela, marrazkilariak zorrotz jokatu izan balu, eta horrek esan nahi izango balu ukalondoetan ez zegoela zutabetxorik, honako hau ondorioztatu beharko genuke: barrualdea luzeran banatzen zuten arku formeroei eusteko egin zituztela –hasieran, behintzat– nabe nagusiko euskarriak. Kontuak kontu, planoan ez da gurutze gangen ohiko euskarririk inondik ere ageri.

Hipotesiak ere baditugu. Antzinako eliza honetako teilatua, hasieran, egurrezkoa eta bi isurkikoa izango zen beharbada. Habeei diafragma arkuek eutsiko zieten nabe nagusian agian, eta errefortzu arku erdiek, albokoetan –barrualdeko ostiko arku faltsuen moduan–. Arotzek teilatua egindako lanari buruzko zenbait dokumentuk indarra eman diezaiokeite hipotesi horri⁶⁵. Oso eraikin gutxik kontserbatu dute horrelako egitura, nekez eutsi baitiezaieke hezetasunari, ekaitzei, suteei eta, oro har, denboraren joanari. Horregatik, garai hartan berriro egiten zuten eraikinen

barrualdea, harrizko gangak eta perimetroan errefortzu gehiago jarrita. Epe ertainera, ordea, arazo handiak sortu ohi ziren, egitura berrien pisuaren eta jatorrizko zimenduen eusteko gaitasunaren arteko desorekaren ondorioz.

Azken urteotako arkeologia lanek agerian utzi dute hilobiratzeak izan zirela parrokiaren lursailaren hegoaldean. Alde horretan egongo zen, Erdi Aroan behintzat, elizaren hilerrria⁶⁶. Gaur egungo parrokiak Erdi Aroaren bukaerarekin lotutako pieza bakarra du: urreztatutako zilarrezko kaliza eder bat, bikain landutako korapiloa duena; santuen irudiak daude bertan, gar itxurako egitura arkitektonikoen azpian. Gotiko berantiarraren estilo garbitik abiatuta, kalizaren oinaren eta koparen formek Errenazimentu garaiko erduetarantz egiten dute. Gonzalo Ibáñez de Mecetak eta Magdalena Arteagak enkargatu zuten, eta beren izenak koparen kanpoaldeko ertzean grabatuta daude. Hiribilduari buruzko XVI. mendeko dokumentazioan ere ageri dira haien izenak⁶⁷. Kalizaren kronologiarako erreferentzia ona izan daiteke, beraz.



Parrokiako kaliza,
gotiko berantiar
estilokoa.

2.6. Erdi Aroko dorretxeak eta jauregiak


Erdi Aroaren amaierako jauregi-dorreak testuinguru jakin batean ulertu behar ditugu: nagusitasun soziala harrizko arkitekturaren bitartez islatzeko joeraren haritik, alegia. Ohitura horrek oihartzun handia izan zuen Euskal Herrian eta Kantauri itsasoaren kostalde osoan. Oso fisionomia estereotipatua zutela, eraikin haiek helburu ugari betetzen zituzten: leinuen eta familien dorretxeak ziren, defentsa helburua zutenak edo jabeen itxura jakin bat eman nahi zutenak,

sinbolikoak, zeharo estrategikoak, landa eremuetako edo herrietako jauregiak... Arrazoi askogatik eta oso ezberdinengatik eraiki zituzten, beraz. Gipuzkoan XIV. eta XVI. mendeen artean eraikitako dorretxe guzti-guztiak elite sozial eta ekonomikoek egindakoak dira, ordea. Herriguneetan, XV. mendean eraiki zituzten mota horretako eraikin gehienak⁶⁸.

Jakina, ez zen gauza bera dorretxea landa eremuan edota herrian eraikitzea. Ezberdinak ziren zergatiak eta helburuak, baina, batean zein bestean, auzotarren aurrean beren ospea eta botere ekonomikoa nabarmentzea zuten helburu nagusiek. Herri eta hirietan, garrantzia sinboliko horren ispilu egin nahi izaten zituzten dorretxeak, defentsa helburua bigarren mailan utzita. Horrez gain, dorretxeek zeregin estrategikoa zuten merkataritzan, eta hiribilduko kale estuetako etxe arruntekin alderatuta, bereizketaren, elitearen eta arrakastaren ikur ziren.

2.6.1. BERRIATUA DORRETXEA

Lehenik eta behin, Berriatua edo Sulaingoa dorretxeari helduko diogu. Mutrikun dauden dorretxe guztien artean ikusgarriena da, inolako zalantzarik gabe. Bost solairuko etxe puskak kaian eta herrigune osoan nolako itxura ematen zuen ikusteko, XIX. mendeko grabatuei edo joan den mendeko 60ko hamarkadako hirigintza garapenaren aurreko argazkiren bati erreparatu baino ez



Berriatua dorrea.
Teilatupea XIX. mendearen bukaeran eraiki baino lehen egindako grabatua.

dago. Gaur egun ez da gehiegi nabarmentzen, beste eraikin altuago batzuk badaudelako Mutrikun. Edonola ere, Gipuzkoan kontserbatutako artean, Erdi Aroko dorretxerik handiena da honakoa⁶⁹. Berriatua dorretxeak fisionomia harrigarria du oraindik ere: bi zati simetrikotan erdibituta dago; zaharberrituta dago bat, eta zaharberritzeke bestea. Erdi Aroko eraikinari 1887an erantsitako teilatupe bat du azken zati horrek⁷⁰. Altxaera askoz ere lehenago egina da, XVI. mendeko dokumentuetan ageri da-eta. Sustatzailearen seme-alabek egin zuten, aurrerago ikusiko dugun bezala.



Berriatua dorreak gaur egun duen itxura, kaitik behatuta.



Berriatua dorrea. Tranpakalen dagoen fatxadaren leheneratze ideala.

Ez da erraza zergatik eraiki zuten zehaztea. Erdi Aroko dorretxeek aritzean, defentsa helburuetara edo arrazoi estrategiko eta militarretara jotzen dugu beti. Hori al zen, baina, Erdi Aroko herrietako dorretxeen zeregina? Mutrikun dauzkagunak toki estrategikoetan daude kokatuta, hiribilduko sarreretatik gertu. Bai behintzat Berriatua eta Luardo dorretxeak. Landa eremuko dorretxeei dagokienez ere, beren balio sinbolikoa azpimarratu izan dute, nagusitasun soziala nabarmendu nahi baitzuten haien bidez. Baina, era berean, kokaleku estrategikoa izaten zuten, bide sareetan edo ustiaketa guneeetan⁷¹. Beharbada ekonomia, defentsa eta sinbologia uztartuta eraiki zuten Berriatua hiribilduko behealdean, harresietatik kanpora, herriaren eta kaiaren arteko bidean. Edonola ere, dorretxearen diseinuak berak alderdi sinbolikoa eta ekonomikoki estrategikoa aztertzeraz bultzatzen gaitu. Antzinako argazkietan ikus dezakegunez, mandioa zuen dorretxeak, mendebaldeko aurrealdeari atxikita; eskailera mendi mazela erdian zegoen, triangulu itxurako lursail batean –bertatik abiatzen ziren Beheko plazako plataformaren eta parrokia zaharraren erre-
fortzuak–. Kalera ateratzeko portaleak merkataritzarako eta helburu praktikoetarako erabiltzen omen zituzten, portutik gertu zeudelako eta, dokumentuek diotenez, familia merkataritzan aritzen zelako. Portale horietako bat apainduta dago: gurutzelarkatu uztai bat du, zati bat galduta duena, eta Kristoren monograma eta bi alboetan alfa eta omega dituen armarritxo bat⁷². Atari nagusian Kristoren monograma egoteak, XV. mendearen amaieraz geroztik eraikitako beste egoitza askotan bezala, garbi erakusten du etxe hartan bizi zirenek sakratutasunera jotzen zutela babes bila.

Azken batean, dorretxearen ezaugarriak ikusita (kokalekua bera, haren garrantzia eta garapen monumentalak, bao eta egurrezko balkoietarako euskarri ugariak, behealdean gezileihorik ez izatea, espazioak kalearen gainean antolatuta egotea, etxebizitza bezala aprobetxatu izana...), esan dezakegu hiribilduan ahalmen ekonomiko handia zuen familietako baten erreferentzia zela eraikina. Botere hori portuak berak ematen zion. Horregatik zituen halako garrantzi sinbolikoa eta balio estrategikoa.

Berriatuarrak (edo Birriatua edo Verriatua) maiz agertzen dira hiribilduari buruzko XV. mende bukaerako eta XVI. mendeko agirietan: Otxoa Sebastián Berriatua, Juan Otxoa Berriatua, Juan Ramos Berriatua, Teresa Berriatua, Brígida Berriatua... Henrike IV.ak berretsi egin zituen, berunez zigilatutako gutun bidez eta armadore baten eskaerari erantzunez, Mutrikuren eta portuaren foru eskubideak, eta 1482an berrespina notario aurrean jaso zutenean, Otxoa Sebastián Birriatua izan zen lekuko. 1504ko agirietan errejidore moduan azaltzen da Otxoa Sebastián Birriatua, eta lau urte geroago karabela baten jabe gisa. 1504ko agiri batek dioenez, «Teresa de Birriatuaren etxean linterna bat» erosi zuten. 1507an, Juan Otxoa Berriatua herriko alkate bezala ageri da dokumentuetan⁷³, eta handik hamar urtera, «ontzien maisu» tituluaz, Juan de Azti kapitainaren ondasunak bahitu zituen⁷⁴. XVI. mende erdialdean, beste Otxoa Sebastián bat eta Berriatua batxilerra alkate izan ziren⁷⁵. 1556an, Brígida Berriatuak, leinuaren buruak, maiorazkoa sortu zuen, familiaren ondasun nagusiak batera gorde nahian⁷⁶.

1520 baino lehenagoko dokumentazioak dioenez, familiak ontzi bat, denda bat, alokairuan uzteko gela bat eta txandakako hainbat kargu publiko zituen gutxienez, baita begi-bistako ospea ere. Nahikoa portuaren atarian dorretxe bat eraikitzeke? Historiografiaren arabera, bai. Izan ere, dokumentazioaren arabera, Berriatua jauregi-dorretxea «XV. mende bukaeran eraiki zuen Mutrikuko Otxoa Sebastián Berriatuak, eta bere semeek, Juan Otxoa kapitainak eta Juan Ramos de Berriartuak, erdibitu egin zuten 1517an»⁷⁷.

Eraikinaren ezaugarri zehatzei dagokienez, beharbada Tranpakalerantz duen altxaera bertikal ikusgarria da bereziena. Lursaila –ohiko bi lursail unitate dira berez– okertuta dagoenez, aurrealdearen altxaerak murriztu egiten dira eraikinaren hondoa. Paramentuak harlangaitz txiki eta irregularrez eginda daude. Angeluetan eta ateen zein leihoen markoetan hareharrizko harlanduak erabili zituzten.



Berriatua dorrea. Tranpakaletik kairako ikuspegia.

Altxaeraren monumentaltasuna ez ezik, nabarmentzeko modukoak dira bao eta leiho ugariak ere. Jauregi gotikoen bereizgarria da hori: hormak hain zabalak izatean, leihoak barrualderantz koka zitzaketen, puntu erdiko ganga beheratuz baliatuz. Sortutako espazioan bi banku luze jartzen zituzten; albo bakoitzean bana. Horrelako eraikinetan oso ohikoa zen elementua sortzen zuten hori egitean, gaztelaniaz *cortejadora* deitua: aurrez aurre jartzen zituzten harrizko eserlekuak. Hain zuzen ere asmo horrekin jarri zituzten Tranpakalera ematen duen hormako leiho bikiak. Etxebizitzara sartzeko atea eraikinaren iparraldeko alboan dago. Hirugarren solairurako sarbidea ematen du ateak, eta, alboko mandioaren bitartez, hegoaldeko lorategiarekin lotuta dago. Dorretxea kalearekin lotzen duten beste ate batzuk ere badira –haietako bat oso eraldatuta–; ziur asko, merkataritza helburuetarako erabiltzen zituzten. Aterik ikusgarrienak baketa handiz osatutako apaingarri berezi bat du uztaian, baita krismoia duen armarri bat ere erdiko dobelan. Nahiz eta horrelako ateek sukalderako eta zalditegiatarako sarbidea eman ohi zuten⁷⁸, kasu honetan merkataritza gune batera sartzeko atea zela dirudi. Horregatik dago artistikoki landuagoa.



Berriatua dorreko ate nagusia, gaur egun.



Berriatua dorreko ateko uztaiaeren berreraikitze ideala.

Garai hartan, eraikuntzan, zuloak egiten zituzten paretan habeak sartzeko eta haien kanpoko egiturei eusteko. Izan ere, murrutatik ateratzen ziren harrizko modiloien gainean egon ohi baitziren egurrezko hegal eta egiturak. Berriatuako aurrealdeak eutsi egin die horma zulo horiei. Altxaeretan, leiho biki ugari dago. Leiho horiek oinarri karratuko zutabe bana eta puntu erdiko bina zulo dituzte. Marko mistilineoa duten baoak daude, bestalde, mandioaren aldean. Goiko errematean, hegoaldeko dorreak gorde egin ditu teilatu

hegalaren harrizko oinarriari eusten zioten matakana. Oinarri hura bolez apainduta zegoen, XV. mende bukaeran ohikoa zen bezala. Antzeko inposta bat kontserbatu du eraikinak laugarren eta bosgarren solairuen artean. Barrualdean, leiho bikietako batzuek mantendu egin dute begiratokiko zuloa, alboetan banku luzeak dituztela. *Cortejadora* horiek gotiko berantiarreko eraikuntzako tradizioari heltzen diote, eta ikusgai daude Luardo dorretxeko solairu nagusian ere.



Berriatua dorreko profil zorrotzeko leiho bikiak.



Berriatua dorrearen barnealdea, birgaitu baino lehen.

2.6.2. DABILGUA ETXEA

Ikus dezagun orain arkitekturaren aldetik Berriatua dorretxeak baino ikusgarritasun txikiagoa duen eraikin bat. Etxe horri dagokionez, Kondekaleko 15. zenbakira ematen duen aurrealdearen behealdeari baino ez diogu erreparatuko. Joan den mendearen bigarren erdialdean erabat berritu zuten eraikina, baina gorde egin ditu Erdi Aroko dorretxearen jatorrizko altxaerako lehen bi solairuak. Hiribilduaren antzinako lur zatiketako orube bakar batean eraiki zuten, mehelin artean. Inguruko etxeekin bat egiten duelako, dorretxea baino gehiago, goretsitako etxebizitza dirudi. Behealdeko solairuan portale erdizirkular bat zegoen, dobela handiak zituena; berritu egin zuten, ordea, eta gaur egun arkitrabea du bertan. Portaleak, eskuinean, puntadun leiho txiki bat du, eta ezkerrean ostiko bat; solairu nagusirako sarbidea ematen zuen mandioarena, ziur asko.

Solairu hartako punta erdiko atea eta bi pare bao biki gorde ditu etxeak. Bao horien ezaugarriak bat datoz, bete-betean, XIV. eta XV. mendeetakoekin. Piezak, esaterako: hiru harlandu uztaietan eta harri bakar bat erdiko zutabeen. Antzeko leihoak daude Euskal Herriko Behe Erdi Aroko oinetxe ugarritan⁷⁹. Eraikina XV. mendekoa da ziurrenera.



Dabilgua etxe
fatxada.

2.6.3. LUARDO DORRETXEA

Baliteke Erdi Aroko dorretxe hau eta antzinako testuetan «Barrenkaleko dorre» izenaz ageri dena bera izatea. Dorretxe honek Erdi Aroko itxura nabaria du. Nabarmentzeko moduko hainbat osagai ditu: leiho bikiak, puntu erdiko bi ate eta arku zorrotza duen beste bat, eta ezkerreko alboko aurrealdeko mandio eskailera, solairu nagusira (lehen solairua) eramaten zuena. Paramentuak Berriatuan bezala egin zituzten: harlangaitz irregular txikiz, eta angeluetan eta ate zein leihoen markoetan harlandu prismaticoz. Portuko dorretxe itzela bezala, Luardo ere bi lursailetan eraiki zuten. Ia karratua du planta. Eta, portuko dorretxea bezala, exentua da hau ere. Teilatu hegala oso aterata du, eta habe diagonalek eusten diote hari –habe horiek portuko lonja zaharrearantz ikusiko ditugu gero–.



Luardo dorretxea
40ko hamarkadan.



Luardo dorretxea, gaur egun.

Etxea udal bulegoak hartzeko egokitzearen egindako berrikuntzaren ondoren, bateratu egin da lehen solairuko gela nagusiko espazioa. Aipagarriak dira bao bikiak; barrualdean, baoek harrizko banku bana dute alboetan, murrak ikaragarri lodiak dira-eta. Eta Berriatua dorretxean deskribatu ditugun *cortejadorak* ditugu ikusgai hemen ere. Esan bezala, leiho mota horiek oso ohikoak dira gotiko berantiarreko oinetxeetan. Ateek punta pixka bat eta dobela handiak dituzte-nez, litekeena da XV. mende amaieraren eta XVI. mende hasieraren artean eraikia izatea.



Luardo dorretxeko
ate nagusia.



Luardo dorretxeko solairu nagusiaren barrualdea.

2.6.4. PORTUKO DORRETXEA

Etxebizitza berezi hau XVI. mende hasieran eraiki zuten beharbada, Tranpakalek portuarekin bat egiten duen tokian. Erdi Aroaren eta Errenazimentuaren arteko dorretxe honek harlangaitzezko aurrealde nagusia du nabarmendu beharrekoa: puntu erdiko leiho bikiak ditu, baita puntu erdiko ate-leiho bat ere, lehen solairuan. Goiko solairuek egurrezko balkoi zabalak dituzte, gerora berritu egin zituztenak.



Portuko dorretxea. Antzinako lonjaren ondoko ikuspegi orokorra.




Portuko dorretxekeo zatirik zaharrena.

Dorretxeen ohiko bereizgarriak ditu eraikinak. Beheko solairuan merkataritzarako edo artisaularako gelak egongo ziren. Portaleetako batek dobela handiak dituen puntu erdiko arku baten arrastoak ditu, eta goikoaren berdina zela pentsarazten digu. Agian, etxearen alde honetako beste portaleak, arkitrabea duenak, puntu erdiko arkua izango zuen hasieran, nahiz eta orain aztarna bakar bat ere ez duen. Alboko mandio-eskailerak eramaten zuen solairu nagusira. Alboko belenean, altuera erdian, puntu erdiko beste ate bat dago, aurrekoak bezalakoa.

2.6.5. ARITZETA DORRETXEA

Aurrerago ikusiko dugunez, Aritzeta dorretxea hiribilduko elite sozial gorenekin lotuta egon zen XV. eta XVI. mendeetan. Aipamenik zaharrenek (XV. mende erdialdekoak) diotenaren arabera, Juan Martínez Etxarte zen eraikinaren jabea. Henrike IV.ak biziarteko Mutrikuko probestu izendatu zuen, baina hark semearen esku utzi zuen kargua (Martín Ibáñez de La Plaza edo Etxarte); hots, Hondarribiko alkate zenaren esku (1495)⁸⁰. Eraikinaren historiaren hasierako garaia dago-kionez, harrizko dokumentu bat du Aritzetak. Harlandu angeluzuzen sendo bat da, erdibituta dagoena. Goiko aldeak Gaztela eta Leongo armarrria du, muturrak zabalagoak dituen gurutze baten ondoan. Mutrikun kontserbatutako heraldikaren artean zaharrena da. Behekoak –geroagokoa omen da, komentua sortu zen garaikoa⁸¹– idazkun bat du, dorrearen eraikuntza Mutrikuko probestuekin eta 1470. urtearekin lotzen duena. Honako hau irakur daiteke letra gotikoetan: «ESTA TORR IBIQUN (¿?) IOAN / M[ARTINE]Z PREBOST I D[O]NA M[ARI]A MIS NIMUN (¿?) EL AÑO M CCCC LXX». Horixe da, gure iritziz, eraikinaren zatirik zaharrena datatzeko erreferentzia urtea. Gure egunotara heldu zaizkigun Erdi Aroko gainerako eraikinekin dituen antzekotasunengatik, lagungarria izan dakiguke haien kronologia ere zehazteko.



Aritzeta dorretxea. Eraikineko jabeen armarriarekin landutako arkitrabea.

XVI. mendean, Juan Otsoa Berriatua eta Catalina de Plaza senar-emazteak bizi ziren dorrean⁸². Santa Katalina komentua sortu zuten han bertan. Komentua Berriatua dorretxera eramane zuten gero, eta ondoren gaur egungo tokira. Geroago aztertuko ditugu sakontasun handiagoz komentua eta bere ondarea.

Dorrea herrigunetik urrun samar dago, bestaldeko mendi mazelan, badia aldera goitik begira. Benetako oinetxea zen, eta eginkizun sinbolikoa ez ezik, babes betebeharra ere bazuen. Lehen aipatutako parametroez eraiki zuten: harlandu irregular samarra paramentuetan, ondo landutako harriak zuloetan eta izkinetan, erdi puntuko leiho bikiak eta abar. Bao bikiak punta pixka bat dute, eta harri handi bakar batean dute landuta uztaia. Diseinu hori bat dator Berriatuako baonarekin.



Aritzeta dorretxearen ikuspegi orokorra.



Aritzeta dorretxe
leiho bikia.

2.6.6. ERDI AROKO DORRETXEAK ETA AZTARNAK ASTIGARRIBIAN

Astigarribia auzoan badira hainbat eraikin Erdiko Aroko arkitekturaren arrastoak dituztenak. Bertako leinuek sona handia zuten, itsasoarekin lotutakoa, eta diru-sarrera eta etekin handiak zituzten ospe horri esker.

Martín Pérez de Astigarribia obtuvo por albalá de 10 de abril de 1476, en sucesión de su difunto padre Domingo Pérez de Ansuriza, catorce mil maravedíes de las alcabalas de Mondragón y cuatro mil de las de Motrico de renta anual para seis lanzas mareantes, que gozaba por concesión del rey Juan⁸³.

Etxeak ibai ondoan zeudenez, bestalde, leinuek onura ekonomiko handiak izaten zituzten. Gogoan izan dezagun Kantauri itsasoaren kostaldeko dorretxeek eginkizun sinbolikoa eta babeslea ez ezik, estrategikoa ere bazutela, eta horregatik eraikitzen zituztela bidegurutze nagusietan. Hori horrela, Astigarribian bidesaria jasotzeko eskubideaz baliatzen ziren burdinaren garraioaren kasuan. Eskubide hori Erregeak berak eman zien⁸⁴. Horrez gain, Deba ibaiaren ibiaren bidesaria ere jasotzen zuten.

XVI. mende erdialdeko dokumentazioan, beheko («la torre de baxo») eta goiko dorretxeak ageri dira⁸⁵. Jauregi baserria trantsizio lana da, XV. eta XVI. mendeen artekoa, XVIII. mendean berritutakoa eta XX.ean birgaitutakoa. Torre eta Etchezabalekin batera, Jauregi baserriak Erdi Aroko osagaiei eutsi die; puntadun arkuei eta leiho bikiak, esaterako. Eraikin baxua da, planta ia karratua duena. Arkuperik gabeko baserri gotikoa da, dolare egiturakoa, eta XIX. mende erdialdera arte ez zuen aldaketa handirik izan.



Astigarribia. Betetxeako baserriak.



Astigarribia.
Betetxea zaharreko
baserri bateko ate
nagusia.

2.7. Herriko dokumentuek osatutako ondarea

Erdi Aroko ondareari dagokionez, ohiko balio historikoaz harago doazen dokumentuak ditu Mutrikuko Udalak. Lehen, herriko armarriaz ari ginela, agiri horietako bi aipatu ditugu. Denborak, suteek, lekualdaketek eta utzikeriak kalte nabarmena eragin dute dokumentazioan. Erdi Aroan aurrera egin ahala, gero eta dokumentu gehiago dago: XIII. mendeko lau agiri daude, XIV.eko hemeretzi eta XV.eko hogeita bi. Errege-erreginek eskubideak berresteko emandako agiriak dira gehienak. Armarrak, letra kapitalak, krismoiak eta berun zigiluak dituztelako, arte objektu eder-rrak dira haietako zenbait. Aurreko orrialdeetan aipatu ditugu guztiak. Orain, haien osagairik artistikoenei erreparatuko diegu. Guztietan erakargarriena, artxiboko dokumenturik zaharrena da beharbada; hots, Fernando III.ak bere aitona Alfontso VIII.ak Mutriku udalerrinari emandako eskubideak berretsi zituenekoa⁸⁶. Agiriak krismoi hirukoiztar bat du, okre, granate, gorri eta laranja koloreetan. Kolore horiek berak erabilita, eta urrea gaineratuta, Gaztela eta Leon erresumako armarrria marraztu eta nabarmendu zuten agiriaren erdian. Laurdendutako tondoan, lehenengoan eta laugarrenean, hiru dorre dituen gaztelu bat ageri da, gorri koloreko hondo batean; bigarreanean eta hirugarrenean, berriz, lehoi bana ageri dira.



Petri I.ak Mutrikuren pribilegioak berresteko 1352an onartutako agiria. Armarrria duen errematxea.

Erdi Aroko agiriek jaulkitzailearen armarria erakusten zuen berunezko zigilua izaten zuten. Horregatik dute berunez zigilatutako gutun itxura. Mutrikuko udal artxiboko zenbait dokumentu mantendu egin dituzte zigiluak. Zaharrena 1256koa da; Alfontso X.aren berrespen bat da⁸⁷. Aurkian zaldi gainean doan gerlari bat dago, eta ifrentzuan errege bat, tronuan. Beste zigilu batzuk XIV. mendekoak dira: Alfontso XI.a, Henrike II.a, Joan I.a eta Henrike III.a. Gainerakoak XV.ekoak dira: Joan II.a eta Henrike IV.a. Gehienak oso higatuta daude gaur egun.



Errege-erregina Katolikoen berunezko zigilua. Atzealdea.



Errege-erregina Katolikoen berunezko zigilua. Aurrealdea.

Apaingarririk ederrenak dituen Mutrikuko dokumentua Errenazimentu garaikoa da⁸⁸. Herriko armarriaz aritu garenean aipatu dugu. Ertz osoa elkarren artean lotutako loreen zerrenda batez apainduta dago. Zerrenda horretatik sortzen da letra kapitala, dokumentuaren hasieran dagoena. «Doña» hitzaren «D» handia eta «DOÑA JUANA POR LA G.» hitzetako gainerako letrak urre xafla baten gainean daude idatzita. Loreak era naturalistan eta apaingarri moduan landu zituzten, eta ikusgarria da haien kolore urdina, gorria eta berdea. Agiriaren behealdean, Mutrikuko eta Gaztelako armarriak ageri dira.

Beste dokumentu eder batek ere Errenazimentu garaiko estiloa du, nahiz eta bere kronologiak gaingaitu egiten duen atal hau. Mutrikuren eskubideak eta askatasunak berresten dituen beste gutun bat da, Filipe II.ak 1562an sinatutakoa⁸⁹. Atzeko azalak, goialdean, habsburgotarren armarri inperial handia darama, «PLUS ULTRA» zutabeen artean. Behealdean Gipuzkoakoa dago, bi basatik eusten diotela, baita Mutrikukoa ere. Hiru armarriek Aro Modernoko ildoak jarraitu zituzten –gero ikusiko ditugu ezaugarri horiek harrian zizelkatuta–.



Joana erreginak 1507an sinatutako agiria.



Joana erreginak 1507an sinatutako
agiriko letra nagusiaren xehetasuna.



Filipe II.ak 1562an sinatutako pribilegioaren xehetasuna.



Filipe II.ak 1562an sinatutako pribi-
legioko armarriak.

Parrokiaren artxiboak ere berunez zigilatutako agiri bat du. Aita santuaren bulda bat da, Julio II.aren (1503-1513) zigilua duena. Dokumentuaren ezkerreko ertza gotiko berantiarraren arrokaiez apainduta dago; arrokaiek era naturalistan eginda daude, eta landareak dituzte inspirazio iturri. Berun zigiluan bi aurpegi ageri dira, eta hiru arrosatatik sortutako gurutze bat erdian, gainean «SS PA PE» duena idatzita. Ifrentzuan, «IULIUS PAPA II» hitzak ageri dira. Bi aurpegiak jartzea oso ohikoa zen Errenazimentuko aita santuen zigiluetan; agiri honetakoak San Paulo (S PA) eta San Petri (S PE) dira.

2.8. Herritarrak, biztanleak eta itsasontzietako jendea

Mutrikuko ondare artistiko eta historikoari testuingurua jarri behar zaio, ordea. Horretarako, ezinbestekoa da Erdi Aroan Mutriku bizi ziren eta herria sortzen lagundu zuten belaunaldiei begirada ematea, labur-labur besterik ez bada. Agirietan jasota dagoenaren arabera, jakin badakigu Astigarriak XI. mendean arrantza zuela jarduera nagusi, eta Mutrikuk hain zuzen ere arrantzaren zizelaz eta itsasoaren mailuaz landu zuen bere historia.

Lehen ikusi dugunez, badia sakon eta bare baten bukaeran sortu zen Mutriku. Begi-bistakoa da, beraz, Gaztelako monarkiak portu estrategikoak sortu nahi zituela Kantauri itsasoko kostaldea egituratzeko. Horregatik, itsasontziak eta marinelak izan dira herriaren Erdi Aroko garapenaren ezaugarri nagusia. Grazioso Benncasa de Ancon-ek 1467an egindako mapan, Euskal Herriko lehen mailako portuen artean agertzen da Mutrikukoa, Baionako, Donostiako, Bermeoko eta Bilboko portuekin batera. Bigarren mailakoak, berriz, Hondarribi, Pasaia, Getaria, Deba, Lekeitio eta Portugaletekoak ziren⁹⁰.

Inguruko lehiakideekin borrokan ibilita, ez zegoen hiribildua eta portua ekonomiaren alde-tik garatzeko modurik. Aitzitik, elkartuta jardun beharra zeukaten Errege-erreginek emandako eskubide eta pribilegioen alde. Gipuzkoako hiru portu nagusiek harreman ona zuten, eta antzeko eskubideak eta baliabideak zituzten gainera. Harreman hura indartu egin zen 1339an, Donostia, Getaria eta Mutrikuko kontzejuek ermandatea sortu zutenean.

Sepan quantos esta carta vieren cómo nos el Concejo de la Villa de San Sebastián por nos e por todos nuestros vecinos e moradores e gentes mareantes de naves e bajeles e de otros navíos de la dicha villa; e nos el Concejo de Getaria por nos e por todos nuestros vecinos e moradores e gentes mareantes de naves e bajeles e de otros navíos de la dicha villa; e nos el Concejo de Motrico por nos e por todos nuestros vecinos e moradores e gentes mareantes de naves e bajeles e de otros navíos de la dicha villa, así por los que agora son como por los que serán de aquí adelante de las dichas villas e de cada una dellas, todo esto poniéndolo en la facultad y merced de nuestro señor el Rey: otorgamos e conoscemos que, porque esto es y será servicio de Dios e de nuestro señor el Rey e honra de su señorío e mejoramiento e provecho e guarda e defensión de los dichos Concejos e de nuestras haciendas e refrenamiento e duda de aquellos agravios o mal e daño sin razón nos quisieren facer, por se lo escusar y estorbar por razón de muchos males e daños que habemos recibido e tememos recibir de gentes de otras naciones, especialmente teniendo cartas e mandamiento de nuestro señor el Rey que facen en este fecho especial y en general a guarda de lo que se aquí contiene. (...) Que nos los dichos Concejos e nuestros vecinos e gentes mareantes, en mar e tierra por doquier que acaeciéremos los unos a los otros en guarda e en defensión de nos e de nuestros bienes e tomando sobre nos e sosteniendo derecho e razón contra cualquiera gente de otra nación que tuerto e fuerza e mal e daño a cualquiera de nos como non deben quisiesen facer e ficiesen a pasar así en las personas como en los bienes, que nos ayudemos en pasar e guardar e defendemos a todo nuestro leal poder cada que fuésemos afrontados, requeridos o llamados o viésemos o entendiésemos que nos face mejor la ayuda e sostenimiento los unos de los otros con las naves e bajeles e navíos e

con los cuerpos e los haberes todavía en los teniendo razón e derecho por se defender como dicho es e guardar los dichos buenos deudos en estado debido por que mal ni daño no recibamos de gentes de otras naciones que nos quisiesen facer mal, daño o agravio como non deben. (...). E porque esto es verdad e sea firme e non venga en dubda, mandamos facer tres cartas por un tenor por cada uno de nos los dichos concejos la suya seelladas con los seellos mayores de los dichos concejos, los cuales rogamos e mandamos signar a Ferrant Martínez, notario e escribano público de la dicha villa de San Sebastián, e a Ochoa Ibáñez, escribano público de Getaria, e a Joan Miguel, escribano público de Motrico, con sus signos en testimonio de verdad. Fecha a seis días de febrero era de 1377 años. E yo Ferrant Martínez sobredicho fuí presente a todo esto que dicho es que fué otorgado por ante los dichos escribanos por el concejo de la dicha villa de Getaria e por Vidal Ochoa de Getaria e Juan de Gualán procurador del Concejo de San Sebastián e Pero David y Joan Miguel escribano e procurador del concejo de Motrico, en nombre de los dichos concejos⁹¹.

Zorionez, XIV. mende hartan, itsasoko jendeak bazekien batasunak ematen ziela indarra. Dena ez zen hain zorionekoa, ordea. Inguruko herriekiko harremanak zailak izan dira beti, leku guztietan. Mutrikun ez zegoen oso urrun joan beharrik arazoak eta gaitzotutako harremanak topatzeko. Garai guztietan, Mutrikuren eta Debaren arteko lehiak energia ugari xahuarazi eta ezadostasun asko sortu ditu. Dokumentuetan jasota dagoenaren arabera, hain zuzen ere XVI. mendeko lehen urteetan gertatu zen oihartzun handien izandako gatazketako bat.

Ziur asko, ibaiaren bestaldean Deba sortu eta berehala hasi ziren bi herrien arteko liskarrak, biek kontrolatu nahiko zutelako salgaien ibai bidezko garraioa eta zamaketa. Behe Erdi Aroan, eskubide juridikzionala eskuratzeko ibili ziren bi herriak lehian, nor bere erara ulertzen zuen-eta. Fisikoki, ibaiaren bideak zehazten zuen bi herrien arteko muga, bokaletik itsasoko urak hartzen dituen lurretaraino, bertako ustiapen guztiez, eta ibaian gora Mendaroraino eta Ibarrolaraino. Erdi Aroko sorrera gutunetatik jasotako eskubide juridikzionalak bi udalerrienak ziren, beraz. Hala ere, errealitate fisikoak eta hirigintzak aldarazi egin zituen pentsamoldeak –*de facto*, baina ez *de iure*–. Hain zuzen, XVI. mendeko zoko hamarkadan, Deban uste zuten «Desde que alcanzaba la memoria (...) que la dicha canal e ria de Deva es propia de la dicha villa de Deva»⁹². Hots, Mutrikuk portua zuen, eta Debak ibaia. Azken herri horrek gehiago garatu zituen hirigintza eta merkataritza. Mutrikuko herrigunea, bestalde, urrun samar zegoen⁹³. Horretatik, orduko joerak eta inertzia gailendu egin zitzaizkien legezko printzipioei.

Legeei buruzko auziak oso baliagarriak izaten dira Erdi Aroko gizartearen eguneroko bizimoduaren berri izateko. Ikus ditzagun, bada, xehetasun horietako batzuk. Auziaren nondik norakoak azalduko ditugu lehenik eta behin. Mutrikuarrek ibaiarekiko juridikzioa onar zekien nahi zuten. Ez zuten bidesaririk edo alkabalarik ordaindu nahi zubi lanak egiten zituen gabarra erabiltzeagatik edo salgaiak ibaiaren beren aldean jaisteagatik. Hamarkadak igaro ziren mutrikuarrek lehen eskaerak egin zituztenetik. Azkenean, Valladolideko Erregearen Kantzelaritzak arrazoia eman zion Mutrikuri 1572an; itsasadarra eta ibaia, haien ustiaketa eta, beraz, juridikzioa bi herriei zegozkiela ebazti zuen. Era berean, mutrikuarrek ez zuten ezer ordaindu beharko itsasadarra zeharkatzeagatik, nahiz eta, logikoa zenez, azpiegituraren gastu orokorreari aurre egiten lagundu beharko zuten. Horrez gain, beste ontzi batzuei alkabalarik kobratzerik izango ez zuten arren, ezer ordaindu gabe jaitsi ahal izango zituzten salgaiak beren itsasontzietatik⁹⁴.

Ebazpen hari esker bukatu zen ia mende bateko liskarra. Hura gizalegea! Hura bitartekariak eta konponbideak bilatzeko gaitasuna! Gure arbasoak benetan al ziren mugei eta juridikzioei buruzko arazoak hain garbi konpontzeko gauza? Kantzilertzaaren auzia txanponaren aldeetako bat baino ez da. Begira dezagun bestea.

Mutrikuko udal artxiboan, 1518ko martxoaren 8ko hasiera data daraman dokumentu mardul eta interesgarri bat dago, zera dioena:

Pleito criminal ante Pedro de Nava, oidor del Consejo de Castilla y Corregidor de la provincia de Gipuzkoa, entre Sancho Dabil de Agirre, alcalde de Mutriku, demandante, y Juan Martínez de Gainza, alcalde de Deba, (... y otros 23 vecinos más), demandados; sobre la rotura de la vara de alcalde y las heridas causadas al demandante por los demandados al haber el alcalde de Mutriku cruzado la ría de Deba trasportando un cadáver que iba a ser enterrado en la iglesia parroquial de Deba, generando con ello una disputa sobre la posesión de la jurisdicción en la ría de Deba. Los demandados son sentenciados a pena de destierro, pérdida de las armas y pago de las costas procesales. A Miguel de Amasa y a Lorenzo de Irarrazabal, por ausencia y rebeldía, son sentenciados a la pérdida de un pie. Finalmente, García Martínez de Arteaga, Juan López de Armendia, Martín Ochoa de Garate, Quatre Tunson, mercader, el bachiller Antonio de Areizti y Juan Martínez de Izaeta, vecinos de Deba, fiadores de los demandados, son encarcelados y sus bienes secuestrados para responder a la incomparecencia de los acusados a la llamada del corregidor⁹⁵.

Ez ziren txorakerietan ibiltzen, beraz. Liskar hark luzaroan gaiztotu zuen bi herrien arteko harremana. Hala ere, horrelako zenbat ez ote ziren izango kantzilertzak erabakia hartu baino lehen! Borrokez eta eztabaidez betetako urteak ziren, beraz.

Liskarra eskuartean hartuta, ibil gaitezen kuxkuxean gure arbasoen eguneroko bizimoduan. Auzian herritar askok eman zuten testigantza. Lekukotza horietako edozein aski baliagarria zaigu liskarraren tamainaz ohartzeko. Joanot Igeldo hondarribiarrak mutrikuarren aldeko testigantza eman zuen:

Vio que estaban muchos ombres e mugeres de la dicha villa de Deva armados con lanzas e vallestas e tabal chinas e otras armas e oyo decir de algunas personas de la dicha villa de Deva de cuyos nombres non se acordaua que al dicho Sancho Dabil (alcalde de Mutriku) le quebro su bara de justicia que en su mano llebaua el dicho Miguel de Amasa e que tambien le dieron una cuchillada en el pescuezo de que le corrio mucha sangre diciendo por aver entrado en un batel en la dicha ria non teniendo juridizion de entras en ella.

Bestalde, Martin Arriola debarrak eta Debaren aldeko lekukoak honako hau ikusi zuen:

Sancho Davil salto del dicho batel en tierra a la orilla de la dicha ria e diciendo que el estaua en lo suyo se puso con su vara tocando a la orilla del agoa y en esto saltaron algunos de la dicha villa de Deva en tierra donde el dicho Sancho Davil estaua al qual le habrazo Mygula de Hmasa diciendole que dexase la vara y el dicho Sancho Davil defendiendose quebraron la dicha vara e asi bien dixo que vio como Lorenzo de Urquizu estando los dichos Sancho Davil e Miguel de Hmasa abazados en uno vino ende e dio de espaldarazos al dicho Sancho Davil con una espada desvainada. Y que al dicho Sancho Davil dende a poco le vio quexarse diciendo que el dicho Miguel de Amasa le avia descalabrado con una daga en su cabeza e en esto el dicho Sancho Davil e los que con el eran se retraxieron a la casa e torre que esta a la orilla de la dicha ria⁹⁶.

Horiek, Mutrikuk eta mutrikuarrek izandako harreman gazi-gozoak. Beste behin ere, harresien barrualdera begiratzeko unea iritsi da. XIV. mendeak aurrera egin ahala, herriko gizarte egitura konplexutzen joan zen. Erdi Aroko lehen hamarkadetan, berdintasun irizpideari jarraitu zioten lursailak banatzeko. Baina hortik aurrera barne banaketa gertatu zen gizartean, eta herriko administrazioaren postuak metatzeko joera zuen elite bat sortu zen. Orduko dokumentazioa ondorengo mendeetako bezain aberatsa ez den arren, badugu itsas merkataritzatik eta arrantza industrietatik etekina ateratzen saiatzen ziren marinel haien izen-abizenen berri. Berriatuarrak eta astigarribiarrak aipatu ditugu lehen; zabieltarren, mecetatarren eta arrietatarren txanda etorriko da gero.

Merkatariak, ontzigileak, marinelen prestatzaileak, pilotuak, kapitainak, nagusiak, armadoreak... Itsasoarekin lotutako ogibide guztiak zeuden nola edo hala presente Behe Erdi Aroan mutrikuarren artean. Ohiko arrantza jardueran ziharduten –herriaren tradizio historikoaren parte da arrantz egutegia–, baina gero eta itsaso urrunagoetara joaten hasi ziren. Horregatik, txalupak eta zama-ontzi txikiak, baxurako arrantzan erabilitakoak, karabela bihurtu ziren, eta eskifaia, lauzpabost marinel izan beharrean, hogeita hamarretik gorakoak izaten hasi ziren. Itsas zabaleko arrantza Ternuara edo Irlandara iritsi zen beraz, eta jarduera guztiz erakargarria bihurtu. Horren inguruko dokumentazio askorik ez dago, baina lekukotza interesgarriak bai ordea. Itsas zabalera joan behar izaten zutenean, bakailaotara edo legatzatara, karabelatan sartzen zituzten txalupa txikiak, arrain gehiago eraman zitzaketen kubiartadun ontzi handiagoetan. 1530ean, esaterako, Juan de Meçeheta eta Juan de la Plaça Mutrikuko zama-ontzi txiki maisuen eskariz, Trinidad ize-neko karabela itsasoratu zuten Irlandara joateko. Sei edota bederatzi zama-ontzi txiki omen zituen karabelak, eskifaia eta guzti; horrek esan nahi du guztira 30 edo 40 lagun inguru zihoazela bertan. Horrez gain, «Todas las bituallas neçesarias de pan e vyno e sydra e armazon e aparejos para hazer dicha pesca»⁹⁷ ere sartuko zituzten karabelan.

Pirateriaren bidez ere etekin handiak lortu zituzten Mutrikuko marinelek. Blasco de Motrico merkatoriaren anaia zen Andrés Astigarribia. XV. mendean, armatutako eta «allende» kortsario ibiltzeko itsasontzi baten erdia zuen Andrés Astigarribiak. Málaga zuen portua ontziak. Ontzi azkar haiek eraso egiten zieten musulmanen ontziei, «harrapakin» moduan hartzeko. Fikzioan gertatzen den bezala, Andrés Astigarribia ez zen Lorenzo Portugués kapitainarekin fio. Horregatik, Sancho de Unda herrikidea jarri zion nagusi kapitainari, honako asmoarekin:

Cobrar la parte de los dineros que diere de provecho la mitad de la dicha fusta y a él pertenecieren, y acabada la partida que pueda apremiar al dicho Lorenço a que traiga a esta çibdad de Málaga la dicha fusta con la presa⁹⁸.

Ez dakigu istorio hura nola bukatu zen.

Beste kasu batek ondorio diplomatikoak izan zituen. Zigortu egin zuten Juan Ibáñez de Meceta mutrikuarra, bere baleontziaz Portugalgo karabela bati eraso egin eta haren ondasunak (milioi erdi marabedi, salgaietan eta dirutan) harrapatu izanagatik. Altxorraren zatirik handiena Portugalgo Erregearena zen, ordea. Itsusia kontua. Juan Ibáñezek eta bere semeak bahitutakoa itzuli eta ihes egin behar izan zuten orduan, eta hain zuzen ere Mutrikun bilatu zuten babesa⁹⁹.

Horrelako pasadizoak alde batera utzita, argi dago Erdi Aroko azken hamarkadetatik aurrera, 1450 eta 1550 artean, itsasoarekiko loturari esker arrakasta ekonomikoa izandako familiek osatu zutela Mutrikuko elitea:

Europar merkataritzan ziharduten familiak, Ternuan ere interesak zituztenak; ontzi maisuak, armadoreak, merkatoriak eta enpresaburuak, ontziak egitearekin eta itsasoratzearekin lotutakoak, gehienak¹⁰⁰.

Gizartean izandako arrakastak isla izan zuen haien etxeetan: toki onenetan eraiki zituzten, materialik onenekin, ikusgarriak. Arkitekturaz baliatu ziren, beraz, herritarren aurrean ikusarazteko. Talde hura osatu zutenen artean, ondorengo abizenak ditugu: Zabil, Meceta, Ormaetxea, La Herrería, Asensio, Dabil d'Aguirre, Ubilla, Berriatua... Herriko probestu edota erregearen eskribau kargua zutenen familiak gaineratu behar zaizkie horiei guztiei.

Koska bat beherago, herriko klase ertaina zegoen. Merkataritxi txikiek, artisauek eta beste langile batzuek osatzen zuten klase ertaina: pilotuek, tratulariek, harginak, harakinek, espezialistek, margolariak... Mutrikun puri-purian zegoen merkataritza eta ekonomia jarduera, eta hedatzen

ari zen gainera. Notarioaren protokoloetan orduko klase ertainari buruzko hainbat datu daude jasota: familiak nola gailendu ziren, nola desagertu ziren, nola lortu zuten arrakasta, nola egin zuten porrot... Familia haietako batzuk oso indartsuak ziren, eta botere horren ondorioz elite tradizionalen inguruan ibili ziren. Hau da, «mugikortasun sozial handia zegoen, eta gizartean egiaztatu beharreko bitartekoak egiaztatzen zituenak eskura omen zuen elitearen taldean sartzea»¹⁰¹. Arrakasta horren adibide ditugu iturritzatarrak, larangatarrak, rekabarrentarrak, arrietatarrak, egia-illunbetarrak...

Bazen hirugarren talde bat ere, jatorria Mutriku inguruan zuen arren (Deba, Ondarroa, Astigarribia, Berriatua...), herrigunean bertan sustraitutako familiez osatutakoa. Haietako zenbait leinu entzutetsuetako kide ziren gainera¹⁰². Familia horietako batzuek aurrekoen bide bera egin zuten Aro Modernoan: herriko aginte postuak eskuratu zituzten, eta jauregi soilen zein armarri ederren bitartez leinuaren oroimena betiko gordetzeko ahalegina egin zuten. Hori guztia hurrengo atalean ikusiko dugu, ordea.

3. ARO MODERNOA



Aro Modernoak eman zizkion Mutrikuri gaur egun duen itxuraren ezaugarri nagusiak. Hain zuzen ere garai hartakoak dira (XVI, XVII eta XVIII. mendeak) herriko ondare artistiko eta monumentalaren osagai nagusietako batzuk: jauregiak, armarri barrokoak, baselizak, Santa Katalina komentua... Sasoi hartan iritsi ziren Mutrikura artelan esanguratsuenetako zenbait; parrokiako eta komentuko pinturak, adibidez. Aro Modernokoak dira, halaber, funtsezko hirigintza lanetako hainbat: Erdi Aroko hesia lurrera bota eta Atxukaleko bateria eraiki zuten, plazak eta gune irekiak sortu ziren, Erdi Aroko herrigune zaharreko lursailak berrantolatu zituzten, edertze lan ugari egin zituzten parrokiaren... Ideia berriak, bultzada sozial berriak, mehatxu berriak, baliabide berriak... Mende haietan, herriko eliteak eta elite erlijiosoak arteaz eta arkitekturaz baliatu ziren haien lorpen sozialak edo garrantzi espiritualak lau haizeetara zabaltzeko.

Mutrikuko Erdi Aroak era arranditsuan esan zuen agur: sute handi batekin. 1553ko sute hura giltzarria da, herriko historiaren bi garai bereizteko balio du-eta. Egia da artearen eta historiaren estereotipoetatik begiratuta, 1553an Errenazimentu garaian zegoela Mutriku, baina zoritxarreko gau hartatik aurrera hasi zen gaur egungo fisionomia hartzen. Orduan sartu zen Aro Modernoan. Aurreko atalean esan dugunez, zaila da Mutrikun Erdi Aroko ondasunen aztarnak topatzea. Eta horrexegatik da zaila: suak erre zituelako. Errauts horietatik jaio zen Mutriku berria, itsas baliabideak are gehiago ustiatzen zituen gizarte saiatu eta dinamikoaren eskutik.

Ez zen lan erraza, ordea. «Bizia arriskatu behar, bizi ahal izateko»¹⁰³. Ordurako, balea arrantza zen hiribilduko armarriko protagonista nagusia. Garaiko lekukotzen arabera, arrantzan oinarrituta eraiki zuten mutrikuarrek herrigune berria. Hori bera dio Garibaik XVI. mende bukaerari¹⁰⁴: «En esta villa, de pocos años a esta parte crece mucho el comercio de la pesca, que viene de Terra Noua, y otras cosas».

Aipa ditzagun, lehenik eta behin, argilunez, gizarte bereizkeriaz, urrez, tenebrismoz eta arte ikusgarritz betetako mendeotako pasarte nagusiak. Agiriek garai hartako gizartearen irudi paregabea eskaintzen digute: oso gizarte bizia omen zen, baina, era berean, larrialdi ekonomikoak, dogma erlijiosoek eta estereotipo moralek estututakoa. Geroago sakondu dugu horretan.

3.1. Suteak: hirigintza ereduaren aldaketaren eragile

XVI. menderako, erabat zehaztuta zeukan Mutrikuk bere hirigintza ereduak: herrigune historikoko kaleak marraztuta; lursailak banatuta eta eraikinez beteta; perimetro osoa, defentsarako hesi batekin inguratuta; portaleak joan-etorrietarako bide nagusiekin lotuta; Berriatua dorretxe handia, porturako bidean; kaiaren beraren lehen garapena... Oso trinko eta nahasia izango zen harresiaren barrualdea. Erdi Aroko eraikuntza ereduak eta harresia bera oztupo ziren hiribilduaren garapenerako; herriak, beraz, gorantz hazi behar izan zuen nahitaez, ez baitzegoen barrualdean espazioak sortzeko edo barne banaketa atomizatua aldatzeko modurik. Horrez gain, etxeek buruz behera jarritako enbor-piramide baten traza zuten, goiko solairuek, metroak irabazi nahian, egurrezko balkoiak, mailakatutako habe zabalkundeak eta teilatu-hegalak zituztelako; ondorioz, batzuetan ozta-ozta iristen zen egun-argia kaleetara eta beheko etxebizitzetara.

Jakina denez, Erdi Aroan egurrez egiten zituzten etxebizitzak. Lehengai merkea zen, ia herritar guztiek eskuratzeko modukoa. Elizak eta etxe nagusietako batzuk baino ez ziren harrizkoak –etxeen kasuan, Behe Erdi Aroak aurrera egin ahala, batez ere–. Hau da, XV. mendearen erdialdean, egurrezkoak ziren herriko eraikin gehien-gehienak. Pentsa, beraz, nolakoa izango zen egoera: egur zahar eta lehorrak, ondoan beheko suak, tximiniak, olioak eta kandelak zituztela...

Sutearen ondorioak are larriagoak izan zitezkeen Mutrikun, arrantzaleen herria izatean «balea-gantz eta sua erraz hartzen zuten tresna»¹⁰⁵ asko izaten zelako. Sute arriskua, beraz, eguneroko bizimoduaren parte zen, eta mehatxua gauzatzen zenean erabatekoa izaten zen txikizioa.

Dokumentuek diotenez, XIV. eta XVI. mendeen artean, Gipuzkoako ia hiribildu guztiak behin gutxienez kiskali zituen suak¹⁰⁶. Donostiak, esaterako, gutxienez zazpi aldiz hartu zuen sua 1489 baino lehen; urte horretan, beste sute bat izan zen, etxe guztiak suntsitu zituena, harrizko hiru jauregi izan ezik¹⁰⁷. Ordudanik, eraikuntzan harria erabiltzea sustatzen zuten ordenantzak onartzen hasi ziren Donostian. Errege-erregina Katolikoek beraiek ere ohitura hori bultzatu zuten, eraikuntzan harria erabiltzen zutenei onura fiskalak emanda.

Guk euri badugu, izango duzue ihintz... Hiru mendeko joerak aldatzea eta berritzea ez da horren erraza, ordea. Hirigintzaz ari garela, bestalde, historiak erakutsi digu hondamendien ostean berritu izan direla egitura zaharrak; hots, zoritxarreko suntsiketen eskutik etorri dela berre-erakuntza. Eta Euskal Herriko kostaldeko beste herri batzuek bezala, Mutrikuk ere errautsen gainean modernizatu zuen bere burua.

Denboran zenbat eta atzerago egin, orduan eta xeheetasun gutxiago dugu suteek Mutrikuko herrigunean izandako eraginaz. Dokumentatutako zerrenda beltzean ageri den lehendabiziko urtea 1319a da. Sute hari buruz, agiri batzuk suntsitu zituela baino ez dakigu. Agiri haien artean, «Elizaren Kabildoaren Patronatuaren sorrera eskubide jakin batzuk» zeuden. Eskubide haiek berriro eskatu zituzten, eta Antso IV.ak berriro eman zituen¹⁰⁸. Dokumentu haiek erre baziren, pentsatzekoa da biltegia ere –elizako antzinako sakristia gotiko bat, agian– erreko zela. Oso litekeena da elizaren orduko teilatua egurrezkoa izatea eta, beraz, hura ere errauts bihurtu izana. Hipotesi hutsak baino ez dira, hala ere.

Dokumentatuta dagoen ondorengo sutea 1484ko abenduaren 7an gertatutakoa da. Datu gutxi batzuk baino ez ditugu, baina, haien arabera, sutea handia izan zen eta ustez seguruak ziren osagaiak eta tokiak ere birrindu zituen. Zeharkako dokumentuen arabera, sute hartan agintarien artxiboa erre zen, eta harekin batera, udalerriko historiari buruzko agiririk esanguratsuenetako batzuk¹⁰⁹. Dokumentuak, antza, Mutrikuko parrokiaren zeuden jasota, sakristian edo beste gelaren batean. Hori herriaren erdigunean zegoela kontuan hartuta, beste eraikin asko ere erreko ziren ziur asko. Zeharkako aipamenek sutea orokorra izan zela diote: «Al tiempo que se quemó la dicha villa de Motrico se quemaron los dichos priuillesios originales»¹¹⁰. Lehen esan dugun bezala, Mutrikuko etxeetako batzuek harrizko behe solairua dute, eta bertan puntadun atea. Baliteke herritarrak etxeetan harria sute haren ondoren erabiltzen hasi izana. Eta oso litekeena da Mutrikuko agintariak eraikuntzari buruz hartutako lehendabiziko neurriak –suak aurrerantzean ahalik eta kalterik txikiena eragin zezan– ordukoak izatea. Ildo horretatik, beraz, Erdi Aroko behe solairuak dituzten Sabanika edo Iparkaleko etxeak dokumentuak liriateke; eraikitze eredu berri horren dokumentu arkitektonikoak, alegia.

Okerrena iristear zegoen, hala ere. Handik 70 urtera, 1553ko irailaren 18an, beste sute izugarri batek errauts bihurtu zuen herriaren alde bat. Zorigaitzak bata bestearen segidan etortzen dira batzuetan, eta Mutrikuk uholde bat pairatu ondoren hartu zuen sua: «Cuatro días después

de que una venida muy grande del agua llebó muchas casas y personas»¹¹¹. Ez da erraza suteak zer eremu eta zer onibar kaltetu zituen jakitea¹¹². Kronikek diotenez, Debako portale ondoko etxe multzo bat, eliza eta harrizko jauregietako bi baino ez ziren garretatik salbu geratu. Hortik dator- kio, hain zuzen ere, Suilangoa izena Berriatua dorretxeari: sutea baino lehenagokoa delako. Iturri horien arabera, udal artxiboko garrantzi handiko agiriak erre ziren zoritxarreko gau hartan¹¹³. Are okerrago, baita hirurehun etxe ere. Horregatik, herriko etxe gehienak berreraiki egin behar izan zituzten¹¹⁴.

Jakin badakigu eskribauek zaindutako dokumentu pribatu ugari galdu zirela. Martin Ibañez Etxartek, 1554an eginkizuna Simon Iturritzaren esku utzi zuenean, bere artxibo gehienak sutean galdu zirela jakinarazi zion¹¹⁵.

Gure zorionerako, irailaren 18ko txikizioari buruzko zuzeneko informazioa ematen duen kronika guztiz baliotsua daukagu. Pedro Etxaniz mutrikuarrak sinatua da kronika, urte luzez parrokiari bikario izan zenak. Etxanizek, Mutrikuko XVI. mendearen bigarren hereneko historiaren pasarteei buruzko informazio pertsonala emateaz gain, gau hartan gertatutakoaren berri ere ematen du, labur-labur. Kronika parrokiaren lehen bataio-liburuari lotuta eta bilbatuta dago. Sutearen errudunaren izena ezabatuta dago¹¹⁶. Ziur asko, XVII. mende bukaeran edo XVIII. mendean, salaketaren orbana «garbitzea» erabaki zuen errudunaren leinuko ondorengoren batek. Ez zituen frogatu guztiak ezabatu, ordea. Izan ere, ondorengo dokumentuan kronikaren kopia bat dago: *Información de género del Dr. D. Andrés de Ibarburu y Galdona, natural de la villa de Motrico, pretendiente de la maestre-escolanía de la Catedral de Sevilla*¹¹⁷.

En dize ocho de setiembre del dicho año de mill y quinientos çinquenta y tres años, se quemó éste nuestro pueblo y se encendió el fuego por culpa deel **Br. Iturriça y Magna deolabarrieta su criada que le dejó con candela o lumbre delante de su cama estando el dcho Br.** en la cassa de Pascoal de Ybassetta, donde bibía, que es en nuestra vezindad, junto a la yglesia; y ençendiéndose el fuego entre diez y honza horas de la noche del dicho día, dormiéndose la mayor parte del pueblo mayormente, nosotros en nuestra casa, donde me desperté, y acordé a algunas palabras que oy dezir al dicho bachiller y las palabras son: "¡O, que nos quemamos!". En esto, llebantéme yo mesmo y, como sentí que olía a fuego, miré y ví que se quemaba la dicha casa donde el bachiller y passaba en la nuestra casa, y abrí la ventana trasera y dí voz y gritas altas: "¡A del fuego, que nos quemamos!". **El dicho Br. Se salio callandico y uyo y ausenttose del pueblo.** E yo memo entré en la sala nuestra y desperté a mis señores padres e criadas en casa que se dormían; y el fuego hera ya pasado en nuestra sala; y el padre mío, aunque algo pereçoso, le lebantamos de la cama, donde estaba y gotoso, y le alcançaba el fuego, y les dí a las moças que le llebasen y le sacasen de la casa, aunque arrastrando; lo qual hizieron porque no se quemase.

Y, como bimos que yba mal, rompimos una arca de mi señora con una acha y sacamos dende siete u ocho taças y otra platilla; y así nos sallimos, desamparada la casa.

Y, dende la calle, otra bez subí en casa yo mesmo solo y abrí por fuerça mi arca y saqué este libro y una taça y algunas cosillas que ende estaban, y quisiera echar mis libros a la calle por las ventanas; y eché este liro y taça y otras cosillas por las ventanas a la calle y no pude más, porque me tomo el fuego, y no pudiera tornar atrás para sallir por la escalera.

Y así, por temor del fuego no me quemase ende, pensé: más bale que se queme y se pierda la hazienda e yo mesmo no muera aquí; mala suerte, porque me ponga en bentura de saltar por las ventanas a la calle.

Y, así, me encomendé a Dios, santiguándome, y salí por las ventanas y pasé en su casa de José Yvárez de Hubilla, y así me salvé y salí, y así se quemaron mi librería y ropa y bestidos; así mesmo, todos los bestidos de mis señores padres y toda la lençería, así labrada de seda (y)

algodón, como todo lo demás que abía en las arcas, y todas las camas, exçecto algun parte que yo eché por las ventanas de una cama.

Así mesmo, se quemaron todo el estaño de pucheros y platos de la mesma nuestra casa y de la otra nuestra casa del puerto, que ende teníamos, con otras muchas cosas para servicio de casa; de manera que quedamos con grande daño deste ynçendio, y salvose nuestra emparanza.

Y el fuego duró hasta otro día a la mañana, a las cinco, en amaneziendo. Y así se quemó, en el dicho día començando, acabóse de quemar en los dize nueve días del dicho mes y años; dende se quemó mucha hazienda por poco mirar los hombres y se hizo mucho hurto.

Quemóse también la sacristía de la yglesia, digo a nuestra parte, y salvóse todo lo demás, exçeto que se dañaron las dos torres del campanario.

Salvose nuestra casa del puerto con su bezindad y toda la otra parte de Ybirriaga.

En fe y testimonio dello asenté todo esto, porque paresca por escrito; y firmé de minombre.

El br Echániz¹¹⁸.

Hondamendi galanta izango zen sute hura. Mutrikuar askok inguruko herrietara alde egin behar izan zuten. Urte hartako azaroan, Batzar Nagusiek bilera egin zuten Getarian, eta familiek zein etxeek ordaindu beharrekotik berrogei urtez salbuetsita egotea eskatu zuten Mutrikuko prokuradoreek. Zazpiehun etxetik gora erre zirela –armairu, tresna eta kimu guztiak barne– eta, beraz, hondamendia erabatekoa zela argudiatu zuten.

Ez dugu pentsatu behar, ordea, benetan zazpiehun etxebizitza erre zirenik. Irailaren 19ko errealtate gordinari askoz gehiago hurbildu zitzaion Batzar Nagusiek hartutako erabakia, herria osatzen zuten 84 etxebizitzak salbuetsi baitzituzten zergak ordaintzetik, kaltetuta suertatu ziren bi dorretxeak barne. Sutearen ondorioez besterik eransterik? Aurreko atalean esan bezala, Mutrikuko eraikin askok hondar gotikoaren osagaiak gorde dituzte (ateak eta leihoak, batik bat). Sabanika kalean, Zabel jauregiaren inguruan, eta Kondekale, Iparkale eta San Gilen bukaeran ibiliz gero, harrizko beheko solairuak eta Behe Erdi Aroko baoak dituzten eraikinak ikusiko ditugu. Sutea baino lehenagokoak dira horiek. Libratu egin ziren txikiziotik. Kondekalen gora, Arrietakua jauregia dagoen lekuan, suak eraikin eta leku batzuetan eragindako kalteari buruzko lekukotza bat dugu. Catalina de la Plaza y Arrietak berreraiki egin behar izan zuen familiaren etxea. Horretarako, «osabaren dirutik eta ondasunetatik libratu zena» erabili zuen. Dena dela, ez zen eraikin osoa erre, goiko solairua baizik. Izan ere, gela nagusiak ere ba omen zituen paretak¹¹⁹. Eraikin osoa lurrera erortzea eragotzi zuten pareta haiek harlanduzko paramentuak behar zuten izan, ez baitziren erre. Behe Erdi Aroko baoen ondoko paramentuak ere harlanduzkoak dira. Dirudienez, Behe Erdi Aroko suteen ondoren, etxebizitza asko harlanduz egin zituzten; behintzat lehen solairua. Urriaren 13ko data duen udal artxiboko agiri batean –hau da, sutea gertatu eta handik ia hilabetera–, oroitidazki baten irakurraldiaren akta jaso zuten. Agiriak dioenez, Mutrikuko etxeetan ez zegoen batere ordenarik, irtengune eta balkoi ugari zegoelako, eta oso arriskutsua zen suteetarako. Arriskua saihesteko, irtenguneak arautzea erabaki zuten¹²⁰. Bat al dator agiri hori suak erabat kiskalitako herriaren irudiarekin? Nire ustez, zera ondoriozta dezakegu: suak etxe ugari kaltetu zituela, eta haietako zenbait suntsitu, baina ez ziola hiribilduaren herrigune historiko osoari eragin.

Ondorengo agintariek ere erantzukizuna hartzea eskatu zioten Iruñeko artzapezpikuari, herria erre zuen apaizaren kontra («contra el cura que quemo la villa») justizia egin zezan. Era berean, herritarrei etxebizitzak berreraikitze baimena ematea eskatu zioten Erregeari. Behin baimena lortuta, Udalak arotz-maisu eta hargin-maisu bana izendatu zituen lanak ikuskatzeko,

eraikin asko egiten ari zirelako herrian («se hazian muchos edificios en la dicha villa»¹²¹). Hain zuzen ere berreraikitze lan hark ekarri zion lehendabiziko aldaketa Erdi Aroko herriguneari. Lehengo orubeak salgai jarri ziren. Hortaz, baliabide gehien zuten familiek lursail gehiago zituzten eskura, Erdi Aroko eraikuntza unitatetik aldentutako beste proiektu batzuei heldu ahal izateko. Aldaketa sozial eta artistiko hark Aro Moderno osoan izan zuen isla.

3.2. Lehendabiziko eraikin zibilak: udaletxea eta lonja

Lehendabiziko eraikin zibilak XVI. mendean egin zituzten Mutrikun: udaletxea eta lonja, hain zuzen ere. Haien xedea ez zen familia baten nagusitasuna eta aberastasuna erakustea, herritarren bizimodua bideratzea baizik. Eraikin horien monumentaltasunak agerian uzten du nolako garrantzia hartu zuten Mutrikun bai Udalak, bai arrantzak.

Mutrikuko gaur egungo udaletxea hiribilduko lekurik ikusgarri eta sinbolikoenean dago: Kosme Damian Txurruka plazaren itxituretako batean, hain zuzen ere. Horra iritsi baino lehen, ordea, udaletxea beste eraikin batzuetan izan zen mende luzez, baina parrokia zaharraren inguruetan betiere. Hain zuzen, parrokia bera izan zen Kontzejuaren lehen bilgunea. Gobernuak sakristian egiten zituen bilerak, eta saio irekiak eta parte hartzeko aukera handiagoa ematen zutenak, aldiz, elizan bertan izango ziren ziur asko. XVI. mendean lehen erdialdean artean sakristian aurkezten zituzten Kontzejuaren urteroko diru kontuak. Ondoko hitzekin hasten ziren urte haietako dokumentu baliotsu horiek: «En la sacristanía de la iglesia de Santa María de la villa de Motrico...»¹²². Hala eta guztiz ere, udalbatzek beren zereginetarako berezko tokiak eraikitzea bultzatzen ari ziren Errege-erreginak aspalditik. 1480an jada zera agintzen zuen Erregeak: «Fagan cada una ciudad e villa su casa de ayuntamiento e cabildo»¹²³.

Mutrikuren kasuan, 1553ko suteak zabaldu ziren udal agintariei eraikina egiteko aukera, orduan erabaki baitzuten, agirien arabera, Kontzejuaren bileretarako eta zerbitzuetarako egoitza egitea. Bi urte geroago, suak kiskalitako bi orube erosi zituzten, parrokiaren eta pisu publikoaren alboan. Kontzejuaren egoitza Mutrikuko erdigunean zegoen, Tranpakale, harresi eta kaiaren gainean –dokumentuek «la plana e mirador» esaten diote leku horri–. Sei zutaberen gainean eraiki zuten. Zutabe haien arkupedun beheko solairua osatzen zuten, eta hain zuzen ere bertan izaten ziren jendaurreko bilerak. Baina XVII. mendean lehen herenean itxi egin zuten arkupea, eta bilerak egiteko gela pribatua sortu. Dokumentazioaren arabera, kartzela eta alondegia ere izan zen gero, baina, dirudienez, agintariek ordurako Zubiaga plazan egiten zituzten bilerak, frontoiaren ondoko eraikin batean. Horregatik, zenbait egileren ustez Mutrikuk bi udaletxe zituen XVII. mende bukaeran: «bata, txikiena, iparralderako begiratoki ederra zuena, alondegiak gaur egun hartzen duen lekuan, eta bestea, udalbatzaren ia bilera guztiak hartzen zituena (...), frontoiaren atzealdean»¹²⁴. Gero ikusiko dugunez, horrela jarraituko zuten, harik eta 1729 eta 1740. urteen artean udaletxea herriko goialdera eraman zuten arte.

Azter dezagun zaharrena lehenik. Dokumentuek deskribatutako eraikina parrokiaren eta Tranpakalaren artean zegoen. Ondoan sakristia berria egin zuten, XVIII. mendean bertan. Eraikineko beheko solairuak sei zutabe zituen, bi zatiko arkupe bat osatzen zutenak. Arkupeko bi zatiek, aurrealdean, puntu erdiko arku bana zuten. Gaur egun toki horretan dagoen eraikinak eutsi egin die XVI. mende erdialdean egindakoaren osagaietako batzuei, baina, logikoa denez, maiz zaharberritu dute. Zuzen bagabiltza, Euskal Herrian kontserbatutako udaletxerik zaharrenetakoa da. Kaiaren beste aldetik begiratu gero, harresiaren aurrealdeak ere arreta handiz eraikitakoa dirudi: harlandu sortak izkinan, bao termalak eta markodun leihoak ditu. Dena, Errenazimentuko estetika bete-beteaz. Horrez gainera, eraikina terrazaren ertzean dagoenez, erraz antzeman

daiteke beheko hormatala –baita, beraz, parrokiaren plataforma sendotzen zuen karelaen gain-
rako zatia ere–, XVI. mendeko dokumentazioak aipatutako harresiaren parte zela. Teilatu hegala
honetaxe eraiki zuten: «Todo lo fuera que tiene de la pared de la muralla adelante hazia la calle que
ba a la Ribera»¹²⁵.



Lehenengo udaletxea, Erdi Aroko harresiaren gainean.

Zubiaga plazako etxean errepikatu egin ziren eraikin mota horien ezaugarrietako zenbait. Aurrealdea arkupea eta puntu erdiko hiru arku dituen logia baten, solairu nagusiaren eta ganbararen inguruan dago egituratuta. Beheko solairua eta ertzak ondo landutako harri erregular bidez nabarmendu zituzten. Gainontzeko paramentuak luzituta daude. Solairuak harlanduzko inposta lauen bitartez daude bereizita, eta gauza bera gertatzen da pilastra bertikalekin –xingola lau hutsak dira–. Arkupeko baoek forja-hesi artistikoak kontserbatu dituzte. Eraikina oso eraldatuta dagoen arren, Aro Modernoko ohiko eraikuntza ereduari jarraitzen dio.



Zubiaga plazako udal eraikina.

Harresiaren altzoko lonja zaharrak antzeko ideia arkitektonikoa du –nahiz eta, beharbada, horren landua izan ordez, praktikoagoa den kasu honetan–. Berriro ere arkupedun beheko solairua, solairu nagusia eta ganbara zabala ditugu. Ohi denez, harlanduak daude angeluetan, zutabeetan, arkuetako dobeletan eta baoetako markoetan. Gainerako paramentuak harlangaitz okre eta oxidatuzkoak dira. Nabarmenezkoak dira puntu erdiko hiru arku zabalak eta haiei eusten dieten zortzi

zutabeak. Eraikineko gainontzeko aldeek ere arku erdizirkular bana dute. Teilatu-hegal zabala ere badago, habexka diagonal sorta batek eutsita –Luardo dorretzekoa bezalakoa–. Lonja zaharra bi udaletxeak baino estilizatuagoa, zabalagoa eta monumentalagoa da, baina inpresio funtzional eta estetiko bertsua du. Pentsatzekoa da udaletxe zaharrenaren antzeko kronologia duela. Lonja portuko dorretxetik bereizten duten eskaileteran gora joanez gero, puntu erdiko ataria eta dobela sakonak dituela ikusiko dugu: XVI. mendeko arkitekturaren ohiko osagaiak dira horiek.



Antzinako lonjaren ikuspegi orokorra.



Antzinako lonja,
kaian islatuta.



Antzinako lonjako arkutera.



Antzinako lonjako XVI. mendeko atea.

3.3. Harresiaren, kostaldeko defentsen eta kaiaren bilakaera

Martínez Isastik Mutrikuri buruz egindako deskribapenaren arabera, harresia osorik zegoen 1625. urte aldera:

Motrico es una villa antigua de cuatrocientos vecinos cercada de murallas de cantería con cinco puertas, y dos torres a la parte del Norte, la una muy alta a modo de castillo, y las puertas tienen otras torres, que denotan la fortaleza y antigüedad¹²⁶.

Mutrikuk XVIII. mendean harresia zuela diote garai hartako dokumentuek: «Puerto último de Gipuzkoa, con buen muelle y muralla»¹²⁷.

Zer dakigu garai hartako harresiaz? Erdi Aroko traza bera zuela, esaterako. Lehen ikusi dugun bezala, inguruko herritarrek, espazio bila, zabaldu egin zituzten etxeak, eta harresiaren barrualdea hartu zuten. Herritar horiek beraiek zuten, nork bere zatian, harresia zaintzeko ardura. Udalak egin behar hori betetzeko deia egin ohi zien herritarrei, eta gutxienez XVII. mende erdialdera arte egingo zituen horrelako deialdiak¹²⁸.

Harresiak bost ate zituen, bide nagusietara eta kanpoaldera joan ahal izateko. Arriturriagako atea erabiltzen zuten gehien, Kondekalek eta Erdikokalek bat egiten duteneko. 1564an, Erregearen, probintziako eta Mutrikuko armariak jarri zituen Udalak ate horretan. Armari hori kontserbatu egin dugu: Luardo dorretxearen ondoan dago, lehen esan bezala. Mutrikuko armariak aritu gara lehen; ondoan Gipuzkoakoa dauka. Pieza mentsula moldura baten gainean dago, eta inperioaren armariaren arrastoak ditu. Pikatu egin zuten, eta Plus Ultra zutabeekin apaindu. Gaur egun, udaletxeko aurrealdearen erdian dago. Arriturriagako portalea kanpandorre soil batez nabarmenduta zegoen; dorre hori XIX. mende hasieran kendu zuten. Gainerako portaleak honako hauek ziren: Atxitxingoa, Alegriako dorre ondoan; Zubiagakoa, Luardo ondoan; portukoa, Kontzejuaren antzinako etxearen alboan, eta Askegakoa, Sabanikan. Horiek guztiak XVII. mende bukaeraren eta XIX. mende hasieraren artean galdu ziren¹²⁹.

Ikuspegi militarretik, XVII. menderako ia galdua zuen gotorlekuak defentsa eginkizuna. Gerra teknika berriek, gerraontzien artilleriak eta XVI. mende erdialdean izandako erasoek agerian utzi zieten Udalari eta herritarrei itsasoan zegoela mehatxua. Eta mutrikuarrek babesgabe ikusi zuten beren burua. Horixe jaso zuen Teixeirak, XVII. mendearen lehendabiziko laurdenean geografia liburu bat idatzi zuenak:

La villa ny el puerto tiene defença ninguna, siendo de muy buenapoblación y noble. A la entrada de la ensenada, de la parte de poniente en una punta que ase la tierra, desean los naturales desta villa aser un fuerte para asegurar el reselo con que viven de continuo con las armas en la mano¹³⁰.

Gerraontziek badiatik bertatik egin ziezaiaketen mutrikuarrei kanoiez eraso, eta hiribildua inguratzen zuten murrak ez ziren babes nahikoa. Erdi Aroko harresia ez zen, beraz, gerra modernoari aurre egiteko gauza.

Gerran eta nabigazioan artilleria erabiltzen hasi zen, beraz, eta Mutrikuk defentsak aldatuta eta berrituta erantzun zion egoera berriari. Dokumentazioa eta arkeologia bat datoz aldatze eta berritze prozesu hura aztertzerakoan. Mutrikuarren kezka nagusia ez zen lehorretik etor zitezkeen erasoetatik herrigunea nola babestu, baizik eta portuak itsaso bidez iritsitakoei aurre egiteko zuen baliabide falta. Lehendabiziko kanoiak antzinako udaletxe ondoan jarri zituzten XVI. mendearen bigarren erdialdean, badiari begira¹³¹. Ez zen nahikoa, ordea. Gotorleku bat egin beharra zegoen, bertan artilleria postu bat ezartzeko.

Atxukaleko begiratokia eta plataforma urbanizatzeko lanak egin zituztenean, harlanduzko ate zahar bat aurkitu zuten; antza, bateriari lotutako tarteko gotorlekuren baten parte zen. Azterketa

arkeologikoa 2003ko urrian egin zuten, eta bateriari eusten zion terrazaren aurrealde osoa agerian geratu zen orduan: 300 m²-ko azalera (20 x 15 inguru), portutik 20 bat metroko altueran. Egiturak harlangaitz erregularrak eta izkinako eta akaberako harlandu bikain eskuairatuak zituen; baita bozel erdiko moldura bat ere, goiko karelak eta ezponda txiki batean eraikitako murrak bat egiten zuten lekua nabarmentzeko. Osagai horiek guztiak Aro Modernoko gotorlekuen ezaugarriak dira. Gotorlekuak Mutrikuko portuko bokalea kanoiez babestea zuen eginkizun, eta ez zegoen, beraz, harresi zaharrari lotuta¹³². Hain zuzen ere, XVII. mende bukaeran, eta defentsak teknika militar berrietara egokitzeko asmoz, Diego Luis de Arias kapitain ingeniariak bastioi bat diseinatu zuen, lau kanoi zulo zituen eta herriarekin estalpe baten bitartez zegoena lotuta.

Kontuan hartu behar dugu kaia, arrisku eta kezka iturri ez ezik, hiribilduaren baliabide ekonomiko nagusia ere bazela. Martínez Isastik honako erretratu hau utzi zigun 1625ean:

Entran navíos cargados hasta las trescientas toneladas. Tiene astilleros donde se fabrican galeones y navíos de todas suertes, que se llevan a Sevilla cargadas de fierro y de otras mercadurías de la tierra, y algunos años van a Terranova por el pescado bacalao, y los marineros que quedan en la tierra se entretienen en la pesquería ordinaria y, a su tiempo, en ballenas que pasan a lo largo de la costa por aquel mar Cantábrico y que las matan con mucha destreza¹³³.

Itsasontziak gero eta handiagoak zirenez, portua txiki geratzen hasi zen, Erdi Aroko bera baitzen oinarrian. Teixeira garai berean adierazi zuenez, tona gutxi zituzten ontziak baino ezin zituen hartu Mutrikuk: «En una ensenada y dentro para el abrigo de los navíos, tiene un muelle donde dan fondo, aunque no es capaz de los que le demandan grande»¹³⁴.



Mutrikuko kaiak XVII. mendean zuen itxura, Teixeiraren arabera.

Portuaren antzinako egitura, tokirik ahulena Kontxa muturra zen. Harik eta XX. mendeko 60ko hamarkadan galdu zen arte, zuloak betetzeko lan ugari egin zituzten bertan. Haietako bat Francisco Iberok egin zuen 1765ean, zeinak Kontxa muturra botatzea eta berriro eraikitzea proposatu baitzuen¹³⁵.

3.4. Eliza Aro Modernoan

Errepara diezaiozun, berriro ere, Martínez Isastiren lekukotzari. Honelaxe definitu zuen eliza XVII. mendeko lehen hamarkadetan:

La iglesia es de la advocación de Nuestra Señora de la Asunción. Está proveída de mucha plata y ornamentos: y entre las cruces que tiene, una de oro y plata grandiosa de mucho valor y labor. La torre de la iglesia es notable con cuatro pirámides en que hay cuatro campanas gruesas y relojes¹³⁶.

Horixe da zuzeneko deskribapenetan oinarrituta dakiguna. Besterik ez.

Barrualdean, harrizko sei zutabek bereizten zituzten nabeak¹³⁷. Ez da erraza elizaren ezau-garri zehatzak baloratzea. Izan ere, zutabeak zituenez, areto-elizen eredu arkitektonikoetara jo beharko baikenuke, hiru nabeak altuera berekoak dituzten eraikinetara. Horixe da Debako parrokiaren kasua: zabaldu eta berreraiki egin zuten lursaila, zortzi zutabe eta areto-egitura eginda¹³⁸. Mutrikuko elizan, ordea, alboko nabeak txikiagoak ziren. Horregatik zuen mendebaldeko aurrealdean pinoi akabera. Baliteke pilare faszikulatu gotikoak edo gotiko berantiarraren zutabe zilindrikoak aipatzeko ere erabili izana *zutabe* hitza.

Azter dezagun elizaren eraikuntzaren historia, hura galdu zen arte. Dokumentuek diotenaren arabera, hainbat esku-hartze egin zituzten Mutrikun XVI. mendearen bigarren erdialdean: presbiteriorako burdin hesi berria; leihoetarako beirate berriak; 1568an zazpi aldare daude dokumentatuta, haien altzari eta apaingarriez; 1580an presbiterioaren maila zabaldu zuten; mende bukaeran erretaula nagusia berriro pintatu eta paretak entokatu zituzten...¹³⁹.

XVII. mendearen lehendabiziko herenean egin zuten eraikinean inoiz egindako esku-hartze dokumentatu handiena. Orduantxe eraiki zuten dorrea –«bikaina», Isastiren hitzetan–. Antza denez, 1608. urte inguruan egin zuten, Atxukaleren aldean. Dorreak hiru gorputz zituen, eta goialdekoan kanpandorra zegoen¹⁴⁰. Akabera, eta apaingarri moduan, lau piramide angeluar zituen balaustre bat zeukan.

Ondoren, esku-hartze eta berrikuntza ugari izan ziren. Dokumentuen arabera, zimenduetako arazoengatik eta murrak horma bularrez sendotu behararengatik egin zituzten lan gehienak. Dorreari kapitela eranstea erabaki zuten XVIII. mendean, baina azkenean ez zuten halakorik egin. Aurrealdeak edertzeko zenbait proiektu ere badaude dokumentatuta. Francisco Iberorena esaterako, lehen aipatutakoa; hau da, XVIII. mendeko barrokozaletasunarekin bat eginenez, Erdi Aroko ataria garaipen arku handi eta bertako txaranbeldura kasetoi-uztai bihurtu nahi zituena.

Altzariei eta apaingarriei dagokienez ere, elizaren barrualdea gustu berrietara egokitzen joan zen poliki-poliki. Zoritxarrez, ezer gutxi kontserbatu dugu ondare monumental hartatik. Azter ditzagun sakonago elizaren historiako lau momentu. Lehenengoak elizak 1553ko sutearen ondorengo urteetan zituen aldareak erakutsiko dizkigu; bigarrena murruetan, gangetan eta teilatuan XVII. mende hasieran egindako oinarritzko berrikuntzari buruzko dokumentua da; hirugarrenak presbiterioaren zabalkundea eta erretaula berria azalduko dizkigu, 1630 aldekoak; eta laugarrenak parrokiaren XVIII. mende bukaerako ondasun nagusien berri emango digu.



Francisco Iberok parrokiaren mende-baldeko fatxadarako egindako proiektua.

Has gaitezen kaperekin eta haien apaingarriekin. 1568an zazpi aldare zeuden:

[...] el principal de Nr. Señora, los otros de San Juan Bautista y otro de Nr. Señora (del Rosario), de la Trinidad, de San Miguel, de San Pedro y de San Juan (Evangelista); en todos hay lápidas consagradas y ymágenes de bulto doradas con sus tabernáculos y sus adreços de sávanas y manteles, y ante altares, y todos doblados; y muchos más que tiene la serora para mudar¹⁴¹.

Lan handiei dagokienez, 1608ra arte ez zen aldaketa handirik izan. Urte hartan milioi laurden marabedi inbertitu zituzten elizan. Sekulako dirutza. Lana ere tamaina berekoa izan omen zen. Hasieran, kapera eta kanpandorra berritu zituzten («Para el reparo de las capillas y torre del campanar»). Beste sakristia bat eta, aldare nagusiaren alboan, deboziorako monumentu desmontagarri bat egitea ere aurreikusi zuten. Diseinua Francisco Fratin Palar arkitektoak egin zuen (Iruñeko apezpikuaren «vehedor general» delakoak), Iruñeko arkitekto familia ezagun bateko kideak. Arkitektoaren ustez, lana nahitaez egin beharra zegoen, alboetako kaperak erotzear zeuden-eta: «Le pareció conbenia y hera necesario forcossamente se hubiessen de nuevo por que las capillas colaterales a la mayuor estaban a peligro de caer». Berrikuntza izugarri garestitu zen, ordea. Izan ere, hareharri ugari behar baitzen Donostiatik: «Que para la dicha obra era menester mucha piedra arenisca y aquella se traxo desde el puerto de San Sebastián.... y que el acarreo desde el puerto de la villa a la iglesia es de camino muy trabajoso».

Elizbarrutiko fiskalak, Mutrikuko parrokiako lanetan dirua behar bezala erabiltzen ari ziren edo ez jakiteko, informazio txostena ireki zuelako dakizkigu gaur egun datu horiek guztiak. Arazo zen artzapezpikutzak onartuko zituen ala ez Domingo de Asterricak (herriko alkatea 1608an eta parrokiako ethezaina 1609an) justifikatutako gastuak. Fratinen arabera,

Habiendo considerado el puerto de donde se han traydo los materiales para las fabricas que se han hecho y comenzado en la dicha iglesia, conforme mi relacion y trazas que por mandado de U. M. hize, y tambien habiendo tenido consideración a como se pagan los

jornaleros en aquella provincia y de cómo los texados de la dicha iglesia se hauian de deshacer, acarrear, levantar y hazer de nuevo y subir a lo alto los materiales; finalmente haviendo tenido consideracion a la carestía de la tierra y a todo lo necesario y considerado todo con la diligencia y cuydado que es necesario en descargo de mi conciencia digo que U. M. se puede mandar al de Asterrica passar en quenta los ducientos y siete mil nuevecientos y quatorce maravedís que da por quenta haberse gastado descontando delos gastos otros noventa y nueve mil ducientos y ochenta y cinco maravedís que tiene recevidos que en ello no queda a mi parecer defraudada la iglesia; y por quanto no esta acavado el monumento ni la torre del campanario, ni la sacristía, conforme las otras trazas que fueron firmadas de U. M. y les dio licencia.

Fratinek lanak bukatzeko konpromisoa hartu zuen:

Todas las obras de la dicha iglesia parrochial y sacristía Della para hazer de canteria a examen como esta dicho dandosele la piedra y cal y arena y aparejos necesarios para ello para desde esta fecha desta escritura en quatro messes con que las pareces que estan entre los estribos (¿?) a mediodía y tramontana no se an debaxar ni tocar a ellas como (¿?) la otra porque seria con menoscabo y ruyna de las otras paredes y bendrian a enflaquecer los estribos de la dicha iglesia por lo qual se acuerda no tocar dellas. Y es condición que sobre el talus que al presente tiene la dicha iglesia encaxada en las paredes de la nabe mayor que sin tocar a el puestas las cornisas que se hubieren de poner sobre las paredes de las nabes menores se ponga otro talus mas arriba de nuebo en la parte que mas conbeniere en la misma pared de la nave mayor para la seguridad del agua que cayere o pudiere caer del tejado de la nabe mayor par que las dichas aguas que assi cayeren sobre el dicho talus y del y de las vertientes afuera de la dicha iglesia y lo mismo se entiende sobre el cerrar de la ventana de el reloj.

Arkitekturaren aldetik begiratuta, nolakoa izan zen berrikuntza hura? Berritze lanetan harria erabili zuten. Egia da buruaren alboetako kaperak kontserbatzeak buruhaustek eragiten zizkiela. Lehenago, XVI. mende bukaeran, kaperetako bat berreraiki zuten, dokumentuen arabera. Dena dela, bi lanalditan konpondu zuten arazoa, eta pentsatzekoa da egin beharreko lana ez zela handiegia¹⁴². Ura iragaz ez zedin, desmuntatu egin zuten teilatua. Eta ezpondak eta isurkiak jarri zituzten, euri-ura kanpoaldera eramateko. Gangak ere berreraiki al zituzten? Iragazte eta hezetasun arazo handi samarrak bazituzten, eta haiek konpontzeko murruetan egin bazuten lan, eta baten bat kendu ere egin bazuten, ondorioztatu beharko genuke antzinako itxitura guztiak kendu zituztela. Harri asko erabili zituztenez, arotzen esku eginkizun gutxi utzita, gangak harriz berregin zituztela pentsa genezake. Oso litekeena da, beraz, elizaren ondorengo harrizko itxiturak eta gangak garai hartan egin izana. Zuzen bagabiltza, orduantxe egin zituzten Antiguako Gure Amaren harrizko gangak, jatorrizko egurrezko itxiturak ordeztuta. Era berean, logikak dio murruiak eta ostikoak ere sendotu zituztela lan haietan, baita euskarriak eta buruaren itxitura osoa ere, nahiz eta kaperak nagusi gotikoari eutsi zioten.

Zenbait urte geroago, 1630 aldera, testamentu bidezko dohaintza bat jaso zuten («renta perpetua de 100 ducados al año»), beste erretaula bat egiteko, monumentalagoa eta aberatsagoa. Lanak bideratzen hasi zirenean, kaperak nagusiaren neurriak desegokiak zirela konturatu ziren:

La capilla mayor de la Parroquial desta villa de Motrico es mucho mas baxa que el cuerpo de la yglesia, y tiene cassi tanto de ancho como de alto por lo qual no se puede fazer en ella retablo que sea proporcionado por no sacar lugar para el¹⁴³.

Hortaz, beste kaperak bat egitea proposatu zuten, handiagoa eta zabalagoa. Obra garestia zen, ordea. Eta aurreko berrikuntzaren esperientzia kontuan hartuta, gozoa egongo zen elizbarrutiko bikarioa! Gogoan izango zituen-eta hogeitau urte lehenago egindako gustuak...

Artzapezpikutzak ezezkorik eman ez zezan, mobilizatu egin ziren herritarrek:



Antzinako kapera nagusiko kontrahormen behealdeak.

Los mareantes de limosna traeran la piedra que fuese menester, como se les haga para ello. Un barco fuerte por no perder los suyos. Y las mugeres ayudaran a levantar la piedra desde el puerto a la iglesia. Y de cal una persona ha dado trescientas fanegas y las demas se haran con comodidad. Tiene para ello de renta cincuenta ducados al año que dexo para azeite el capitan Lucas de Urquiaga en su testamento. Y mas la primicia que este año se vendio en dos mil ochocientos maravedís y otros años se vende a mas y menos según los finados que hay, y el precio que se espera dellos. De mas de esto los pataches que andan a Seuilla Lisboa y otras partes dan a la fabrica uno por ciento de las ganancias de yda y buelta, y los que ay al presente son cinco y los barcos menores que en el puerto pescan dan dos por ciento de las ganancias de la pesca principal de vesugo, atun y merluza, y deesto ay costumbre inmemorial de manera que nose tiene por limosna voluntaria, sino por deuda forzossa. Y al presente no tiene deudas, ni otra cossa tan precisa y necesaria como el levantar la capilla y otros reparos concernientes al edificio esto es lo que me parece en razon de lo que me manda el señor don Miguel de Lebrixa oficial principal deste obispo de Pamplona¹⁴⁴.

Lanak luze jo zuen. 1654an, artean bukatu gabe zegoen erretaula. Behin amaituta, emaitzak ikusgarria behar zuen izan. Hiru kale bertikalen inguruan zegoen egituratuta; kaleek, bestalde, bankua, bi solairu eta akabera zituzten. Kronologia aintzat hartuta, haren egitura arkitektonikoak klasizista behar zuen izan: zutabe pareak, taulamendu zuzena eta frontoi apaingarriak. Irungo

Junkaleko Ama Birjinaren edo Gueñesko Andra Mariaren elizetako erretaula nagusien antza omen zuen. Errepara diezaiogun erretaularen ikonografia oparoari. Bankuan hamasei eszena zituen: Jesukristoren Nekaldiaren erliebeak, Magoen Gurtzarenak, Elizaren santuen martirienak eta lau ebanjelariarenak. Haren gainean, lehen solairuak San Joakimen eta Santa Anaren irudiak zituen alboetan, eta erdian hiru erliebe handi: kale nagusian, Zeruratzeko Andre Maria, aingeruz eta apostoluz inguratuta (San Petri eta San Paulo, mukulu biribilean eginak); eskuinera, ebanjelioaren kalean, Deikundea, Jainko Aita eta Espiritu Santua dituen beste erliebe handi bat; bestaldean, azkenik, Kristoren jaiotza. Bigarren solairuan, Xabierko San Frantzisko eta San Ignazio ageri dira alboetan, eta Hirutasuna erdian: Jainko Aita tronuan, Kristo gurutzean eta Espiritu Santuaren usoa; multzo osoaren alboetan, Dabid erregearen erliebea eskuinean eta Isaaken sakrifizioa ezkerrean. Akaberan, lore eta aingeru handiak¹⁴⁵.

Ez omen zen batere kaskarra elizak XVIII. mendearen erdialdean zuen egoera ekonomikoa. 1741eko auzi batean, parrokiak zilarrezko 16.000 dukat zituela adierazi zuen kabildoak¹⁴⁶. Elizak lurrera bota baino lehen zituen pieza baliotsuenen artean, aldare nagusiaren frontala, prozesio gurutzea eta bi argi zeuden; zilarrezkoak, horiek guztiak¹⁴⁷. Badakigu, ordea, gorabehera ekonomikoa eta historikoa izatean, zilarra dela errazen bihur daitekeen ondareetako bat. Eta lehen aipatutako auzia bukatu eta ondorengo ehun urteetan denetarik izan zen.

Dokumentuek aurri deklarazioa nola egin zuten eta eraikina nola eraitsi zuten azaltzen dute. Alexo Miranda arkitektoak eliza hondatzen ari zela esan zuen 1790eko maiatzaren 19an:

Las bóvedas de la nave principal se hallaban con aberturas en varias partes, siendo la mayor de ellas de tres a cuatro pulgadas por la parte superior y convexa; las paredes iban imperceptiblemente estrechándose hacia el pavimento de la iglesia; la armadura del tejado de la nave principal estaba mal dispuesta y por ello cargaban sobre la nave (...); existían aberturas e inclinaciones en las columnas –Alexo de Mirandaren arabera, oso litekeena da desplazamendu ostikoen pisuaren ondorioz gertatu izana, zutabeak bezala haiek ere oso zaharrak ziren eta–; igual inclinación que las columnas tenían las paredes o lienzos que cargaban sobre ella. En la pared y estribos opuestos al mediodía no se observaban desplomes¹⁴⁸.

Eraikinak luzaroan iraun zezakeela esaten omen zuten. Dena dela, euskarriek galdua zuten bertikala eta, beraz, arazoak zeuzkaten gangen bultzadari aurre egiteko. Pisuren eraginez, murruek atzera eta gora egiten zuten, eta zuloak sortu eta harriak erortzen ziren ondorioz. Arkuetako gerriak eta gangetako itxiturak pitzatu egiten ziren. Arazo larriak ziren inondik ere, baina Erdi Aroan egindako eraikin askok zituzten horrelako patologiak. Mota horretako arazoak, hala ere, ohikoagoak izaten ziren hasieran proiektatutako gangen ordeztzat besterik ez zirela erabakitzen. Eta gure hipotesien arabera, horixe zen Mutrikuko parrokiaren kasua. 1608 inguruan egin zituzten ganga berriak, eraiki eta hamar urte eskasera, arazoak ematen jarraitzen zuten; horietan eragiten zituzten kaperako itoginak¹⁴⁹.

Parrokia zaharraren Aro Modernoko historian barrena egiten ari garen bidaiak hau 1790eko inbentarioari begirada emanaz bukatuko dugu. Elizak artean bazituen XVI. mendean dokumentatutako kaperetako zenbait. Iparraldean (ebanjelioaren aldean) Andre Maria Arrosariokoaren erretaula zegoen, Andre Maria Doloretakoarena (Ama Birjinaren eta Kristo Santuaren kutzaren irudiekin) eta Jesusen Bihotzarena (Xabierko San Frantziskoren eta San Ignazioaren irudiekin). Hegoaldean (epistolaren aldean), San Petriren eta San Mikel goiaingeruaren erretaulak.

Zer gertatu zen, parrokia zaharra eraitsi ondoren, bertako apaingarriekin? Inbentariatutako objektu gehienak hainbat lekutan gorde zituzten. Sakristia berrian, besteak beste, organoa, Andre Maria Doloretakoaren, Maria Magdalenaren, Kristoren hilobiaren eta gurutziltzatuen eskulturak,

eta zenbait koadro; udaletxean, erretaula nagusiko eta alboetako aldareetako irudiak, urreztatutako zenbait arrano, Aste Santuan erabilitako triangelu formako argimutil bat eta Ama Birjinaren irudi bat; beste zenbait bitxi eta garrantzi txikiagoko beste osagai batzuk, berriz, hainbat kofradia eta baselizaren artean banatu zituzten¹⁵⁰.

Horra agiriak zer dioten. Aldera dezagun parrokia berriak kontserbatu duenarekin. Parrokiaren ondarerik baliotsuenak eraikin neoklasikoko antzinako bataiotegian daude. Zaharrenetatik hasita, jaiotza irudikatzen duen erliebe interesgarri bat dugu: haurra, Josef eta Maria ageri dira bertan. Artzainen gurtza ere bai. Konposizioak eredu tradizionaleri jarraitzen die, nahiz eta begi-bistako desoreka dagoen irudien kanonaren eta haien planoaren artean. Esaterako, haurra oso txikia da gurasoekin alderatuta. Haien gainean, artzainak daude begira, bigarren planoan. Irudiek ñabardura ugari dituzte: Mariaren begirunea eta duintasuna, eta San Josefen halako kezka itxura. San Josefen irudiak Antxietaren eskola gogorarazten du: ezker eskuan kandela bat du, eta eskuin eskuaz garra babesten ari da. Mariak aurpegi klasikoa du erabat¹⁵¹; hortaz, XVI. mendearen bigarren erdialdekoa dela esan dezakegu.



Parrokia. Jaiotza eta artzainen gurtza.

Artzainen gurtzaren erliebearekin batera, artelan bikain bat dugu. Harrigarria benetan Mutrikuk horrelako zerbait izatea. Francisco Zurbaranek pintatutako Kristo gurutziltzatu ederraz ari gara. «Herriko harribitxirik onena» da, tradizioaren arabera¹⁵². Mihisea handi samarra da (198 x 272), eta Kristo hiltzear ageri zaigu bertan. Koadroaren testuingurua zeharo tenebrista da. Argi bortitz batek erakusten digu Kristo: lau iltze ditu, eta argiak bere anatomia, erreguka ari den bere aurpegia eta hil-oihal zuria nabarmentzen ditu. Andres Ibarburu Galdonak, Sevillako katedraleko kalonjeak, eman zion dohaintzan Mutrikuko parrokiari. 1950eko eta 60ko hamarkadetan, koadroa Zurbaranen obrari buruzko erakusketa banatan izan zen Granadan eta Madrilen. Lehenengo erakusketan, Sevillan dauden gutxienez hiru artelanen motarekin lotu zuten: haietako bat museoan zegoen, eta bi katedralean. «Atzera botata du burua, gora begira; ahoa erdi irekita du eta hortzak agerian ditu; eta oihalak, irudiaren eskuinean lotuta, bi erorkera ditu, bata bestea baino luzeagoa»¹⁵³. Madrilgo erakusketan, artistaren lehendabiziko sorrera fasean kokatu zuten Mutrikuko mihisea, 1635 eta 1640 artean¹⁵⁴.



Parrokia.
Zurbaranen Kristo.



Parrokia. Zurbaranen Kristoren xehetasuna.

Gela horretan bertan, San Anton otoitzean erakusten duen mihise txiki bat dago. Pinturak debozioa zuen helburu, eta oso kalitate onekoa da. Estiloari dagokionez, barrokoan kokatu izan dute¹⁵⁵.

Testuinguru jakinik gabeko eskultura ugari daude, bestalde, gaur egungo parrokiako elizan, sakristian eta iparraldeko kaperan. Zaila da noizkoak diren jakitea. Oro har, barrokoaren arau estetikoak betetzen dituzte. Presbiterioaren alde bakoitzean Loiolako San Ignazio eta Xabierko



Parrokia. Zeruratzea.

San Frantzisko daude. Irudi onak dira biak, tamaina ertainekoak. Ondo egindako baina zimeldu itxura handi samarra duten izurrak dituzte. Badakigu bi santu horiek parrokia zaharreko erretablea nagusian eta Jesusen Bihotzarenean zeudela. Haien tamaina eta kalitatea ikusita, baita izurren ezaugarriak ere, erretablea nagusiko irudiak zirela esango nuke nik. Kasu horretan, XVII. mendearen bigarren herenean eginak lirateke. Iparraldeko kaperako beste irudi sorta bat ere antzinako erretablea nagusiarekin lotuta egon daiteke, nire ustez: Zeruratzearen Andre Mariaren irudia –haren omenezkoa zen parrokia zaharra–, eta San Petrirena eta San Paulorena –aurrekoaren alboetan zeuden bi santuok–. Hiru irudiak parrokia neoklasiko berriko presbiterioa apaintzeko egindako erretablean zeuden. Agian horregatik pentsatu zuten XIX. mendekoak zirela¹⁵⁶. Aurrerago ikusiko dugun bezala, egoera ekonomikoaren ondorioz luze jo zuen eliza berriaren eraikuntzak, eta pentsatzekoa da, beraz, arrazoi berarengatik bitarteko gutxi izango zutela eraikinaren barrualdea apaintzeko. Erabat ulergarria izango litzateke kontserbatutako guztia berrerabiltzea, balio eta debozio handiko irudiak ziren-eta. Hipotesi horren arabera, eskultura multzo hori XVII. mendearen bigarren herenekoa izango zen, eta parrokia zaharreko erretablea nagusirako egina. Ordukoa ote da artzainen gurtzaren erliebea ere? Hipotesi ona izan daiteke, eta estiloaren aldetik begiratuta kontrastan behintzat ez du.

Gurutziltzatuz gain, San Josef haurrarekin erakusten duenak, Maria Magdalenak eta Kristo hilak ere estetika barrokoa dute. Dena dela, Magdalena izan ezik (1790 baino lehenagokoa), beste biak deboziorako sortutakoak izan daitezke, eta ez dago, dokumentu falta dela-eta, noizkoak diren jakiterik.

Gutxi da, benetan, parrokiak garai hartako ondareaz kontserbatutakoa. Zer gertatu zen erretablea nagusiarekin? Non utzi zituzten lau mende luzez mutrikuarren fedearen lekukotza zuzena eman zuten altzari liturgikoak? Erliebe bat, pintura sorta bat, zenbait urregintza lan, mukuru biribilean egindako eskultura gutxi batzuk... Eta ezer gehiagorik ez. Ba al da XVII. mendeko erretablea nagusiarekin zer gertatu zen jakiterik? Parrokia berriari buruzko atalean aztertuko dugu hori guztia.

3.5. Arte barroko erlijioso gehiago: komentua eta baselizak

XVI. eta XVII. mendeetan, Trentoko Kontzilioaren harira, monasterio ugari sortu ziren gure herri eta hirietan. Mutriku ere bat egin zuen «modernitatearekin», eta moja agustindar ermitau talde bat hartu zuen Santa Katalina komentuan. Aldi berean, herritarren fede eta debozioaren eraginez, hiribilduko oratorioek eta kaperek apaintze eta arte maila altuagoa lortu zuten. Dokumentazioak osagai barroko horien berri ematen du, baina gaur egungo eraikinetan ez dago ia bat ere.

3.5.1. SANTA KATALINA KOMENTUA

Has gaitezen eraikin monumentalarekin. Santa Katalina komentua herriko artelan esanguratsuenetakoa batzuk ditu. Mota askotakoak dira, kosmopolitismo nabarmenekoak: Flandesko pinturak, Napoliko eta Espainiako eskulturak, erretablea klasizistak, Frantziako organo bat...

Historia ondorengoa da. Juan Otsoa Berriatua eta Catalina de Plaza emazteak sortu zuten lehendabiziko Santa Katalina komentua, 1572 baino lehenago, Aritzeta dorretxean. Aurrez hitz egin dugu Juan Otsoa batxiler eta abokatuaz. Baita dorretxeaz ere. Litekeena da komentua sortzeko proiektua 1559rako sendoa izatea, ordukoa baita fundazio berrirako errentak lortzea helburu zuen errolda bat. Lehen esan bezala, garai hartan Aritzeta dorretxean bizi zen familia. Beraz, dorrea komentura egokitu beharra zegoen. Kaperako eta monasterioko gelen espazioa antolatu



Santa Katalina komentuko elizaren fatxada.



Santa Katalina komentuko elizaren barrualdea.

behar zen batez ere. 1576. urte bukaeran, Alkiza bisitatzailerak dorretxeko atarian zegoen kapera bedeinkatu zuen, baita monasterioa ere. Komunitatea oso txikia zen hasiera hartan: Mendarotik etorritako prepositu bat eta hiru moja gazte baino ez zeuden¹⁵⁷. Komentuak doterik gabeko zortzi moja hartuko zituela aurreikusitakoa zuten; hortik aurrerakoek moja saria eman beharko zuten, komentua mantentzeko lanetan laguntzeko¹⁵⁸.

Komentua lekualdatu baino lehen, Aritzeta etxetzarreko pareten artean eleberrietakoen antza duen gertaera bat izan zen, mutrikuarrak luzerako txutxu-mutxuen inguruan dantzan jarri zituena. Hamaika alditan erabili dira horrelakoak foiletoietan eta tragedia erromantikoetan. Baina Aritzetako pasadizoa «nahitaez» jaso behar dugu hemen. Ez gaitezen, dena den, kontakatiluak izan; Gipuzkoako XVII. mendeko eliteen eguneroko bizimodua eta ohiturak «aztertzea» baino ez dugu helburu. Hel diezaiozun txutxu-mutxuari, beraz. Barkatu! Eguneroko bizimoduari... Urte haietan Brigida Berriatuak (1514-1599) eraentzen zuen berriatuatarren ondarea, komentuen fundatzailearen izebak alegia. Hura hildakoan, Clara Ibazeta Berriatuak eskuratuko zuen maiorazkoa, eta Isabel Lobiano Ibazeta zen bere oinordeko bakarra. Mutrikuar neska gazteak, ondorengoetan zaharrena zenak, aitaren oinordetza oparota ere erantsi zion ondareari. Gutxi gorabehera 60.000 dukateko ondarea har zezakeen, guztira¹⁵⁹. Isabel gaztea, baina, Pedro Idiakezekin maitemindu

zen, eta horrekin ezkontzeko plana egin zuen, familiaren oniritzirik gabe. Pedro Idiakez ez zen bere leinuko lehen semea, eta agian horregatik sortu zen bi sendien arteko liskarra. Ia beti gertatzen den bezala, denborak askatu zuen korapiloa, lehen semea gazte hil ondoren Pedroren esku geratu baitzen maiorazkoa. Lehenago, ordea, istorio honetako pasarte nagusiak gertatu ziren...

Isabel, beste familia bateko bigarren semearekin maiteminduta. Kontuak ez zuen berriatutarrentzat oso itxura ona. Eliteen arteko ezkontzek lagun eta ahaide dirudunen arteko sareak estutzeko balio zuten. Familien arteko «kontratu» horiek xehetasunez antolatzen zituzten askotan. Gurasoek arreta handiarekin aztertzen zuten «merkatua», euren interesak aseko zituen ezkontza egiteko. Nolanahi ere, askoz ere zailtasun handiagoak izaten zituzten jatorri xeheko neska gazteek ezkontzeko. Isabel bere leinuko oinordeko bakarra zen. Berak zuen leinua betikotzeko ardura, bai ondarearen, bai odolaren aldetik.

Baina, lehen esan bezala, ez zuen oso itxura ona berriatuarrentzat. Brigida Berriatua birramonak, tutorea ere bazenak, familiaren komentuan sartu zuen Isabel, zortzi urte zituela; ziur asko, familiak gogoko ez zituen eraginetatik babesteko. Hortaz, logikaren arabera herentzian hartuko zituen ondasunetan geratu zen isolatuta umea: Aritzeta dorretxean. Mundutik at. Dena okertu egin zitzaion, ordea, Brigida birramonari, leinuaren matriarka eta neskatoaren tutore zenari¹⁶⁰. Izan ere, lau urte geroago, Pedro Idiakez gazteak hautsi egin baitzuen Isabel inguratzen zuen ustezko oreka. Eutsi hor: gazte biek, isilpean, elkarrekin ezkontzea erabaki zuten. Pedro Idiakezek komentuari eraso egin, eta bahitu egin zuen hamabi urte baino ez zituen neskatoa. 1596. urtea zen¹⁶¹.

Berriatuarren onespentik gabe ezkondu ziren bi gazteak. Salaketak eta liskar judizialak etorri ziren berehala. Baina agintari erlijiosoek absolbitu egin zituzten senar-emazteak, eta ezkontza baliozko zela aitortu zuten. Zoritxarrez, tragedia hutsean bukatu zen maitasun istorioa, itzal artean. Pedro 30 urte baino ez zituela hil zen, 1603an. Ez zuen semearen jaiotza ikusterik izan –Pedro Idiakez hura ere (1603-1675)–. Horrez gain, sosik gabe zendu zen. Zorrak utzi zituen herentzian. Baita nahi edo itxaropen bat ere: gurasoak hildakoan, Isabel Lobiano alargunak haien ondarea jasotzea:

Doña Isabel de Lobiano mi amada y querida muger sea heredera y señora de todos ellos (derechos) en todo e por todo, y disponga dellos a su voluntad como yo dispusiera siendo vivo después de averse pagado todos mis cargos y deudas¹⁶².

Isabel doluz jantzita ibili zen ia 70 urtetan, eta beren semearen herentziaren bermatzailea izan zen. Eta, hortxe paradoxa, idiakeztarren bigarren semearen semea¹⁶³, berriatuarrek onartu gabeko ezkontza haren fruitua, bi leinuen oinordeko bihurtu baitzen: berriatuarren Mutrikuko maiorazkoarena eta idiakeztarren Azkoitiko ondasunena. Patuaren eraginez, beraz, bi leinuen oinordeko izan zen Pedro Idiakez eta Isabel Lobianoren semea. Eta probintziako jabetza handienetako bat ere sortu zen horrela¹⁶⁴. Pedro Idiakezek Santa Katalina komentuari laguntzen jarraitu zuen bizi osoan; mundu honetara etortzea «ahalbidetu» zion komentuari, alegia.

Beste txutxu-mutxu bat ere badaukagu. Ez zaitetze larritu, azkena da-eta. Oraingoak aurrekoaren antzeko osagaiak ditu, baina alderantziz antolatuta. Irudimen gutxiko gidoigile talde batek *Bahiketa 2* filma egin izan balu bezala... 1692a zen artean. Gau batean, armadun gizon batzuek hamaika urteko Luisa Maria Intsausti neskatoa bahitu zuten. Azkoitin bizi zen, amona eta tutore zuen Catalina de Escalanterekin. Armadunek Mutrikuko Santa Katalinara eraman zuten gaztetxoa, eta mojen babespean utzi. Okerra zuzentzeko, elizbarrutiko bikario nagusia harremanetan jarri zen mojekin, baina ez zuen neska bueltaterik lortu: aholkuak eman zizkien lehenik, ohartarazpenak egin zizkien gero, aginduak, eskumikuak... baina ezer ez. Alderdi sekularren laguntza ere eskatu zuen, baina alferrik. Azkenean, bikarioa bera joan zen Mutrikura. Mojek ordara jo zituzten kanpaiak, herritarrak deitzeko, eta «mehatxu» horren aurrean alde egin zuen bikarioak. Eskumiku

gehiago, Palentziako apezpikutzan auzia, berriro ere Iruñekoan... Aurrera egin zuen denborak. Eta fiskalak arau-hausleak berriro salatu zituenerako, Luisa Maria Intsausti ezkontuta zegoen jada Antonio Idiakezekin –komentuko priorearen leinu berekoa¹⁶⁵-. Idiakeztarrak berriro ere. Horra oniritzirik gabeko beste ezkontza bat.

Itzul gaitezen komentura eta bere ondasunetara. 1638an, estutu egin zen komentua eta berriatuatarren arteko lotura. Izan ere, Trentoko Kontzilioari jarraiki, mojak Berriatua dorretxera bizitzera joan baitziren aldi batez. Gogora dezagun komunitate monastikoak inguru isolatuetan ez, baizik eta herritarren artean lekutzea erabaki zutela kontzilio hartan. Bestalde, komentuaen sorrera prozesu osoan behin-behinekotasun handia izan zela dirudi. Azkenik, Bonoztiz izeneko lursail batean egin zuten eraikina, herrigunearen hegoaldean. Hori izan zuen behin betiko kokapen.

Gaur egungo monasterioaren eraikitze lanak 1661 aldera bukatu zituzten. Lehen elizako zoruan zegoen hilarri batek honako hau dio:




Santa Katalina komentuko hilarria.

Epigrafiaren pasarte batzuk ulergaitzak dira. Oinarrian, hala ere, komentuaren eraikuntzari buruzko kronika labur baten zertzeladak dira: Aritzetan sortu zutela lehenik, Jaungoikoari eta Santa Katalinari eskainita, eta gogoan dutela 1661ean sagaratu zutela –eliza hau, dirudienez–. Francisco Idiakezek sinatu zuen hori guztia, 1780an. Erdian, luma apaingarria duen sare baten azpian, idiakeztarren armarria ageri da behe-erliebean: zuhaitz bat, oinarrian zezen bat ibilian duela.

Aurrealde ederra izanagatik ere, eraikinaren barrualdean komunitate txikia bizi zen; horregatik, ohiko planta izan beharrean, L estilizatu bat zuen. Ez zuten patio edo klaustro osorik eraiki, eta komentuko gelek ere ez zuten garrantzi artistiko handirik. Gaur egungo eguneroko mezarekin gertatzen den bezala, parrokia zaharra 1790ean eraitsi zutenetik 1843an berria eraikitzen bukatu zuten arte, Santa Katalina komentuko oratorioak hartu zituen parrokiaren eta kapilautzen elizkizunak eta benefizioak. Hura bihurtu zen herriko benetako parrokia.

Elizaren aurrealdea da, ziur asko, eraikinaren alderdirik monumentalena. Frontoi handi bat du, eta haren azpian ordena erraldoia duten bi pilastra korintoar pare, Erromako XVII. mendeko barrokoaren ildotik. Erdiko kalean portada dago, frontoi zuzen batek eta idi begi batek bukatua. Frontoi nagusiaren erdian, multzo osoa bukatzen duen kanpai hormaren azpian, ordenaren armarria dago. Hondoan kiribildutako eta ebakitako kartelak daude, eta bertan, Jesusen bihotza odola dariola ageri da kardinal-kapelu baten babespean; multzo osoaren gainean, aita santuaren tiara, makulua eta gurutzea zeharka dituela. Frontoiak, azkenik, arrokaia eta bolutak ditu.

Barrualdeari dagokionez, eliza gurutze latindar planta eta nabe bakar baten inguruan egituratuta dago; luneta gangak ditu, eta, gurutzaduran, zinboriorik gabeko kupula petxinaren gainean. Monasterioetan XVII. mendearen bigarren erdialdean eraikitako hainbat elizaren bertsio txikiagoa da Mutrikukoa. Mota horretakoak dira Elgoibarko San Bartolome eta Azkoitiko



Santa Katalina komentuko gangak.

Santa Klara ere. Gutxienez XIX. mendera arte, goiaingeruen lau pintura izan ziren elizako laranja erdiko lau petxinetan, «Espainiako eskola on batek egindakoak»¹⁶⁶. Beraz, barrualdea horma-irudiz apainduta zegoela ondoriozta dezakegu. Gaur egun, barrualde osoak, soila eta fina dirudienak, marfil hondoak eta hori koloreko marrak ditu arkitektonikoki nabarmendutako tokietan.

Konposizio lerro nagusiek aldare nagusian eta presbiterioa ixten duen erretaulan egiten dute bat. Erretaulan egindako urreztaketak eta hari bihurrikatuak efektistak bezain monumentalak dira. Erretaularen konposizio orokorra klasizista da: zatitutako taulamendu handi bat dago, bihurrikatutako harizko fustez osatutako zutabeen gainean, hiru solairu eta hiru kaletan banatua. Pinturak eta eskulturak kalitate onekoak dira. Nabarmentzekoak dira kale nagusiko bi koadro handiak: batetik Santa Katalina, Johan Boschorst-ena (Botzochst), eta bestetik, haren gainean, gurutze santua, honako hitz hauek dituen: «Marc. Garibaldo fecit»¹⁶⁷. Lehenengoa, 1663koa, izugarri handia da; 15 m² ditu oihalak. Bigarrena ez da askoz ere txikiagoa, 12 m² inguru baititu. Antza, 4.000 dukat erabili zituzten haiek egiteko¹⁶⁸, idiakeztarrek emandakoak¹⁶⁹, haiek baitziren, garai hartan, komentuen arteak, eta haiena baita erretaulak buru duen armarrria.



Santa Katalina komentuko erretaula nagusia.

Azter ditzagun zehatzago bi lanak. Biak ere barroko flandestarrarekin lotu dituzte, Rubensen eta haren jarraitzaileen tailerrekin, hain justu. Garrantzi handiko oihalak dira. Gurutze santua Van Dyckena dela esan izan dute: «Egile horren lanen artean, nik inoiz ikusitako onena»¹⁷⁰. Egilea beste bat izanda ere, bi pinturen balio artistikoaz jabetzeko balio digu aipamenak. Pinturarik handienak Santa Klara erakusten du –berari eskaini zioten monasterioa–. Pentsatzekoa da enkargua egin zutenean, lan horretan ahalegin berezia egitea eskatu zutela. Flandesko pintura barrokoarekin lotutako artista bat bilatu zuten horretarako, Rubensen eskolaren sokako bat. Bada, Jan Boeckhorst Alemaniako mendebaldeko hiriren batean jaio zen XVII. mende hasieran, eta Anberesera joan zen 1626an, Jordaensen eta Rubensen esanetara lan egitera. Garai hartako lan gehienak Rubensen eskolari atxikita egin zituela suposatzen da. Italian boladatxo bat egin ondoren (1635-1639), Flandesera itzuli zen. Han, Rubens 1640an hil ondoren, haren tailerrean aritu zen lanean, eta orduan jarri zen harremanetan Snyders, Van Dyck eta beste maisu batzuekin. 1650etik aurrera sendotu egin zuen bakarkako lana, elizetako eta monasterioetako aldareetarako pieza handiak eginda. Zortzi urte geroago hil zen, Anberesen. Mutrikuko oihalak bat egiten du, bete-betean, egile honen helduaroko



Santa Katalina komentuko erretaula nagusia. Santa Katalinaren martirioa.



Santa Katalina komentuko erretaula nagusia. Gurutze santuaren xehetasuna.

koadroekin. Era berean, ezin hobeto jasotzen ditu Rubensen pinturaren eta Flandesko eskola barrokoaren ezaugarriak. Egileak Santa Katalinaren martirioa aukeratu zuen oihalera eramateko. Konposizioaren erdian dago santua, oihal zuri distiratsu batez jantzita. Aingeru talde batek askatu egiten du soketatik, gorpua zerura eramateko. Martirizataileak, durbantea eta arropa militarra jantzita, lurrera erori dira mirarizko askapena ikusita. Atzean, jendetza alde egiten ari da, ikara batean. Konposizioak antzerki kutsu nabaria du. Garaiko ezaugarrietako bat da hori: mirarien eta debozioaren apologiak Elizaren garaipena goraiatzeko balio zuen. Eszenografiak ere badu antzerki ukiturik: gorputzak eskortzoan daude, neurrigabeko dramatismo itxurarekin. Barroko peto-petoa. Rubensen eskolak Europa katolikoan zabalduetako estiloaren adibide bikaina.

Erretaularen kale nagusiaren bukaeran dagoen oihala ere Anberesetik ekarria da. Marco Antonio Garibaldo Flandesen aritu zen beti lanean. Nahiz eta italiar jatorriko familia zuen, Anberesen jaio eta hil zen (1620-1678). Sona lortu zuen pintoreak, Rubensen eta bere tailerraren haritik berriro ere. Santa Katalinaren martirioan bezala, Garibaldok dramatismo handiko momentu bat aukeratu zuen kalbarioa egiteko: soldadu bat lantza sartzen ari zaio Kristori saihets batean;

azpian, hori ekidin nahian dabil Maria Magdalena. Berriro ere, koloreak baliagarriak dira eszena ordenatzeko: hondoa iluna da, tenebrista ia, eta bertan Kristo eta Magdalena nabarmenduta ageri dira, haien nakar itxurako koloreak, hil-oihalak eta kamisola zuriak argituta. Kanpoko perimetroa gorria da: kolore horretakoak dira Kristoren saihetsaren odol jario handia, soldaduaeren eta San Joanen oihalak, eta lapurren gorpuak. Bihurritutako gorputzek dramatismo handia erakusten dute, baina haien ondoan Ama Birjina eta San Joan ageri dira, tristuraz otoitz egiten.

Santa Katalinaren martirioaren bi aldeetan, erretaularen alboko kaleetan, bi eskultura talde daude: batean San Agustin ageri da, aingeru batekin, eta bestean Villanuevako San Tomas, ezindu batekin. Irudiak monumentalak dira, naturalean baino handiagoak, eta bolumetriaz eta naturalismoz eginda daude. Erretaulak San Petriren eta San Pauloren aurpegiak ditu bankuan, eta idiaketzarren armariak atikoan.

Santa Katalinako elizak artelan interesgarri gehiago ere baditu. Guadalupeko Ama Birjinari eta San Nikolas Tolentinori eskainitako alboetako bi erretaulaz gain (XVII. mendekoak, haiek ere), bi taila eder daude: Jesus nazaretarra eta Dolorosa dira, eta gurutzadurako alde banatan daude. Bi irudiek Napoliko estiloa dute bete-betean. Dirudienez, Gaztañeta jeneralak oparitu zizkion komentuari, Passano Lurmuturreko borrokaldia zorionekoa izan zela eskertzeko (1718)¹⁷¹. Eskultura horiek Mutrikura egindako bidaian gorabeherak izan omen ziren; debozioarekin eta sineskortasunarekin lotutako gorabeherak, XVIII. mendeko teologoen eta apologisten ildotik. Zubicarayk dioenez,

Tradizioaren arabera, hondoratu egin zen haiek zekartzan itsasontzia. Kutxak ur gainean geratu ziren, harik eta kostaldeko tokiren batean jaso zituzten arte. Mutrikuko komenturako bidean zirela ikusita, Gaztañetaren hiru alaba bizi ziren lekura, jatorrira berbidali zituzten¹⁷².

Kontuak kontu, eskulturek Napoliko estatua erlijiosoen ohiko ezaugarriak dituzte. Gaur egun, egoera bikainean daude. Berritu egin dituzte, eta eutsi egin diote jatorrizko xarmari.



Santa Katalina komentua. Nazaretako Jesusen xehetasuna.



Santa Katalina kometuko Ama Birjina Doloreetakoa.

3.5.2. BASELIZAK ETA SANTUTEGIAK

Aro Modernoak baseliza eta guruztoki ugari utzi zituen, herritarren fedearen lekuko. XVII. mende hasieran hamar baseliza ere baziren Mutrikun. Haien artean, Santa Agata nabarmentzen zen, nahiz eta, gaur egun, haren arrasto gutxi batzuk baino ez dauden jatorrizko kokalekuan. Martínez Isastik, 1625 baino zertxobait lehenago, ondorengo baselizak aipatu zituen:

Santa Agueda, hermita en la jurisdicción de Motrico, en la atalaya de la mar muy devota; en ella está un altar con la imagen de la Limpia Concepcion de Nuestra Señora, en que hace Dios muchos milagros. Otra de San Nicolas: y alrededor de la villa siete hermitas, San Miguel, San Pedro, San Juan Bautista, San Blas, Santa Elena, Monte Calvario de Maria, Santa Cruz. Otra de San Jerónimo se va haciendo ahora. La de la Magdalena es con hospital, en que se recogen los viejos pobres; tiene para su sustento hacienda raiz de caserías, ganados viñas y manzanales. Y Santa Cruz otro hospital general para los peregrinos, y pobres viandantes, con caserías y viñas para su sustento¹⁷³.



Kalbarioaren baseliza-
zako aldea.



Santabata baselizaren
hondakinak.

Kalbarioaren basilizak du, kontserbatutako kapera guztien artean, liturgia eta arte ondare gehien. Eraikina apaindu egin dute duela gutxi. Herri arkitekturaren osagaietako batzuk ditu basilizak: harlangaitzezko hesiak eta teilatu zapala barrualdean, eta zutabe gaineko atari zabal bat, atearen eta oinaldearen inguruan. Ikuspegi pintoreskoa du basilizak.



Kalbarioaren basilizaren ikuspegi orokorra.

Artearen ikuspuntutik, presbiterioaren profila marrazten duen puntu erdiko arku toralaren azpian daude ondasunetako asko. Aldarearen atzealdean, erretaula barroko txiki bat du, Kristoren kalbarioari eskainia. Bai gurutziltzatuaren irudia, bai Ama Birjinarena eta San Joanena barrokoak dira, dirudienez XVIII. mendekoak¹⁷⁴. Forma estilizatuak eta dotoreak ditu. Erretaularen arkitektura laburraren barrokismo pisu samarrak kontrastea eragiten du.

Elizak Bittor Furundarena pintore mutrikuarrak 1942an egindako bi oihal interesgarri ere baditu. Bi pintura horiek, ziklo ikonografiko baten moduan, osatu egiten dute kalbarioaren historia: iparraldekoak Kristo gurutzean jarri zuten unea erakusten du; aurrekoak, Kristo gurutzetik jaitsi zutenekoa. Pertsonaien formak lañoak eta zorrotzak dira aldi berean, eta debozioaren alde-tik arrakasta handien izandako barrokoaren eruedetako batzuk gogorarazten dituzte; batez ere, Rubensen homonimoaren Eraistea. Furundarena 1998an hil zen, eta heriotzaren hamargarren urteurrenean omenaldia egin zioten senideek eta lagunek. Bere olioak Mutrikun bertan daude, eta ezin hobeto erakusten dute nola bizitu zen herri hau XX. mendearen zati handi batean.

Baseliza ondo kontserbatu da. Batez ere, herriko sinestunek oroimenean gorde dutelako bertako oratorioa. Inguruko herritarrek egunero jotzen dute bertara otoitz egitera, eta Gurutze Santuaren Gorespenak protagonismo handia izan du beti eskualdeko ospakizun erlijiosoen artean. Irailaren 15ean egin ohi dute gurutze-bidea. Baselizan erlikia bat zegoen, XVIII. eta XIX. mendeetan oso preziatua izandakoa.



Kalbarioaren basiliza.
Kalbarioko eskultura multzoa.



Kalbarioaren basiliza. Eraistea.



Kalbarioaren basiliza.
Aurrealdearen
inguruko ikuspegi
orokorra.

El año de mil setecientos cuarenta y seis donó a esta villa el Reverendo Padre Fray Domingo de Astigarribia, hijo de ella y Vicario de Italia, de la Real y Militar Orden de la Merced para Redención de Cautivos Cristianos y Prior General de dicha Orden en la Corte Romana, la Sábana Santa que se venera en la parroquia de la refereida villa de Motrico y está guardada con su auténtica de Roma y licencia del Señor Obispo Gaspar de Uranga y Argaiz en el Sagrario de la Capilla del Sagrado Corazón de Jesús. Y para concordia de ambos cabildos se celebrará una función solemne con procesión y sermón el día de la Santa Cruz de mayo en todos los años¹⁷⁵.

Erlikia parrokian dago gaur egun. Mutrikuko Mihise Santuak tamaina errealean irudikatzen du Kristo; aurpegiz ageri da aurrealdean, bizkarrez atzealdean. Turingo katedralean dagoen jatorrizkoaren ahalik eta antzik handiena izateko, 1532an Chamberyn izandako sutean jasandako erredukak ere jasota dauzka Mutrikukoak, triangelu eta biribilen bidez. Behealdean, Erromako jatorrizkoaren lakre zatiak eta zigilua dauzka.



Andre Mariaren Zeruratzearen parrokia. Mihise santuaren aurrealdea.



San Isidroren basiliza. Santa Anaren Triplex irudia.

Duela gutxi eraikia den arren, **San Isidroren basilizak** ere ondare artistiko interesgarria du. Titularraren irudia du barruan, San Isidorena alegia. Deboziorako sortua den basiliza honek eskualdeko ezaugarriak ditu. Dena dela, arteari dagokionez, interesgarriagoa da Santa Anak, Ama Birjinak eta Haurtxoak osatutako eskultura multzoa. Hiru pertsonaiek «Santa Anaren triplexa» izenez ezagutzen den multzo ikonografikoa osatzen dute. Haiak gurtzeko ohiturak indar handia izan zuen Erdi Aroko azken urteetan, baina ahuldu egin zen Trentoko Kontzilioaren ostean. Santa Anak Maria heltzen du eskuin eskuaz. Maria, bere altzoan eserita, koroatuta dago, eta gotikoko ohiko proportzioei jarraitzen die. Hau da, proportzioan, Ama Birjinaren eta bere ama Santa Anaren arteko tamaina aldea, Haurtxoaren eta Ama Birjinaren artekoa bera da. Hori dena, egileak irudi bakoitzari emandako adina kontuan hartu gabe, noski. Eraitza berezia eta ederra da zinez. Haurra duen San Josefaren irudi bat ere badago basilizan, parrokiako Magdalena gogorarazten duena. Bi eskulturak XVIII. mendekoak omen dira gutxienez eta, antza, parrokia zaharreko debozio ondarearen parte izan ziren. Irudiak, egurrean landutakoak eta ederki polikromatutakoak, Espainiako XVI. mendeko estilo irizpideei jarraitzen die. Mariak ezker eskua ematen dio Haurrari, eta umeak luzatuta du eskuina, amonak eskaintzen dion fruta –udarea beharbada– hartzeko. Planteamendua naturalista den arren, eta ikuspegi fisikoan hiru figurak elkarri lotuta badaude ere, frontaltasunerako eta hieratizmorako joera garbia nabari zaio eskulturgileari, gotiko berantiarreko ohiturari jarraiki. Zurean zizelkatua dago irudia, oso ederki polikromatua, eta bat dator Espainian XV. mendearen azken urteetan eta XVI. aren aurrenekoetan nagusitzen ziren printzipio estilistikoekin¹⁷⁶.

Baselizan, bestalde, San Josefaren eta Haurraren eskultura bat dago. Ezaugarriei behatuz gero, parrokiaren dagoen Magdalenarena gogorarazten du. Eskultura biak jada desagertua den antzinako parrokiakoak izango ziren seguruenera, XVIII. mendekoak¹⁷⁷.

Santa Agata basilizari dagokionez (edo Santabata edo Sorkundea), presbiterioaren ilara batzuk eta alboetako murrak baino ez dira geratzen. 2003an azterketa arkeologikoa egin zuten toki honetan. Eraikina harlangaitzez egin zuten, eta presbiterioaren kanpoaldean izkinako



Santabata basilizaren hondakinak.

estribuak erabili zituzten. Ezagutzen ditugunen artean zaharrenetakoa da, 1557ko dokumentu batean eman baitzuten haren berri lehen aldiz. Agirien arabera, 1580an dirua bildu zuten hura konpontzeko, eta 1611n egin zuten behin betiko eraikina: presbiterio angeluzuzena zuen eraikin txiki bat –Kalbarioaren basilizaren egitura bera omen zuen–. Basilizak 1770ean utzi zion kultu tokia izateari. Dena dela, bertako kanpaia erabiltzen jarraitu zuten; izan ere, ikuspena urria zenean, kanpaia jotzen baitzuten, itsasontziak arazorik gabe sar zitezen portuan¹⁷⁸.



Santabata basilizaren hondakinak.

3.6. Etxeak monumentu bihurtuta: jauretxeak

Mutrikuko herriguneko etheen ezaugarrietako bat haien duintasun eta edertasuna da. Zarata handirik egin gabe, eta gehiegizko protagonismorik hartu gabe, eraikin sorta eder batek Behe Erdi Aroko dorretxeekin bat egin eta monumentu bihurtu zuen herriko arkitektura. Barrokoak edertu egin zituen Mutrikuko kale eta plazak. Hiri kutsu nabarmena eman zion hiribilduari. Arte erlijiosoak Flandestik edo Italiatik zetozen eraginak jaso zituen. Arkitektura zibila, aldiz, gehiago lotu zitzairen herrialdeari eta bertako tradizio zein estiloari.

Baina eraikin horiek, osagai estilistiko eta arkitektonikoez gain, historia ere badute: haiek eraiki zituzten eta belaunaldiz belaunaldi bertan bizitu ziren familien historia. Haien historia arkitekturaren bidez leinuaren irudia indartu zuten merkataritza eta itsaso munduko eliteen hazkunderari buruzko historia da. Nabarmentzeko moduko adibideak ditugu. Izan ere, etxe horiek egin zituztenak ez ziren soilik herriko bizitzaren protagonistak izan; Aro Modernoko Europako historia-ren pasarte interesgarrietako batzuetan ere zeresan handia izan zuten.

Elite horrek, Erdi Aroko azken urteetan sortutako ondare eta ekonomia joeren oinordekoak, zabaldu egin zituen arrakasta sozialaren iturriak. Oinarrian itsasoa zegoen, jakina. Merkatarri handiak izan ziren garai hartan; Galdona ibarburutarrak, adibidez, berriatuatarren ondorengoak.

Baziren marinel edo monarkiaren funtzionario moduan arrakasta lortutako familiak ere; hala nola, olazarratarak eta iturritzatarak. Ilustrazioak eta zientziaren ezagutzak are gehiago aberastu zuen sona handiko marinel eta militarren ibilbidea: gaztañetatarrak, txurrukatarrak... Familia horiek egindako arkitekturak «XVIII. mendeko kutsua emango dio Mutrikuri, herriak kontserbatu duena», eta «Antzinako Erregimeneko azken hirigintza aldaketaren eragileak» izan zen¹⁷⁹.

Euskal Herriko gainerako lekuetan bezala, Mutrikun ere «eredu trinko edo aglomeratuari» jarraitzen diote jauretxe barrokoek¹⁸⁰. Neurrizko tamaina eta egitura erraza izateagatik nabarmentzen da jauretxe eredu hori. Klimak eta gizarteak berak ezarritako joerak alde batera utzita, eraikinak oso praktikoak dira eta ondo egokitzen dira herriguneko lursail banaketara. Denen artean, Zabel jauregiak du herriko hirigintzan eragin handien. Erdi Aroko hamalau bat lursail hartzen ditu, baina haietatik lau (handienak) baino ez zituzten erabili jauregia eraikitzeko¹⁸¹. Gainontzeko jauretxe gehienek lau lursail hartzen dituzte: Montalivet, Gaztañeta, Olazarra edo Andonegi.



Zabel plaza eta jauregia.

Zenbat lursail hartzen dituzten ikusita, arrastoren bat izan dezakegu Mutrikukoak zer jauretxe mota diren jakiteko. Zabel, Galdona eta Montalivet izan ezik, Mutrikuko jauretxeek «mehe-lin arteko jauregi» ereduari jarraitu ohi diote. Herriko gainerako etxebizitzak bezala, jauretxe horiek «bideen eta kaleko bolumen nagusien mende daude, inguruko etxeekin berdinduta»¹⁸². Eredu horretakoak dira Gaztañeta, Olazarra eta Andonegi. Beste bik, Galdonak eta Montalivetek, izkinako jauregien ereduari jarraitzen omen diote, eta alakan dute leinuaren armarria jarrita. Azkenik, jauretxe exentua dugu, hirigintzan eragin handien eta gure artean hedadura txikien duena: Mutrikun, Zabel jauregia da mota horretako bakarra.

Ezberdintasun handiak dituztela dirudien arren, jauretxe guztiek ezaugarri komun jakin batzuk dituzte lursaili, okupazioari eta etxebizitzaren espazio beharri dagokienez. Eraikinek,

eliteen jauregiak izanagatik ere, funtzionalak izatea dute ezaugarri nagusi. Bakar batek ere ez du argi-patiorik, esaterako, eta altxaera orubeen ohiko maldara egokituta dute denek. Angeluzuzenak izateko eraikinen joera nabariarengatik eta espazio mugengatik, eskailera-kaxa ahalik eta txikiena izan ohi da; argi-gorputzik ere ez da izaten. Eraikinek ez dute handikeriarako joera; aitzitik, jauretxeen barrualdean praktikotasuna da nagusi. Adibidez, etenik gabeko ganbara zabalak egiteko aukera dago, ez baitago argi-patiorik edo argi zuloak dituen eskailera-kaxarik.

Non dago, beraz, eraikin horien monumentaltasuna eta noblezia? Non islatzen da leinuen nagusitasuna? Hori egiteko aukera dagoen toki bakarrean: etxebizitzaren eta espazio publikoaren tarteko gunean; hots, jauretxearen aurrealdean. Hain zuzen ere, aurrealdean erakusten dute eraikinek haien indar monumental eta sinboliko osoa. Materialelek –ondo landutako eta eskuairatutako harriak, batik bat– forja balkoi ederrek eta landutako egurrezko habeak dituzten teilatu-hegalek agerian uzten dute jabeen arrakasta sozial eta ekonomikoa. Hegoaldeko aurrealdean izaten dira, normalean, osagai horiek, lursailaren maldaren behealdean (Gaztañeta, Olazarra eta Andonegi). Ondorioz, atzealdeak askoz ere baxuagoak izan ohi dira. Gainerakoan, soilak dira oso: armarriak bakarrik daude apainduta.

Garai hartako eraikinetako bik baino ez zuten gainditu bolumen garbiak eta apaingarririk gabeko murrak ezaugarri zituen «klasizismo-oste soil» hura¹⁸³; ondoren aztertuko dugun sortako lehenengoak eta azkenak, hain zuzen ere.

3.6.1. ZABIEL JAUREGIA

Agian Zabel jauregia da herria XVI. mende erdialdean erre ondoren sortutako eraikuntza moda berri horretatik kontserbatu dugun lehenengoa. Azterketa orokorren batek XVI. mendekoa dela esan du¹⁸⁴, nahiz eta kronologiarik egokiena mendearen bigarren erdialdea izan daitekeen¹⁸⁵. Jauregi ederra da. Kultur etxea da gaur egun, eta Granada izenez ere ezagutzen dute, Granada de Egako duke-dukesein maiorazkoaren parte izan zelako. Mutrikuko erdigunean dago, kale nagusian bertan, eta lau aurrealde exentu ditu, baita iparraldean eta ekialdean gune subsidiarioak ere. Zabilek horrenbeste lursail hartu izana 1553ko sutearekin lotu izan dute. Hipotesi horren arabera, suteak etxebizitza ugari suntsitu zituen, eta orube asko hutsik utzi; horregatik, familia dirudinetako zenbait mota horretako hirigintza proiektuei heltzeko moduan egon ziren txikizioaren ondoren¹⁸⁶.

Zabel jauregia Mutrikuko erdigunean dago eta monumentaltasun nabaria du. Dokumentuetan gutxien jasota dagoen Mutrikuko eraikin zibila da, ordea; dirudienez, zaharragoa delako. Errepara diezaiegun bere historiaren datuetako batzuei. Errenazimentu garaiko jauregia beste dorre batean gainean egin zuten. Dorrea, Erdi Arokoa, Juan Lopez Zabel eta Maria Juan Indañetarena zen. Haien ondorengo belaunaldiak bultzatu omen zuen jauregiaren eraikuntza: haien alabak eta bere senarrak, Jacobe Ibaseta kapitainak. Eraikitze lanak 1586 baino lehen –urte horretan hil zen kapitaina– eta 1561en ondoren –arteana, Erdi Aroko oinetxeak dokumentatzen zituzten– hasi omen zituzten. Antza denez, jauregiaren eraikuntzak luze jo zuen, Clara Ibaseta eta Berriatuaren garaian (1562-1638) lanean ari zirenetan¹⁸⁷.

Kontuak kontu, eraikitzaileen leinua armarrian geratu zen islatuta. Aurrealdeko armarrria –arteana ez oso handia– Zabel abizenaren ikur heraldikoa da: ur-uhinen gainean bi hegazti ageri dira, aurrez aurre, eta bi alboetan ilgora eta zortzi tximistako izar bana¹⁸⁸. XVII. mendean belau-naldi batetik bestera pasatu zen jauretzea, herentziaz, harik eta, Berriatua dorretxearekin batera, idiakeztarren maiorazko zabalaren parte bihurtu zen arte.



Zabiel jauregiko
fatxadako armarria.



Zabiel jauregiko
fatxadako kale nagusia.

Aurrealdean, zutabe ordena bikoitz bat ageri da ate nagusiaren markoan; bigarren solairuko bao nagusiaren markoa ere badira zutabeok. Erdiko balkoiaren gainean zabieltarren armarrria dago. Aurrealdeko erdiko kale horretan daude apaingarri gehienak: ebakitako frontoia, familiaren armarrriaren inguruan; bihurrikatutako fusteak, zutabeetan; baoaren kaxa-markoa, eta piramide akaberrak. Errenazimentuaren testuinguruan, Zabel jauregia klasizismotik forma plastikoagoetarako eta landuagoetarako pausoa dela esan izan dute¹⁸⁹.

Eraikinaren egitura kubikoan, egurrezko teilatu hegala ere nabarmentzen da, multzo osoa lau isurkiko teilatuaz bukatzen duena. Errenazimentuko eraikinetik, aurrealdeak baino ez ditugu kontserbatu, jauregiaren barrualdea berreraiki egin dutelako, bertan kultur etxea jartzeko. Alboetako aurrealdeek eutsi egin diete lehengo eraikineko osagai interesgarriei; puntadun arkua duen ate bat dago, adibidez, ziur asko berriro erabilia.

3.6.2. GALDONA JAUREGIA

Galdona jauregia Mutrikun dauden eraikin zibil barrokoen artean monumental eta bitxienetakoa da. Haren lerro soilak herriko beste jauregi batzuenen antzekoak dira –esaterako, Arrietakua eta Olazarra jauregietan daudenen bertsuak–, baina Txurruka plaza ixteak balio berezia ematen dio. Hortaz, ikuspuntu «paisajistikotik» begiratuta, herriak Aro Modernoan abiatu zuen hirigintza proiekturik arranditsuenetakoa da.

Galdonatarrek aspalditik ageri dira Mutrikuko dokumentuetan. Erdi Aroan ageri ziren jada. Aspaldikoa da Udalarekin duten lotura ere. Pedro Peres Galdona zelakoak «vesyno de la villa de Motrico recibió en representación del municipio la alcabalas de la villa en 1498»¹⁹⁰. Aro Modernoan, berriz, Andres Galdona ermandadeko alkate gisa azaltzen da 1605eko agirietan, eta errejidore gisa 1614, 1615 eta 1628koetan¹⁹¹. Juan Galdona Muñozek eman zuen jauregia eraikitzeko agindua. Sevillan jaiotako gizon hura Mutrikuko prokuradore batzarkide izan zen 1684an, eta Santiagotarren Ordenako zaldun¹⁹². Clara Mizkiarekin ezkondu, eta leinuaren adar bakar batean bildu zituen bi abizenak.

Jauregiak dituen berezitasunak apenas ikusiko ditugu herriko gainerako jauretxe barrokoetan. Hasteko, herria babesten zuen harresitik kanpo eraikitako bakarra da. Izatez, gerora Kosme Damian Txurruka plaza izango zenean eraikitako lehenengo eraikin monumentalak da. Jauregitik metro gutxi batzuetara, porturako bidean, Arriturriagako atea zegoen XVI. mendearen amaieran, harresitutako eremuko garrantzitsuenetakoa zena. Dokumentuen arabera, merkatuak eta azokak egiteko erabiltzen zuten kanpoko eremua, hainbat landetxek osatzen zutena; ondorioz, haren diseinua eta ugazaberia ez zegoen barnekoa bezain zehaztuta. Ia karratua den lursail batean dago eraikia; mehelin bat baino ez du partekatzen eta lorategi pribaturako tartea du, ezohikoa Mutrikuko arkitekturan.

Eraikinak hiru solairuko prisma orekatua eta bi fatxada ditu; batek plazara ematen du, eta besteak lorategira. Parametro guztiak bikain eskuairaturiko harlandu erregularrekin daude amaituta. Lorategiko fatxadaren erdialdean, ordea, okerrera egiten du materialen kalitateak, baita eraikin osoaren dekorazioak ere. Geroago Montalivet jauregian ikusiko dugun bezala, harlanduen kalitateak eta parametroen dekorazioak lotura zuzena zuen eraikinaren ikusgarritasun eta protagonismoarekin. Horregatik, herritarren agerian ez dauden fatxadetan ezin hobeto ikusten da harrizko «erakusketa» horiek zuten antzerki eta itxura kutsua. Presentzia eta kalitate eskasagoko harlangaitzekin konpondu zuten.

Baoek forjazko balkoiak dituzte, eta oso dekorazio soila: marko lauak eta belarritxo arinak baino ez dituzte goiko angeluetan. Solairu bakoitza inposta korritu lau batekin dago



Galdona jauregiaren ikuspegi orokorra, plazatik behatuta.



Galdona jauregiko
teilatutegala.

nabarmenduta. Ornamentuzko elementuak forjazko balkoietan daude bilduta, zur zizelkatuko teilatu hegal landuan eta garai bateko hesiko ateari begira zegoen armarri angeluar handian. Agian teilatu hegala bera izango da eraikinaren zatirik landuena. Hainbat profiletako molduraz eginiko harlanduz eraikitako irtenguneetan, hegal bat muntatu zuten landutako zurezko habeen gainean, eta floriak bitarteko plaketetan. Diseinu horrek jarraitzaileak izan zituen herrian. Olazarra jauregiari, adibidez, antzeko akabera eman zioten. Horrez gain, teilatua apaintzeko erabili zuten usategia ere hor dago oraindik, baita ekialdean erantsitako iturri bat ere, XVII. mendearen amaieran datatutakoa¹⁹³.

Ohikoa den bezala, ornamentuzko elementu eskultorikoak armarrarian daude islatuta. Lumazko motots tradizionalari zutikako bi lehoi erantsi zizkieten, armarraria bera kokatzen den kartelari eusteko. Armarraria laurdendua da: lehenengo zatian galdonatarren armak ditu (uraren gainean uhinak eraginez igarotzen den beltxarga eta zuhaitza), bigarrenean intsaustitarrenak (zuhaitza eta bi otso), sarasuatarrenak hirugarrenean (gaztelua zerrenda horizontalen gainean) eta bi zutikako lehoi aurrez aurre eta zuhaitza, azkenik.



Galdona jauregiko armarraria.



Galdona jauregiko kasketa.

3.6.3. ARRIETAKUA JAUREGIA

Kosme Damian Txurruka plazatik Kondekalerantz abiatuz gero, laster egingo dugu topo Arrietakua jauregiarekin. Erdi Aroko hirigintzari jarraiki eginiko kale estuen artean dago jauregi handi hau, eta haren bolumenaz jabetzeko badiaren beste aldeko mendixketatik erreparatu behar diogu. Kalean, ordea, hegal nabarmenen, zabaldutako arroparen eta forjazko balkoien artean, bi armarri barroko zoragarriek erakartzen dute gure arreta.

Txurruka etxea izenez ere ezagutzen da eraikina, eta Mutrikuko kondeena da gaur egun. Titulartasun aldaketa horiek kalearen izenari daude lotuta, baina nahasmena sortzen dute izenaren eta jatorriaren inguruan. Antonio Gaztañetak eraikiarazi zuen jauregia, Erregearen Itsas Armadako teniente jenerala zenak, XVIII. mendearen lehenengo herenaren amaieran. Haren leinuak garrantzi handia zeukan XVIII. mendeko lehenengo erdialdean Mutrikun zeuden eliteen artean. Arrietatarren dorretxea zegoen lursailean eraiki zuten. Horregatik, lursailaren eta eraikinararen titulartasuna duela ia berrehun urte aldatu bazen ere, gaur egun oraindik ere Arrietakua da etxearen toponimo ofiziala. Agiriak diotenaren arabera, 1727an eman zuten etxea eraikitzearen enkargua, baina alboko lursailekin arazoak sortu zirenez, bi urte atzeratu zuten eraikuntza lanen hasiera. Bitarte horretan hil egin zen Antonio Gaztañeta, Madrilen, eta haren alargun Jacinta Urdinsuren eskuetan gelditu zen obra. Kontratu berri baten bitartez, honako konpromisoa hartu zuten Azkoitiko Juan Lizardi harginak eta Azpeitiko Bernardo Eiguren arotzak:

Executar las obras de cantería guardando en su execucion la forma y conforme demuestran la plantta y su alzado que para ello tiene firmados su Excelencia la dicha planta del segundo alto y el alzado de la fachada; y las demas planttas que requiere en los otros tres suelos le han de obedezér a la dicha plantta, solo se diferenciara la primera que es desde los cimienttos hasta el primer alto han de yr todas las dibisiones de paredes de manposttería y los marcos o lados de los huecos han de ser de piedra labrada a picon, como tambien todos los de la fachada como parecen pinttadas en dicho su alzado; y así mesmo las puertas y ventanas que



Arrietakua
jauregia.
Teilatuen
gaineko
ikuspegi
orokorra.



Arrietakua jauregia,
kaletik behatuta.



Arrietakua jauregia. Antonio Gaztañeta.

llebare de la partte de Alegría han de ser lo mismo de piedra labrada menos las tres ultimas y así mismo han de ser de piedra labrada cinco gradas que ha de ttener desde el zaguan astta la escalera y la primera grada de dicha escalera con su bozel y las esquinas del pattio desde la superfizie de la ttierra astta el quartto altto y ttres puerttas y una benttana en ella ttodas de piedra labrada, y ttodo lo demas desde los cimientos astta el dicho quartto altto de pared de mamposttería y el medianil que demuestrta la plantta lo mismo desde los cimienttos astta el dicho quartto altto, y la caja de la secreta astta el segundo altto ttodo zerrada de pared de mamposttería menos la puerta de limpiar para adentro que sera de piedra labrada; y una diuision entre la dicha secreta y escalera desde su zimiento astta dicho quartto altto para que no comuniaque el edor como pareze en dicha plantta; Y asi mismo ttodo el lienzo de la fachada se debere executtar de pared de mamposttería menos las esquinas y los marcos o lados de las puertas y benttanasy como ba referido¹⁹⁴.

Kontratuan zehaztu zuten bezala, 1731ko urtarrilean bukatu zituzten lanak, bi mila ezku baina zertxobait gehiagoren truke¹⁹⁵. Ondoren, alargunaren¹⁹⁶ eta bien seme Joséren egoitza bihurtu zen Gaztañetaren omenez sinboloz beteriko armari bikaineko jauretxea. Mutrikun 1717an bataiatu zuten José Bernardo Antonio Gaztañeta Urdinsok aitaren karrera militarri heldu zion itsasoan, eta fragatako kapitain izatera iritsi zen; ondorioz, karrera militarren mende egon zen Mutrikurekin izan zuen harreman fisikoa. 1756an, ama hil ostean, kapilautza bat sortzen saiatu zen, haren testamentuan jarritakoa jarraituz, eta bertan Mutrikuko semea zela baina egoitza Cádizen zuela adierazi zuen («vecino de Motrico y residente en Cádiz»)¹⁹⁷. Sendiaren leinua, baina, Arrietakuatik oso urrun desagertuko zen. Haren semea, maiorazkoaren oinordekoa, 1772an hil zen Cádizen, artean haurra zela¹⁹⁸. Ordurako hilak ziren haren gurasoak ere, eta maiorazkoa Nafarroako lehengusina baten esku geratu zen: M^a Josefa Tirapu Madariaga Gaztañetaren esku, hain zuzen ere. Haren ondorengoek urtetan eman zieten errentan txurrukatarreri, eta epaileen esku-hartzearekin ebazitako makina bat arazo izan zituzten. Bada, ondorengo haien arabera, 1847koa omen da eraikina. Orduan eskuratu zuen Txurruka sendiak etxearen gaineko jabetza¹⁹⁹.

Ikus dezagun poliki haren fatxada. Erdi Aroko partzelazioaren bi unitateren gainean eraiki zenez, jauregiak askoz ere garrantzi txikiagoa duten aldameneko eraikinekin partekatzen ditu horma mehelinak. Kondekalera ematen duen fronte monumental zabalak harlandua du lehenengo bi solairuetan, eta harlangaitz luzitua azken bi solairuetako hutsuneetan. Ohikoa den moduan, eraikin itzeleko lau solairuak inposta lau korrituen bitartez daude azpimarratuta. Dauden apaingarri apurrak armarrietan, balkoietako forjetan eta zurezko hegal nabarmenean daude kontzentratuta.

Fatxadako lehenengo solairuan bi armari barroko zoragarri ditu, ugazabaren izaeraren lekuko artistiko direnak. Bi armarrietan, Antonio Gaztañetaren lau abizenen armak ageri dira: eskuinaldean, Gaztañeta eta Mezeta; ezkerraldean, Iturribaltzaga eta Maia. Ikus dezagun xehetasun handiagoarekin leinu bakoitzak fatxadan zizelkaturikoa. Gaztañeta zatituta dago: aurrez aurre jarritako bi zutikako lehoi eta hiru lirio ditu alde batetik, eta enborrean gurutzatuta bi otso dituen zuhaitza eta dorrea ezkerraldean. Bizkaiko Mezetak orla darama, eta eremuaren barruan haritza eta ezkurra ditu uraren gainean. Iturribaltzagak eremu laurdendua du, lirio gurutzearekin eta lau kate-mailarekin 1.an eta 4.ean, eta takeatua 2.ean eta 3.ean. Azkenik, maiatarrenak gaztelu bat du hildako bi mairuren gainean, eta soldadu bat dorrean, ezpata eta bandera daramatzala²⁰⁰.

Horrez gain, XVIII. mendean ohitura handia zeukaten leinuaren armei ugazabaren biografia-
ren eta izaeraren ezaugarri esanguratsuenak islatzen zituzten elementu ikonografikoak eranste-
ko. Horregatik, galeoi handi baten branka eta popa, mapak, nabigazio liburuak, sextante bat, iparro-
rratz bat, hondarrezko erloju bat, lurbira globo bat eta abar ageri dira armen atzean, eta aingurak,
arpoiak, kanoiak, balak eta itsasoko olatuak azpian.



Arrietakua jauregiko portalea eta armarriak.



Arrietakua jauregiko armarria.



Arrietakua jauregiko
armarria.

Armagintzaren eta eraikinaren sustatzailearen aipamen biografikoek berretsi egiten dituzte leinuaren heraldikarekin datozen sinboloak. Hortaz, López de Alenen arabera, idazle ezagunen aldetik goraiipamen ugari jaso zituen Gaztañetak. Haien arabera, gizon horren itsasontzigintza sistema jarraitu zuten Espainian, lurrunezko ontziak iritsi ziren arte. Mutrikun jaio zen, 1656ko abuztuan, eta hamabi urte zituela hasi zen nabigatzen. 1691rako Erregearen Eskuadrako pilotu nagusia zen. Garai hartan, *Norte de navegación* izeneko lana argitaratu zuen. Geroago, itsasontziak eraikitzeko proportzioak eta arauak biltzen zituen tratatua argitaratu zuen, eta ospe handia lortu zuen belaontzien azken garaietara arte. Ozeano Atlantikoan, Mediterraneoan eta Indietako itsasoetan esplorazio gehien egin zuen itsasgizonetako bat izan zen. 1718rako marinako teniente jenerala zen. Urte horretan, ingelesek garaitu egin zuten Sirakusako uretan Espainiako ontzidiaren buru zena. Baina porrot eginagatik ere, inork ez zuen Gaztañagari buruzko iritzi ona aldatu, ezta Filipe V.a erregeak ere, zenbait ontzidi bidaltzen jarraitu baitzuen. Horietako bat onik atera zen, Santa Maria lurmuturrera bidali nahi zuten etsaien kopurua handia izan arren. Horregatik, urteko 2.500 dukateko gainsoldatako ordaina jaso zuen (1727. urtea)²⁰¹.

Arrietakua jauretxearen historia ez da ugazabaren bizia itzaltzearekin batera amaitzen, ordea. XVIII. mendearen bigarren erdian, txurrukatarrak bete zuten Gaztañeta leinuak desgertzean utzitako hutsunea. Herriaren historia modernoan garrantzi handikoa izandako familia horren ospeak nolabait estali egin zuen jauregia eraiki zutenen protagonismoa. Izan ere, sendiko kideetako batek sekulako sona baitzuen herritarren artean; zehazki, Kosme Damian Txurrukak, kutsu erromantikoak zituen heroiak. Dakigun bezala, txurrukatarrak XIX. mendearen erdialdera bihurtu ziren jauregiaren jabe ofizial, baina askoz ere lehenago hasi ziren bertan bizitzen. Noiz? Ez dakigu zehatz-mehatz. Eta horixe da oraintxe ezagutuko dugun arazoaren gakoa.

Historialari jakintsuen artean, urtetan pil-pilean egon da Kosme Damian Txurrukaren jaiolekuaren inguruko eztabaida. Huskeria dela esango duzue. Baliteke. Baina ez da batere kontu erraza izan. Bibliografia espezializatuaren barruan²⁰², bi dira jaiolekua izatearen ohoreagatik lehiatu diren aukerak: Arrietakua batetik, eta San Gil kalean dagoen Garduzakua bestetik²⁰³.



Arrietakua jauregia.
Kosme Damian Txurruka.

Aukera biak aurreko mendean egindako idazkun bitan zeuden jasota. Alde batetik, honako idazkun lakonikoa dago Arrietakuako atearen ondoan: «COSME DAMIÁN DE CHURRUCA (1761-1805), II CENTENARIO MCMLXI»; bestetik, XX. mendearen erdialdeaz geroztik txurrukatarren armak ikus daitezke Atxitxingo jaitsierako atean.

Idazkunak dioen bezal, 1761ean jaio zen Kosme Damian. Haren gurasoak 1750ean ezkondu ziren. Francisco Txurruka (1727-1787) Mutrikuko eskribaua zen 1749az geroztik; M^a Teresa Elortza Iturritza Juan Domingo Elortzaren iloba eta oinordekoa zen; hots, Erregearen idazkaria eta Asturiasko printzearen *Corpseko Sommeliereko* kidea (1729). Familiako eta laneko loturak zirela-eta, José Antonio Gaztañetaren eta M^a Teresaren anaia zen Juan Iturritzaren konfiantzako gizon bilakatu zen Francisco. Ziur asko laneko, familiako eta maitasunezko lotura horiek izan ziren txurrukatarrak Arrietakuan bizitzera eraman zituztenak²⁰⁴. Bertan bizitu ziren mendearen bigarren erdialdean Kosme Damianen ama eta ahizpa.

Familia jauregian 1761ean baino lehen hasi ote zen bizitzen jakitean dago koska. Urte hartan jaio zen marinela. Duela gutxi, zalantza guztiak uxatu dituen eskutiz bat eman da argitara. Gutun horretan, sendiak Arrietakua eskuratzeko interes bizia zuela adierazi zuen 1815ean Ignacio Zuatzolak, Vicenta Txurrukaren (1759-1838) senarrak: «Como a muchos años ocupamos esta casa la tenemos una particular aficion y mas mi muger que nacio y se crio en ella»²⁰⁵. Argi dago, beraz. Vicenta 1759an jaio zen etxe hartan. Familia orduko Arrietakuan bizi bazen, pentsatzekoa da anaia Kosme Damianek ere leku bera izan zuela sorleku handik bi urtera.

Gogoan izan 1736an hila zela Maria Jacinta Urdinso, Antonio Gaztañetaren emaztea. Litekeena da haien seme Jose Antoniok (1717-1767) orduko Cádizen izatea egoitza. Hantxe ezkondu zen, mendearen erdialdean. Geroztik, ezin hobeto dokumentatuta dago txurrukatarrak Arrietakuan izan zirela. Aipatutako Vicenta, etxean gelditu zenean, jauregia beste senide batzuekin partekatzen hasi zen beharbada. Hala, 1785 inguruan etxea Juan Iturritzari alokatu ziotela diote agiriek. Parrokiaren benefizioduna zen hura²⁰⁶, eta ahaidea amaren aldetik.

Gainera, eraikinaren ondare bilakaera ulertzea errazten duen historia dokumental oparo horrez gain, Arrietakuak badu beste berezitasun bat Antzinako Erregimenaren amaierako jauntxoaren bizitzaren lekuko bitxi eta bakarra bilakatzen duena. Gaur arte, eraikinaren bizitzaren zatirik handiena txurrukatarren leinuari loturik egon da, eta XX. mendearen hasieratik aurrera Mutrikuko kondeei. Izatez, Arrietakuak bizi handia izan du eta dauka, eta oraindik ere eusten die jatorrizko ezaugarriei²⁰⁷.

Horregatik da bitxia. Mutrikun dauden jauregien artean, eraiki zeneko barne antolaketa, altzairu eta dekorazio berberak dituen bakarra da. Gainerakoak zatitu egin dituzte, eta etxebizitza indibidual bihurtu. Atari komunitario dira egun haien portaleak eta eskaileren kutxak. Mutrikuko kondeen ardurari esker, gainera, etxean izandakoen objektuen bilduma interesgarria osatu dute: dokumentuak, liburuak, objektu pertsonalak, koadroak eta erretratuak; batez ere José Antonio Gaztañetarenak, Kosme Damian Txurrukarenak eta lehenengo kondea izandako Evaristo Txurrukarenak. Duela gutxi eginiko deskribapen baten arabera, barnealdean

Pío Barojaren eleberrietan bezalako atmosfera dago. Erraz irudika ditzakegu bertako sofa isabeldarretan Azkoitiko zalduntxoak, gerra karlistetako marinel eta jeneralak, politikari buruz su eta gar eztabaidatzen, Londresko erbestetik joan-etorrian, egongelako pianofortea jotzen eta abesten, konspirazioak antolatzen²⁰⁸.

3.6.4. OLAZARRA-MIZKIA JAUREGIA

Olazarra jauregia Barrenkalen dago, herriaren hegoaldean. Arrietakua jauregia bezalaxe, lursail bikoitz baten gainean dago eraikia, eta mehelinak partekatzen ditu alboko etxeekin. Kalea estua izatean, ez da oso egokia etxearen gaineko ikuspegia, eta ahulduta gelditzen da jauregiaren monumentaltasuna. Hurbiletik, armarri ikusgarriak bereganatzen du gure arreta guztia.

1635eko urtarrilaren 6an Mutrikun bataiatu zuten Lucas Olazarra Mizkia kapitainak eraiki zuen jauregia, XVII. mendearen amaieran. Haren aita ere herriko errejidore izan zen, eta 1683ko dokumentuen arabera alkate. Leinuaren noblezia sendotu egin zen 1692an, Santiagotarren Ordenan sartu zenean. Gertaera horrek anekdotikoa badirudi ere, garrantzi berezia du ikuspuntu kronologikoan, jauregiaren eraikuntzari begira. Armarrian Santiagoren gurutzea egoteak mendearen azken urteetan egin zutela adierazten digu. Catalina Andonegi emaztearekin batera, Barrenkaleko maiorazkoa sortu zuen, eta bertakoa da jauretze hau. Ondorengorik izan ez zuten, bien heriotzaren ostean murgatarren eskuetan geratu zen etxea.

Egitura sinplearen ezaugarri estilistikoak Galdona jauregiaren bertsuak dira. Leinuaren armarri handiaz gain, eraikin dotore hau harlanduzko fatxadagatik nabarmentzen da, baita burdin forjatuzko balkoi handiengatik eta habeen artean marrazki zizelkatuak dituen hegal zabalagatik ere. Teilatu hegaleko zur landuaren motiboak Galdona jauregiko hegalean aurkitzen ditugun berberak dira²⁰⁹. Ohikoa den moduan, fatxada nagusiak beheko solairua eta beste hiru maila ditu, forjazko balkoi izugarriekin. Baoen dimentsioak ere txikiagoak dira ganbarara igotzen garen heinean. Elementu apaingarriak ez dira asko; armarriaz eta forja torneatuez gain, baoen markoak daude,



Olazarra jauregiko fatxada.



Olazarra jauregia. Teilatu-
hegaleko arotzeria.



Olazarra jauregiko
eskailera.

moldura lisoekin eta belarritxo txikiekin, baita solairu bakoitza azpimarratzen duten inosta lau tradizionalak ere. Barnealdean, jatorrizko eskailera barrokoa dauka, kutxa zabalarekin eta eskubanda torneatuekin. Horrela, orekatu egiten da lursailak duen desnibel zorrotza, iparraldean bi garaiera baino ez baitauzka.

Armarri barroko itzela, herrian daudenen artean apaingarri gehien dituen, Gipuzkoako ederrenetako bat da²¹⁰. Has gaitezen armetatik, dekorazio elementu nagusietatik. Erdiko ezkurtua lau zatitan dago banatuta; horietako bakoitza ordezkatzeko duen familia eta abizen banari dago eskainita: lehenengoak olazarratarren zuhaitza darama; bigarrenak mizkiatarren armak ditu eta laurdendua dago; 1. eta 4. laurdenetan otsoa du alderik alde, eta 2. eta 3. aldeetan lirio lorea;

hirugarrenak gaztelua eta lirio lorea ditu; eta laugarrenak zutikako lehoi handi bat. Leinuaren sinboloak aberastu egiten dira mototsa duen kasket tradizionalekin eta hondoetan korapilatzen diren arroakai ugariekin; erditik beherako zatian, bost haur simetriko ageri dira, orbelen eta ornamentuzko lirioen artean. Behean, haurretako hiruren atzean, erdigizaki erdianimalia itxura duen maskaroi bitxi batek azken lirioa erakusten digu, burla egingo baligu bezala. Garrantzi eskultoriko txikiagoa duen beste armarri bat dago Erdikokalera ematen duen atzealdeko fatxadan, armarri nagusiaren osagai berak dituena.



Olazarra jauregiko
armarria eta balkoi
forjatuak.



Olazarra jauregiko
armarriaren apainketa.

3.6.5. MONTALIVET JAUREGIA

Kaitik abiatuta Tranpakalen gora goazela, ikusgarria da oso Montalivet jauregia. Kokapen aparta du herriaren egituran. Ziurrenik, herrian ikuspegi onenak dituen eraikin historikoa da. Erdi Aroko parrokia zaharra desagertu zenetik, Berriatua dorrearen gainetik behatzen du badia, kaira garamatzan aldapa handia gailenduta.



Montalivet jauregia.
Tranpakaleko fatxada.

Jauretxearen alderdi guztiak dira erakargarri eta interesgarri. Gipuzkoan barrokoa landu zuten arkitekto garrantzitsuenetako batek diseinatu zuen: Francisco Iberok, hain zuzen. Geroago hitz egingo dugu haren izaerari buruz. Artistaren eskua ezin hobeto antzeman daiteke lursailaren aprobetxamendua ikusita, fatxaden inpaktua eta esangura azpimarratu nahian. Leinu zaharrekoa zen eraikinaren jabea, eta Mutriku XVIII. mendean zeuden eliteek maiorazkoak eta herentziak banatzeko zituzten ohitura bitxiak erakusten dizkigu.

Izenak berak zerikusi gutxi du gure eskualdeetako tradizio toponimiko eta onomastikoekin. Montalivet abizenak Biarnon du jatorria. Beltrán de Montalivet, Lizosen jaio eta Mutriku bizi zena, Estefania Agirrerekin ezkondu zen 1629an. Seme bat izan zuten 1642an: Juan Bautista Montalivet Agirre. Beste kasu batzuetan ikusi dugun bezalaxe, eliteek elkarren artean ezkontzeko joera zuten, sarea sendotzeko. Horregatik ezkondu zen Josefa Iturrizaltzaga Korostolarekin²¹¹. Eta horrela sortu zen montalivetarren eta iturrizaltzagarren arteko lotura eta jauregiaren ugazabaren jatorri noblea.

José Iturrizaltzaga Sánchez-Revata Montalivet y Forjado, Oñako baroia, zen eraikinaren ugazaba. Arranditsua gero! Kontuak kontu, herriko eliteen eguneroko bizitzari buruzko aztarnak ematen dizkigute. José delako hura Ica herrian (Peru) bataiatu zuten 1702ko uztailearen 13an. Juan Bautista Montalivet Agirreren eta Josefa Iturrizaltzaga Korostolaren semea zen. Iturrizaltzagarren Zubikoa etxeko ondasun eta jabetza guztiak oinordetzan hartu ahal izateko, aitaren abizenaren aurretik amarena jartzeko baldintza onartu behar izan zuen, «abizenari jarraipena emango zionik ez baitzen gelditu, Mutriku ez baitzen seniderik geratzen»²¹². 1749an, Oñako baroi izendatu zuten. Ondorengorik gabe hil zen.



Montalivet jauregia.

Artearen ikuspuntutik, Mutrikuko jauregi finena dela esan dezakegu. Francisco Iberok diseinatu zuen, Gipuzkoako XVIII. mendeko barrokoaren arkitekto garrantzitsuenetakoa zenak. Ikusi dugun bezala, Ibero arkitekto ezaguna zen herrian. Beste jarduera batzuen artean, parrokia zahararren mendebaldeko fatxada zaharberritzeko proiektua egin zuen zenbait urte geroago. Haren izaera eta lana ezinbestekoak dira Gipuzkoako XVIII. mendeko bigarren erdialdeko arkitektura ulertzeko. Oraindik ere ikusgai ditugu Mendaron, Elgoibarren, Laurgainen, Andoainen, Donostian, Usurbilen, Hondarribian, Hernanin, Gaztelun, Lasarten, Ordizian eta beste hamaika tokitan eginiko lanak. Egia esateko, amaigabea da hark eginiko lanen zerrenda.



Montalivet jauregiko fatxada nagusiaren xehetasuna.

Arkitektoak 1753an hartu zuen Montalivet jauregia diseinatzeko eta eraikitzeko konpromisoa. Haren planta lau angelukoa da, antolamendu konpaktukoa. Bi solairu nagusi ditu. Galdona jauregiaren kasuan bezalaxe, arkitektoak portura ematen duen fatxada nagusiaren angelua monumentalizatzeko proiektua proposatu zuen. Badiara ematen zuen lursailari ahalik eta probetxu handiena ateratzen saiatu zen. Horretarako, bao handiago eta argitsuagoak ireki zituen, profil biribildu eta eliptikoekin. Hain zuzen ere horixe da eraikinaren diseinuaren ezaugarri esanguratsuenetako bat. Francisco Iberok, garaiko joerei jarraituta, ñabartu egin zituen ertzak, baita fatxaden txertatze angelua eta landutako zurez eginiko habez apaindutako teilatu hegala²¹³.



Montalivet jauregiko teilatu-hegala.

Batez ere formak ñabartzeko *rococo* antzeko estilo horrek bereizten du etxea herriko gainerako jauregietatik, diseinuaren aldetik lehorrago eta gogorragoak baitira. XVIII. mendean beste proposamen dekoratiboago eta teatralagoetarantz egin zuen bilakaera estilistikoa erakusten digu. Teatralitate hori parametroekiko tratu desberdinean ikus daiteke materialei dagokienez, nobleak baitira kalera begira, bao handienak dauden lekuan; harlangaitzez eginak eta irregularrak dira kaira ematen duen hegoaldeko fatxadan, eta benetan kalitate kaskarrekoak beste bietan. Baoen antolamenduaren kasuan ere, bistan da ikuspegi onenetan daudela kontzentratuta: erritmikoak, erregularrak eta ornamentudunak dira kalera ematen duten aldeetan, eta kokapenari dagokionez arbitrarioak bigarren mailako bi fatxadetan. Galdona jauregiko lorategiaren fatxadan bezalaxe, Montaliveten hegoaldeko frontea gutxi gorabehera haren hedaduraren erdira arte dago artikulatuta, maskaroi angeluarrak proposatzen duen jolas artistikoari jarraiki; beste erdiak, ordea, material ez hain noblez eginiko paramentua du; baoak modu arbitrarioan daude antolatuta, eta eskuairatuta besterik ez daude. Zalantzarik gabe, bitartekoak aurrezteko eta itxuran efektismoa bilatzeko jokatu zuten horrela. Berriz ere, barrokoa bete-betean.

Kasu honetan, ordea, baoen enmarkatze molduratuek erakusten duten dekorazio apainduaz gaindi, sarrerako atetzarreko pilastra kajeatuez edo solairu noblearen izaeraren eta ganbararen izaeraren artean eginiko bereizketaz gain, agerikoa da oso arkitektoaren kalitatea. Baoen tamainaren bidez, argitasuna eman nahi izan zioten barnealdeari. Aintzat hartu behar da lursailaren dimentsio txikiak eragotzi egiten zuela argi patio bat edo argiztaturiko eskailera monumental

bat eraikitzea. «Balkoi korritu handiak arkitektura kalearekin lotzeko joera barrokoari jarraitzen dio»²¹⁴. Ertzera luzatzeko ideiak horrek areagotu egiten du haren nagusitza Tranpakaleko eta nasetako aldapa luzearekin duen harremanean. Ate nagusia lursailaren zatirik baxuenetik kanpo kokatu zuen, barnealdeari bolumen eta, ondorioz, monumentaltasun handiagoa emateko. Elementu horiek guztiak arkitektura finaren ezaugarri dira, eta obra zibilean zein erlijiosoan maila handia zuen arkitekto baten lekukotza ematen digute.

Gainerako jauregi barrokoak bezala, protagonismo handia du familiaren blasoiak, eta izkinan kokatuta egoteak areagotu egiten du haren garrantzia, itsasoari eta kaiari begira dagoen branka modukoa izango balitz bezala. Leinu nobleen erakustaldi konplexu horren erdialdean, montalivetarren armak ikus ditzakegu, laurdenduriko ezkutuarekin. Ezkutuaren 1. eta 4. laurdenetan zutikako lehoiak ageri dira, eta mendia eta herritarrak erakusten dituen paisaia 2. eta 3. laurdenetan, bi gindaxekin errematatuta. Gainerako armak haien inguruan daude antolatuta, eta guztira zazpi kuarter daude. Buruan iturribaltzagatarren armak daude, gaztelua eta hanketan otsoa dutela. Egoera txarra den arren –pitzadura kezkarri bat du goialdean–, deigarriak dira haren kalitatea eta lanketaren fintasuna. Iberok berak diseinatua eta landua izan daitekeela adierazi dute zenbaitetik. «Ez dago mekanikoki egina. Garai hartan Madrilgo Errege Jauregian aritzen ziren zizelkarien lana gogorarazten digu»²¹⁵. Leinuak biltzen dituen eremu zabalaren osagarri, ilargierdia, aingurak, kasket koroaduna, bolutadun hegalak, lisak, eta abar ageri dira. Eta sinbolikoki leinuarekin loturiko parafernalia marinela eta militar guztiak.



Montalivet jauregiko
armarria.

3.6.6. BESTE JAURETXE BATZUK

Badira udalerrian adierazi ditugun eraikinen ildo bereko beste zenbait etxe, baina askoz ere elementu apalagoekin. Tipologia xumeagoa dute, eta mehelinean artean daude eraikita. Laburragoa dute fatxadaren luzetarakoa, ohiko hiru lursailak beharrean bi hartuta. Batzuek armarriak dituzte eta besteek ez. Ezkutu noble horietako batzuek eraikin modernoan fatxadetan jarri dituzte. Oro har, haien monumentaltasuna zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta hobeto integratzen dira herriaren egiturari; azkeneko, aspaldian eraikitako etxe arrunt baina sendoak dirudite.

Horien artean esanguratsuenak Erdikokaleko 7.era eta Kondekaleren atzealdera ematen duen eraikina da beharbada, Gaztañeta jauregiaren parean dagoena. Fatxada nagusia izan zenak oso estilo sinplea du, bao arkitrabetuekin, forjazko balkoiekin eta zurezko teilatu-hegal monumentala-rekin. Orduko joerei jarraiki, nobleak dira kalera ematen duten materialak, ongi landutako harlanduzko kateak ditu angeluetan, eta inposta lauak fatxadaren hiru mailak bereizteko.

Eraikina, gaur egun ikusten dugun moduan, ia laukia den lursail baten gainean eraiki zuten XVIII. mendearen bigarren erdialdean. 1759an idatzitako testu baten arabera, «aurreko eraikina oso hondatuta eta galduta» zegoen, eta berreraikitzea erabaki zuten²¹⁶. Ez dakigu zenbateraino esku hartu zuten. Fatxadaren antolamenduari begiratu gero, elementu zaharragoak ere badira, herriko beste eraikin zaharrago batzuetan ere ikus ditzakegunak. Nolanahi ere, aipatu ditugunak baino txikiagoa da luzeran, eta fatxadan hiru bao baino ez ditu.

Gure harridurarako, etxearen armarrria ez dago Erdikokalera ematen duen fatxada nagusian, baizik eta atzekoan, Kondekalera ematen duen bestean, Mutrikuko kondeen jauregiaren parean alegia. Armarrri barroko ederra da. Kanpoaldean ohiko dekorazioa du: bolutak, arrokaia, arrano hegoak eta kasketa lumazko mototsarekin; ezkutuak eremu laurdendua du, lehenengoan andonegitarren armekin (basurdea zuhaitzaren gainean) eta laugarrenean barrenetxetarrenarekin (otsoak eta kateak); uraindarrenak digu bigarrenean (sei animali), eta aginagatarrenak hirugarrenean (berriz ere laurdendua, gurutze loreduna, zuhaitz bikoitza otsoarekin eta hiru xingola).

Bi dira ohiz kanpoko kokapen horri buruz ematen diren azalpenak. Iturri batzuen arabera, 1963an eraitsitako etxe batetik hartu eta eraman zuten hara. Hortaz, armarrria aprobetxatu egin zutela esango genuke, haren apaindura balioa zela-eta. Arma ezberdinen baturak Antonio Andonegi eta Magdalena Urainen arteko lotura erakusten du. Haien seme Juan Bautista eta Juan Felipe izan ziren armarrria eraikitzearen enkargua egin zutenak²¹⁷, XVIII. mendearen erdialdean. Ondorioz, eraikinak ez luke armarrriarekin inolako zerikusirik izango. Dena den, ez dago adostasunik gai horren inguruan. Beste iturri batzuen arabera, aurreko mendeko 4. hamarkadan lekualdatu zuten armarrria Erdikokaleko fatxada nagusitik²¹⁸. Hogeita hamarreko hamarkadako hainbat argazki halaxe erakusten dute.



Erdikokale 7ko etxeko armarrria.

Maila txikixeago batean, beste eraikin batzuk ditugu, oso ezaugarri bertsuak dituztenak. Oro har, hiru solairuko eraikinak dira, ongi landutako harlanduz eraikitakoak, inposta lauekin zatituta. Inposta horiek ere baoak enmarkatzen dituzte, forjazko balkoiekin eta hegal nabarmenekin. Aurreko jauretxeekin alderatuta, txikiagoa da

horizontalean duten garapena eta, ondorioz, lurraren zati txikiagoa hartzen dute. Ez dute leinuaren armarririk, eta dekorazioaren aldetik oso-oso sinpleak dira. Merkatarien eta burgesen etxebizitzak izan ohi ziren. Haien egoera ekonomiko onari esker, beren etxebizitzak jauregi nagusien moduan eraikitzeko aukera zuten²¹⁹. Horixe da Barrenkaleko Araingua etxearen kasua; hots, Luardo dorrearen parean dagoenarena. 1726an²²⁰ dago dokumentatuta, baina haren ezaugarri arkitektonikoak bat datoz aurreko mendeko azken urteetakoekin. Lursail karratu batean dago, eta kale nagusira ematen duen atetzar zuzena du. Bao guztiak simetrikoak dira; forjazko balkoi handi bat dute lehenengo solairuaren erdialdean, eta txikiago bat bigarren solairuan. Atzealdea harresi zaharraren itxieraren hondarren gainean eraiki omen zuten.

Atxixin eta San Gil kaleen artean ertza egiten duen etxetzar bat ere gordetzen du harlanduaren duintasuna. Garduzakua izenarekin dago jasota XVIII. mendearen amaierako agirietan. Argi patioa duten etxadi interesgarri baten zati da; dakigun bezala, auzoko ate eta atetzarretako batzuk herriko zaharrenetakoen artean daude. Leiho arkitrabetuak ditu, eta motibo geometrikoekin apainduriko teilatu hegala bat. Eraikinak bi lursail hartzen ditu ia karratua den oin batean.

Ate arkitrabetuaren eta lehenengo solairuko leihoaren artean marmolezko armari bat du, txurrukatarren armak daramatzana. Bereizgarri heraldiko moderno hori, antza, Alfonso Txurruka Calbetonek enkargatu zuen, aurreko mendean erdialdean. Etxea Francisco Txurruka Iriondok 1740. urtearen inguruan eraiki zuen usteari lotuta dago ate nagusiaren gainean duen kokapena; hots, Markina utzi eta bizitzera Mutrikura etortzean²²¹. Baina errege eskribaua 1749an etorri zen Mutrikura. Etxea, gainera, Maria Teresa Elortza Iturritzaren amarena zen. Hain zuzen ere, Maria Teresarekin ezkonduko zen handik urtebetera. Beraz, ez dirudi oso logikoa ezkontideek emaztearen etxea «berreraikitzeari» ekin ziotenik. Ezin ahaztu, bestalde, txurrukatarrek gutxienez 1759tik aurrera bizitu zirela Arrietakua jauretzean²²².

Harlanduzko eta keinu gogorreko etxetzar horiez gain, nolabaiteko garrantziko leinuentzat egindako armarietako batzuk gorde ditu Mutrikuk zenbait fatxada modernoren gainean. Udaletxeko eta Barrenkaleko armarriez gain, biak ere antzinako harresiari lotutakoak, bi harlandu eder kontserbatu ditugu, eliza zaharra bota zuten arte ia haren nabeari atxikiak zeudenak. Batek Beheko plazara ematen du; besteak, Modesto Txurruka plazara daraman pasabidera (kaiko pasadizoa). Has gaitezen lehenengoarekin. Eskultura barrokoaren adierazpen ederra da benetan. Arrazolatarraren armak irudikatzen ditu, eta leinuarekin zituzten loturak²²³. Motosdun kasket tradizionala dauka, albo bietan lanbrekinezko mantua eta kaskabiloak dituela. Laurdenduriko eremua du, lirio eta hegala bordurarekin. Lehenengo laurdenean arrazolatarraren zuhaitzak eta dorrea daude; bigarrenean olaldetarren barkua gerlariarekin; hirugarrenean hernani-urzelaitarren zeinua den arranoa oreina erasotzen; eta laugarrenean ametzatarren besantea irudikatzen duten zirkuluak.

Beste armarria, pasadizoaren barnean geratzen dena, nahiko ezkutuan dago, eremuaren dimentsio txikiak direla-eta. Hurbileko atetakoren batek profil zorrotza du; gorde diren elementu arkitektonikoen antzinatasunaren lekuko da, beraz. Armarrria herrian



Beheko Plazako armarrria.

daudenen artean artistikoenetako eta bitxienetako bat da. Txikia eta erliebe gutxikoa izan arren, konposizioa ez da lumadun ohiko kasketera eta kartelera mugatzen: atzean arrano bat du, baita bi agurereen buruak ere, alde banatan. Eremua zatitzeko, hegalezko eta lisezko borduraz baliatzen da. Arrazolatarren armak daramatza: zuhaitzen artean ageri den dorrea eta hernani-urzelaitarren arranoa eta oreina. Eremua oboidala da eta *rococo*a dirudi, hortaz, XVIII. mendearen bigarren erdialdean koka dezakegu. Aurrekoaren murrizketa direnez, familia edo leinu-lerro beraren ondatsunen artean zegoela ondoriozta dezakegu.



Kaiko pasabideko
armarria.

3.7. Hiri paisaia berriko nobleak, itsasgizonak, dontzeilak eta kapilauak

Nolakoa zen XVII. mendeko lehen urteetako Mutriku? Martínez Isastik herriak urte haietan zuen itxurari buruzko deskribapen guztiz interesgarria egin zuen:

Itsas portua da eta hirurehun tonara arteko kargak dituzten ontziak sartzen diren kaia du. Ontziolak daude bertan, mota guztietako galeoiak eta ontziak egiteko. Ontziak burdinaz edo beste salgaiekin bete, eta Sevillara eramaten dituzte, eta batzuetan Ternuara joaten dira bakailaotara. Lurrean geratzen diren marinelak arrantza arruntean aritzen dira, eta garaia denean Kantauri itsasoko kostaldetik igarotzen diren baleak harrapatzen, trebe oso. Eta horretan ibiltzen dira portu horretan (...). Plazatik itsasoa eta udaletxea ikusten dira.

Mahasti ugari zeuden Mutrikun garai hartan, eta mahats horiekin «ardo zuria egiten zuten, hurbil dagoen Askizun bezalaxe. Baita ardo beltza ere, txakolin izenekoa, eta mota guztietako fruitu eta barazkiak»²²⁴.

Isastik esan bezala, mutrikuarrek itsasoa, merkataritza eta arrantza zituzten bizibide. Mutrikuko herritarren, ekonomiaren eta ondarearen garapena zuzen-zuzenean dago aipatu berri ditugun objektu artistikoekin eta eraikinekin lotuta. Ondare artistikoa sustatzeko baliabide

oparoak testuinguru egokian kokatzeko, aberastasun iturri nagusiei egin behar diegu so. Dokumentazioak –sendoagoa eta aberatsagoa XVI. mendetik aurrera– herriko egoera ekonomiko eta sozialera hobeto hurbiltzeko aukera eskaintzen digu.

Nolakoa zen arrantza jarduera garai hartan? Behe Erdi Aroan baxurako arrantzarako egutegi bat egin zuten, urte osorako, eta XVI. eta XIX. mendeen artean egon zen indarrean. Ondorioz, baleez gain, beste bost espezia arrantzatzen zituzten normalean: atuna (udan eta udazkenean), itsas aingira eta sardina (udan batez ere), bisigua (azarotik martxora) eta legatza (azken hau sasoi luzeagoan ere har zitekeen)²²⁵. Miguel Asterrikaren hitzetan, XVI. mende amaierako arrantzale mutrikuarra berau:

Se pesca el congrio y merluza, tollo y mielga e congrio por la Cuaresma; y merluza y besugo por los meses de Diciembre y después hasta todo el mes de Febrero y hasta fin de Enero el besugo; y la sardina e los demás pescados por los demás meses del año que son Mayo e Junio e Julio e Agosto²²⁶.

Mutrikuko itsasgizonen eta arrantzaleen kofradiako ordenantzen arabera (1598), zama-ontzixkatan edo txalupatan egiten zen baxurako arrantza²²⁷. Ontzi txiki horiek lurretik oso hurbil ibiltzen omen ziren, itsas aingira eta sardina arrantzatzen («Andan en tierra o junto a ella por congrio y sardina que se coge en tierra»). Nolanahi ere, neguan bisigua arrantzatzeko, eta udan atuna, ontzi handiagoak behar izaten ziren, zama-ontzi handiak alegia: «Seguridad (...) especialmente en la pesquería de besugos en el invierno y de atunes en el verano»²²⁸. Gainera, arrantzaren aprobetxamenduaren garapena areagotu egin zen eskabetxearen industria sortu zenean, haren labe eta galdarekin. Mutrikun gutxienez XVII. mendearen lehenengo urteetatik dago jarduera hori dokumentatuta; izan ere, 1611n, Gipuzkoako erakundeek salatu zuten Getariko eta Mutrikuko zenbait biztanlek eskabetxeak egiten zituztela bisiguarekin eta debekatuta zeuden beste arrain batzuekin²²⁹.

Balearen arrantzari buruz, balio handiko testigantzak ditugu. Bereziki XVII. mendean, Ternuara eta Galiziara joaten ziren haien bila. Martínez Isastiren arabera,

Orioko, Zarauzko, Getariako, Zumaiaiko, Debako eta Mutrikuko zenbait marinel, horrelako bidaia luze eta arriskutsuan Ternuaraino ez joateagatik, Bizkaiko eta Asturiasko kostaldera joaten omen ziren urtero-urtero urri partean, neguan inguru haietatik igarotzen ziren baleei itxarotera, eta haiek ikusi orduko beren ontzi eta tresnekin joaten ziren azkar batean atzetik, haiek hil eta portura ekartzeko. Han, koipea atera eta barrikatan sartzen zuten, eta martxo inguruan etxeratzen ziren²³⁰.

Ondorioz, mutrikuarrek ia historia eman dute itsasoari lotuta. Nahiz eta dokumentuak XVI. mendetik aurrera hasi ziren horren lekukotasuna jasotzen, bizimodu hori izan zuen herriak oinarrian fundatu zenez gerotzik. Ugari dira lekukotzak. Hona hemen horietako batzuk, adibide gisa. San Joan del Puertok honako hau esan zuen XVI. mendearen amaiera aldera bere buruz:

Maestre pinacero de pescar en más de quarenta años a más de que primero andubo en lo mesmo en otra pinaça de su padre siendo muchacho, en el puerto desta villa de Motrico y en todo el dicho tiempo a andado en la navegación y exercicio de la pesca en la dicha villa.

Haren kide batek, Domingo Agirre debarrak, honako hau adierazi zuen:

En su niñez, siendo de edad de doze, de quinze o de diez y seis años començo a andar a la mar en la pesca en esta dicha villa de motrico en las pinaças de andrés de Francia y de San Juan del Puerto, vecinos desta dicha villa de Motrico y después acá también tuvo este testigo su pinaça agora treinta años poco más o menos y algunos después acá con la qual solía acudir al puerto deste dicha villa de Motrico²³¹.

Itsaslapurreta eta pirateriarik ere izan zen Mutrikuko portuan. Dena den, kasu honetan 1554an Gipuzkoako marinelen eta Iparraldeko arrantzaleen arteko kontu-garbitze modukoa izan zen. Mutrikuko, Getariako eta Pasaiako marinela irainduta sentitu ziren, eta gogotik prestatu zuten hurrengo urteko mendekua. Mutrikuko kaia izan zuten operaziogune nagusietako bat. Espedizioak prestatu zituzten, kanoiak eta gerrarako materialak trukatu, maileguak eman, partizipazioak finantzatu... Naturaltasun osoz gainera, notarioen aktak eta guzti. Horrela, esaterako, Domingo Sagarzurietak hamar dukat mailegatu zizkion Andrés Agirre mutrikuarrari bere zabra prestatzen laguntzeko, itsaslapurretan Frantziako kostaldera joateko²³². Herriko familia garrantzitsuetako kideak ere aritzen ziren espedizio horiei etekina atera nahian. 1555eko otsailean, Juan Aretxabaleta buru zuen ontzi batean, Juan Agirre, Simon Galdona, Martin Elordi, Domingo Jausoro eta Tomas Billabona ere ontziratu ziren. Harrapakin batzuk hartu, eta banatu egin zituzten etekinak itzuleran²³³. Frantziarekin borroka bizian zebiltzan XVI. mendearen bigarren erdialdean. Mutrikuko kaiak Donibane Lohitzuneko sei ontzi armaturen eraso jasan zuen. Juan Iturritzaren karraka handi bat eraman zuten, baina berreskuratu egin zuten azkenean, Donostia inguruan. Gatazka horiek ikusita, badiako defentsa baldintzak hobetzeko beharra ikusi zuten. Ontzidia armaz hornitzeko erantzukizuna arestian aipatu ditugun komunitateko zenbait bururen eskuetan zegoen. Hori horrela, Otsoa Sebastian Berriatuak 2.000 arkabuz eta 2.200 kasko jaso zituen 1558an gatazka garaian ontziak hornitzeko²³⁴.

Bestalde, Mutrikuko familia askok osparean eta ekonomiaren aldetik gora egin zuten ontzidiak fabrikatzearen edo ustiatzearen ondorioz. Martínez Isastik zera adierazi zuen XVII. mendeko Mutriku deskribatzean: «Mota guztietako galeoi eta ontziak egiteko ontziolak daude bertan. Ontziak burdinaz eta beste salgaiez bete, eta Sevillara eramaten dituzte»²³⁵. Alde horretatik, Erdi Aroaren amaieran Juan Otsoa Berriatuaren moduko aberatsek hasitako ibilbidea jarraitu zuten. Jarduera hori bi ontziolatan egiten zuten XVI. eta XVII. mendeetan: kaian zegoen udal ontzian eta Urantzadin, Deban²³⁶.

XVI. mendeko hirugarren laurdeneko dokumentuetan agerienez, Joanes Martínez Amilibia kapitainak ontziak egiten zituen, eta horretarako herriko biztanleei erosten zien egurra. Ontzi handiak egiten zituen, 500 upelera arteko edukiera ere izan zezaketenak²³⁷. Horrez gain, bere jabetzako galeoi bat ustiatzen zuen (Santa Maria). Zera argudiatu zuen 1573an eskuratutako bere kaparetasunaren alde: «Dueño de muchas naos gruesa con las que sirvió a sus Reyes». Deban zuen jatorria haren sendiak; han armadore ezagunak ziren haren birraitona eta Martín Alós Amilibia aitona²³⁸.

Mutrikuko beste ontzigile garrantzitsu bat Jacobe Ibazeta kapitaina izan zen. 1564 eta 1583 artean dago dokumentatua. Fabrikazio kontraturik ez daukagun arren, zeharkako albisteetan bitartez jakin badakigu edukiera handiko ontziak eraikitzeke gai zela. 1583an, 400 tona garraiatzeko moduko ontzi bat eraikitzeke enkargua eman zion Erregeak. Baina industria horri etekin handiena ateratzen jakin zuen familia urazanditarrena izan zen segur aski. Deba ibaiaren ertzean bizi ziren, Mutriku. Juan Pérez Arriola kapitaina eta Juan Otsoa Arriola ontzien jabeak ziren, ontzigileak eta merkataritza elkarteetako kideak. Dokumentuen arabera, mendearen azken herenean jardun zuten. Europa Iparraldearekin salerosketan aritzen espezializatu ziren, baita Ternuan balea eta bakailoa arrantzatzen ere. Beren Urazandiko ontzioetan zenbait ontzi egin zituzten²³⁹.

Geroago, XVIII. mendearen bigarren erdialdean, eraikuntza lan garrantzitsua aurkituko dugu berriz Astigarribiako ontzioetan. Juan Ignacio Ulazia zen orduan enpresaburu, «Gipuzkoako ontzi txikien eta ertainen eraikitzaile aberatsena»²⁴⁰.

Ulertzekoa den moduan, jarraipena izan zuten inguruko herrien arteko gorabeherak, arazoek eta liskarrek, batez ere XVI. mendearen amaierako krisiaren ondoren. Debarrekin izandako haserreai, ondarrutarrekin izandakoak erantsi behar orain. Arrantza baliabideen aprobetxamendua zegoen beti arazoan jatorrian. Ez zen makala balea bat ehizatze lanetan herri ezberdinetako ontziek parte hartu zutenean banaketa lanak egitea. Araudi zehatz bat ezarri beharra zegoen balearen ehizaren inguruan: «Para adelante perpetuamente en todo tiempo del mundo entre las dichas villas y sus veçinos se haya de guardar y guarde en el matar de las ballenas». Balea zauritzen lehenak Mutrikukoak izanez gero, Debakoek ezin izango zuten esku hartu, «Asta y en tanto que a los dichos veçinos de Motrico que así hubieren herido se les suelten de todo punto y anden libres o con espresa liçencia y mandado del dicho primer heridor»²⁴¹.

Arraina merkaturatzeak ere arazoak ekartzen zituen. XVII. mendearen amaieran, Debako nabigatzaileen kofradiak auzitara eraman zuten Mutrikuko erregimentua. Arrain freskoa askatasunez saltzeko eskubidea aldarrikatu zuten; hau da, alkabala edo bestelako edozein eskubide ordaindu beharrik izan gabe. Gipuzkoako Aldundiak 1701ean emandako epaiak Mutrikuko herriaren alde egin zuten, eta kaian bere arraina saltzeko lehentasuna eman zion, debarrek eka-rritakoaren aurretik. XVIII. mendearen amaieran, Zumaiako batzar orokorrek erabaki zuten Gipuzkoako portuetan ez zedila aurrerantzean arrain freskoa sartzeko, saltzeko eta merkaturatzeko lehentasun eskubidea baliatu. Mutrikuarrek ez zuten erabakia onartu, ez baitzieten Erregeak aspaldi emandako pribilegioei uko egin nahi. Ondorioz, bere horretan geratu zen akordioa, etenda.

Garaiako bizimoduari buruzko zenbait testigantza kanpoan zeuden mutrikuarrei herriko albisteak eta gorabeherak kontatzeko idazten zizkieten eskutitzen bitartez iritsi zaizkigu. Eguneroko istorioak, familiakoak eta pertsonalak kontatzen dituzte horietan, eta oso lagungarriak zaizkigu antzinako gure bizilagunen bizipenak ezagutzeko. Batzuk duela hiru mende baino gehiago jazotako gertaeren benetako «argazkiak» dira. Ikus dezagun zer kontatu zion Antsorregi presbiteroak Juan Galdonari 1681eko otsailean:

Lo queai agora de fresco, es q. el viernes por la mañana mataron las chalupas de Deba una ballena grande q. dicen tendrá asta 50 barricas, q. aunque los de Motrico podían lograr otra fortuna respecto de venirseros a la obra, no se pudo porq. Ya iban otras chalupas dos legoas afuera para la altura sólo una q. quedó en cassa tubo parte, y en ella fué uno de los heridores don Joan Ramos de Recabarren que se dice, anduvo muy bien, y aunque las otras chalupas bolvieron al humo del balaiero desde medio camino, para cuando ellas llegaron ya la tenían muerta, con q. la que he dicho sola tubo parte; al fin la llebaronla a Deba, y después de dicha función tubimos otra en Motrico y es el casso q. mi primo el de Ilumbe, y Francisco de Aranas el moço se encontraron en algunas palabras ante más de doce q. estabamos en aicecoale y entre ellos el alcalde y aviéndose dicho uno a otro algunas palabras ásperas y aquientandose la colera que hace el de Ilumbe, después q. nosotros fuimos a comer a cassa, sale callandito de la suia como acossa de las doce, q. hera ora de silencio, y aviendo ido a la de Francisco, dícele callandito, q. baje abajo con su espada, porq. Quiere pelear con el en su misma tienda, y franc. Pareciendole que dicho sitio no era oportuno le replicó q. aviendo buscado otro mejor puesto; al fin conbinieron ambos en que avían de ir acia San Nicolás, y aviendo subido asta goicotorre, dijole el de Ilumbe, q. junto a la Cruz de Achachin podían pelear, y quitándose de quentos avanzan en dicho sitio ambos a dos las espadas y si Dios no lo remedía, ambos a dos que se claban por q. quiso la fortuna q. a franc., en las primeras lebadas se le quebró la espada por medio, y le agarró viendose sin arma por donde pudo, q. luego como no faltó gente, que obiesse la dança concurrieron, y los hallaron uno sobre otro arañándose balientemente q. sin duda a no llegar algunos tan a los principios, aunque fuese a moquetes que hubieran maltratado mucho, o muerto uno al otro, Bea Vm. Si en Motrico tenemos balientes, q. arto mejor fuera puesto q.

demuestran tan buenos aceros se fueran a servir al rei, y no andar alborotándonos, q. luego yo por poco no he tenido otra pendencia con el de Ilumbe por ajustar las paces²⁴².

Eskutitz hori eta antzeko beste batzuk irakurrita, Antzinako Erregimenean egun osoa elkarri joka ematen zutela pentsa genezake. Gainera, mutrikuarren eguneroko bizitzaren pasarteak jasotzen dituzten agiri asko judizialak direnez, aurreko mendeak eraso, gatazka eta salaketetan murgilduta igaro zituztela sinesteko joera izan dezakegu. Gure egungo bizimodua aztertzeko Donostiako Entzutegiko artxiboko dokumentuetara bakarrik jotzea bezalakoxea litzateke hori. Nolanahi ere, badaude etengabe aipatzen diren bi gai, gure arbasoen garai bateko arazoak ezagutzeko lagungarri direnak. Arazo arruntena ezkontzeko promesak ez betetzearena zen. Aipatu dugu jada zenbat buruhauste eta zorigaitz ekartzen zizkieten hitzartutako ezkontzek elite sozialei eta ekonomikoei. Familia xumeek ere izaten zuten arazorik ezkontza kontuekin, baina oso ikuspegi ezberdinetik. Dokumentuek agerian uzten dute zer zailtasun izaten zituzten baliabiderik gabeko dontzeilek ezkontzak hitzartzeko. Onegintzako zenbait erakundek eta fundazio partikularrek ezkonsariak eskaintzen zizkieten gazte umezurtzei edo baliabiderik ez zutenei ezkon zitezten, betiere herrikoak baziren eta fundatzaileen leinuarekin nolabaiteko harremana bazuten. 1645ean, María Matheo eta Teresa Agirre ahizpa mutrikuarrek salaketa jarri zuten herriko bikarioaren eta alkateen aurka:

Contra el vicario y alcaldes ordinarios de la villa, como patronos que son de la fundación para casar doncellas, que estableció Domingo de Bidazábal. Los patronos seleccionaron a diez doncellas, pero al perder una de ellas su doncellez, nombraron a Josepha de Asín, que no es deuda del fundador, mientras las demandantes sí lo son; por ello recurren contra dicho nombramiento²⁴³.

Pobreziak dakartzan miseriak, premia larriak eragindakoak.

Dena den, guztiz misoginoa eta matxista zen gizarte itogarri hartan, baliabiderik gabeko neskatilak hainbat engainu eta irainetan biktima eta bekatari suertatzen ziren²⁴⁴. Izan ere, bizitzeko etengabeko borroka baitzen hura. Emakumeek familiaren bitartez aurkitzen zuten beren lekua gizartean; gizonek, ordea, lanaren bitartez. Ugari dira salaketak.

Hona lau adibide. XVII. mendearen erdialdera, Francisca Ube mutrikuarrak auzia jarri zuen bere bizilagunaren aurka:

Miguel Urquiaga, su convecino, el cual, antes de partir para Terranova, le prometió con muchos juramentos casarse con ella, manteniendo relaciones carnales. Pero Urquiaga había hecho lo mismo con Magdalena de Escarza, que también le pone pleito. Es condenado a casarse con la Escarza, a la que primeramente había dado tal palabra de matrimonio²⁴⁵.

Clara Javiera de Balenciaga, natural de Motrico demanda a Joseph de Corostola, natural de la misma villa. Ambos se dieron promesa de matrimonio delante de testigos e intercambiaron regalos pero después, Corostola trata de casarse con una de Ondarroa, llamada M^a Bautista de Santuri. El demandado responde que cuando hizo la promesa estaba algo tocado del vino²⁴⁶.

Antzekoa da María Lucía Iturritzak Juan Bautista Andonegiren aurka jarritako auzia ere. «Siendo la demandante doncella honesta y recogida, Juan Bautista le dio promesa de matrimonio, privándola de su entereza y virginidad y procreando una niña; pero luego no trata de cumplir su obligación, pretendiendo embarcarse para Indias»²⁴⁷. Eta bukatzeko, askoz ere amaiera latzagoa izan zuen auzi desberdin bat. Ignacio Amas mutrikuarrak auzia jarri zuen M^a Nicolasa Arrietaren aurka,

de la misma vecindad, la cual, por medio de terceras personas, buscó al demandante, para que se casase con ella y habiendo accedido, se prometieron en matrimonio; pero más tarde, la demandada se excusa de cumplir su obligación. Es condenada a casarse con Ignacio

confirmándose en 2ª instancia. Nicolasa vuelve a ponerle impedimento y cuando se trataba esta causa, Ignacio de Amas y otros nueve hombres se ahogaron en la pesca de la merluza²⁴⁸.

Bizitza garratz eta gogorak benetan²⁴⁹.

Apaizekin ere sarritan gertatzen ziren auziak: hamarrenen ordainketak zirela, portaera desagokiak zirela, liskar arruntak zirela edo udalarekin eta hango agintariekin gatazkak zirela. Hamarrenen ordainketak baserritarrei egiten zien «min» gehien. Ehun orritik gorako prozesu batean, batetik bikarioaren eta bestetik Pedro Arantzamendiren eta emaztearen arteko auzia dago jasota:

El vicario y beneficiados de Motrico, contra Pedro de Aranzamendi y su mujer, vecinos de la misma villa, los cuales se niegan a hacer diezmo de las cebollas que recogen en sus heredades e inducen a otros vecinos a hacer lo mismo. Los acusados dicen que ha habido costumbre inmemorial en Guipúzcoa de no diezmar las cebollas²⁵⁰.

Antza, tipulengatik ere sortzen ziren gatazkak. Jakina, inork ez zuen gustuko izango gose garaietan hamarrenak ordaintzea.

Benefiziodunak eta nobleak ez zeuden dokumentuetan jasotako gatazketatik salbu. Testigantza bitxienetako bat fiskal jaunak Simón Mizkia benefiziodun mutrikuarra salatu zueneko da:

De que un día, habiendo bajado 6 ó 7 sacerdotes, al muelle de la villa, trabaron pendencia; en ella el acusado le quitó el bastón al vicario y lo hizo pedazos en la cabeza de D. Juan de Corostola; el día de Sta. Agueda, después del banquete de una Misa nueva, arrojó un candela-bro contra un hombre principal, descalabrándole²⁵¹.

Elizaren liskarrei eskainitako atal honetan, ohikoak dira «bizimodu egokiaren ohiturak» jarraitzen ez dituzten parrokiako benefiziodunei eginiko salaketak. Hona 1722. urteko adibide bat, karikatura modukoa:

Contra D. Francisco Javier de Larrea, presbiterio y beneficiado de Motrico, el cual desde que se ordenó de Misa, vive ilícitamente divertido con dos mujeres de la villa, exponiéndose a muchos lances por su natural recio e inquieto. Asimismo anda de noches por las calles armado de trabuco y otras armas ofensivas, y bebe vino en exceso, embriagándose con frecuencia²⁵².

Esandakoa: karikatura bitxi bat.

Beste batzuetan, bikarioen grina moralak eragiten zuen eskandalua. 1758an, Francisco Antonio Andonegi alkateak kexa bat aurkeztu zuen Juan José Azillona parrokiako bikarioaren aurka.

En la Misa del Domingo, y en presencia de casi todo el pueblo, (el vicario) injurió gravísimamente al alcalde, diciendo en el sermón que era omiso en la administración de la justicia y causan de escándalo por su tolerancia. El alcalde dice que casi cayó desmayado del sonrojo. El vicario, preso en los Carmelitas, presenta el texto de la plática para demostrar que hubo un mal entendido²⁵³.

Izugarria behar zuen bikario horrek, hiru urte geroago salatu egin baitzuen orduan alkate zen Ignacio Osorok ere.

Estando celebrándose la danza tradicional del día de S. Blas en el prado cercano a la ermita del Santo, bajo la presidencia de las autoridades, y cumpliendo los requisitos del edicto episcopal de 1750, el vicario se acercó al Sr. Alcalde, que asistía a la danza, y sin bajarse de la mula, le increpó secamente; después, en la misa popular explicó la prohibición de tales danzas y más tarde los declaró por excomulgados²⁵⁴.

Beharrezkoa zen atea eta leihoak irekitzea, itsasotik zetorren aireak eguneroko bizitza freska eta aireberri zezan. Hein batean behintzat, XIX. mendeko espiritu ilustratuak ekarri zuen aire berri hori.

4. ILUSTRAZIOA ETA XIX. MENDEA



XVIII. mendearen bigarren erdialdean, zientziari, arteari eta giza harremani begiratzeko modu berri bat garatu zen Europako mendebaldean: Ilustrazioa. Aurrerapen teknologikoekin batera, gizarteari buruzko ikuspegi berriak sortu ziren, adimenaren eta arrazoiaren erabilera nagusitzearen ondorioz. Era berean, arteak eta arkitekturak erronka berriei egin zieten aurre, eta xede berriak finkatu zituzten. Hiriari eta hirigintzari buruzko kezka zegoen horien artean; hala, hiri egiturak giza harremanen sorrera bultzatzea zen orduko helburua²⁵⁵. Besteak beste, asmo horixe bera gogoan hartuta ekin izan diote garaian garaiko udal arduradunek herria eraberritzeari, XXI. mendeko Mutriku osatu arte.

Dena dela, hirigintzaren gaineko ikuspegi idiliko hori hankaz gora jarriko zuen XIX. eta XX. mendeko errealitateak, orduko liskar eta asaldura politiko-sozialen eraginez. Gerrek eta gertakari historikoek eragin nabarmena izan zuten udalerriko hirigintzan eta ondarean. Laburbil ditzagun, bada, udalerriko bizimoldea aldarazi zuten gertakari nagusiak, XVIII. mende amaierakoak eta XIX. mendekoak batez ere.



Mutriku XIX. mendean. Grabatua.

XVIII. mende amaieran, Konbentzio Gerrako zenbait liskar eman ziren Mutrikun. 1794ko abuztuaren 18an, Juan José Txurruka gidari zutela, soldadu euskaldunak udalerrian sartu eta bi kanoiren jabe egin ziren. Handik ia urtebetera, Frantziako gudarosteek, Sasiolako kaia hartu ostean, Mutriku okupatu zuten. Dena dela, gerra napoleonikoen ataria besterik ez zen izan Konbentzio Gerra. Kosme Damian Txurruka almirantea 1804an Trafalgarreko gudan hilik suertatzeak astindu egin zuen herritarren irudimena, eta ohiko heroï erromantikoaren irudia osatu zuten haren inguruan. Haren bizitza eta heriotza oroitzeko ekitaldiek oihartzun nabarmena izan zuten udalerriko artean eta ondarean. Orduantxe jarri zuten eraiki berria zen hirigunearen erdian Txurrukaren ohorezko monumentua.

Hala ere, gerraren oihartzunak ez dira gudari ohien kontu eta pasadizo soil. Mutrikura bertara ere helduko zen gerra. 1811ko azaroaren hasieran, Espainiako Independentzia gerra betean, Espoz y Minak eta Gaspar Jauregik hurrenez hurren gidatutako nafar eta gipuzkoar batailoiek gure udalerrian gotortutako Frantziako tropak garaitu zituzten, borrokaldi gogorren ostean. Frantziako 50 bat soldaduek defentsa gogorra egin zuten, Elgoibarretik errefortzuak iritsiko zirenen esperantzaz. Bizirik atera zirenak Ingalaterrako Iris fragatan eta beste batzuetan ontziratu zituzten Mutrikun, Espoz y Minak Aragoien preso hartutako frantziar gehiagorekin batera²⁵⁶.

Gerratea atzean utzitakoan hartu zuen Mutrikuk udalak hirigintza eta arte arloetarako proposatutako erronken bidea. Ikus dezagun.

4.1. Udalak Mutrikuri buruz zuen ikuspegi berria

Udalak herria mendebalderantz zabaltzeko asmoa zuen. Horren erakusgarri, udaletxe berria herriaren goiko aldera lekualdatu zutela, Erdi Aroko murrua gaindituta, Ondarroako atea baino harago. Hain zuzen ere, horixe izan zen Mutrikuren historian etxadia hedatu zuten aurreneko aldia. Lanak burutzeko, baina, nahitaezkoa zen babes harresia desagerraraztea eta zabaltze lanen aitzindari papera beteko zuten eraikinak sortzea, Erdi Aroan eratutako kale eta plaza egitura nahasia antolatuzko. Hortaz, udaletxe berria egitea erabaki zutenean, ez zuten eliza zaharraren alboko lursailean berreraikitzea pentsatu, Arriturriagako edo Ondarroako ateen bestaldeko eremuan baizik.

1731n hartu zuten aipatutako erabakia²⁵⁷, udal arduradunek eraikin berria egitea ebatzi eta bi urtera. Eraikuntza lanak egiteko, ospitale orokor ohia eta Pietatearen basiliza besterendu eta hainbat etxe erosi zituzten, horiek guztiak eraitsi eta plaza berria sortzeko. Gogoan hartuz egungo eraikinaren neurri berak zituela orduan ere, XVIII. mendeko ohiko eraikuntza irizpideen arabera altxa zutela baieztatu dezakegu. Bestalde, hiri orotan erreferentziazko eraikinak izaten dira beti udaletxeak, eta gailendu egiten dira gainerako etxeen artean. Hortaz, ia herriko eliza nagusiaren besteko balio sinboliko eta adierazgarri bera du udaletxeak²⁵⁸, baina laikoak da izatez. Eraikin hura, baina, kiskali egin zuen suak 1811n, eta 1825 eta 1826 urteen artean berreraiki zuten²⁵⁹.

Egungo itxura joan den mendeko 60ko hamarkadan egindako lanen emaitza da. Orduan berdindu zuten eraikinaren aurrealdea, lehen erditik zatitzen zuen teilatutxoa kenduta. Azken obra horietan jarri zituzten aurrealdean egun ikus ditzakegun armarriak. Bakarra da antzinakoa: erdikoa, Gaztelako armak dituena. Aipatu dugu lehen. Harresiko ateetako batean zegoen garai batean; ziur asko, multzo bat osatzen zuen Luardo dorrea deskribatzean adierazitako beste bi armarriekin. Armari berrietan Gipuzkoako eta Mutrikuko armak daude ikusgai.

Hiru ataleko gorputza du udaletxeak, eta erdialdekoa da denetan landuen dagoena. Geroagokoa bada ere, euskal udaletxeen arkitekturari lotzen zaio: puntu erdiko sarreradun arkupe zabala du, balkoi jarraitua gainean, eta armari multzoa aurrealdean.





Udaletxea.

4.2. Udalerriko hiri trazatuaren arrazionalizazioa

Aurreko atalean esan dugun bezala, XVIII. mendean udaletxea herriko goialdera eramatean, norabide berria hartu zuen udalerraren egituraketak. Ildo ireki eta arrazional horren ondorioz, desagerrarazi egin zuten udalerraren garapena mende luzez oztopatu zuen harresia. Galdonatarren jauregiaren parean kokaturiko udaletxe berriak eta Arriturriagako edo Ondarroako ate zaharrak plaza zabal berria osatu zuten, XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera egindako hirigintza lanekin gainezkatutako alde zaharrean ordura arte sekula ikusi gabeko neurri eta ikusgarritasuna zituena. Plaza horretan esangura berezia zuen elizak ere, eta harekin loturik antolatu zuten hirigintza. Mendi hegalean gora egituratu zuen udalerria, eta balio sinboliko handiko erreferentzia puntua bihurtu zen, gainerako etxeak baino goragoko kokalekuari esker. Horrez gain, proposamen berriaren harira, eraitsi egin behar zen Erdi Aroko parroikia. Herrigunea kaialdearen eremuan egotetik goiko aldera eraman nahi zuten, bertan garapena eta hazkunde indartzearren.

Honako xehetasunak ematen dizkigute XIX. mende erdialdeko kronikek: «1790ean eraitsi zuten eliza zaharra, erortzeko zorian zegoelako. Berehala piztu ziren eztabaidak, baita Udalaren eta Kabildoaren arteko liskarrak ere, eliza berria non eraiki adostu ezinik zebiltzalako. 1801era arte luzatu zen egoera hori. Urte horretan onartu zituen Gaztelako Batzorde Nagusiak Silvestre Pérez arkitektoaren planoak eta Udalak proposatutako xedapenak»²⁶⁰. Ez zen erabaki erraza izan, irauli egingo zituelako biztanleen artean guztiz errotuta zeuden zenbait ohitura. Aurreneko pausoa emana zuten, edonola ere, ateak eta harresiak bota zituztenean eta udaletxe berria Galdona jauregiaren aurrean eraiki zutenean, Arriturriaga plazan –egungo Txurruka plazan–. Udala bera zen parroikia lekuz aldatzeko interes handiena zuena. Apaizak eta onuradunak ez zeuden alde, baina.

Eraikinak, gainera, gaitz anitz zituen arren, nahiz eta itoginak eta hainbat zati konpontzeko lan etengabeak behar izan, teknikarien iritziz ez zuen erortzeko inolako itxurarik. Azkenean, Udalaren eta txurrukatarren asmoak nagusitu ziren. Hortaz, eraitsi egin zuten tenplu zaharra, eta eraikin berria beste kokapen batean egiteko lanekin hasi ziren. Eliza zaharraren orubean zuhaitzi bat sortzea deliberatu zuten orduan, herritarrentzako arnasbidea izan zedin. Ordura arte herrian eza-gutu ez bezalako gune publiko irekia eskaini zuen.

Parrokia lekutzeko aukeratutako kokapenak, berehala aztertuko dugun hiri plangintzaren barruan, plaza berri bat ekarri zuen, herriko benetako ardatz bihurtuko zena, eta ugaritzen ari zen biztanleriaren bilgune.

4.3. Parrokia berria, ikur neoklasikoa

Gipuzkoako arkitektura neoklasikoaren eredurik adierazgarriena da Zeruratzearen parrokia berria²⁶¹. Zenbait aditu honela mintzo dira horren inguruan: «XVIII. mendeko azken eraikin bikaina da, eta Gipuzkoako historia hurbilean egin direnen artean garrantzitsuenetarikoa ziurrenera. Arkitektura berriaren lehen adibide izateaz gain, adierazgarriena ere bada»²⁶². 1798an egin zuen Silvestre Pérez (1767-1825) arkitekto aragoiarrak eraikinaren proiektua. Artista sonatu hark, San Fernandoko Arte Ederren Akademian ikasitakoa bera, dimentsio berria eman zion proiektuari, Ondarroara bidea ematen eta udalerriko hego-mendebaldean abiatutako hirigintzarekin bat egiten zuena.



Kosme Damian Txurruka plaza, alboetan Udala eta Galdona jauregia dituela.

Herri aldapatsuaren goiko aldean kokatu zuen eraikina, plataforma ikusgarri baten gainean, inguruarekin harreman xarmagarri eta egokia duen kokagunean. Egileak horrelakoak idatzi zituen proiektuan bertan zirriborrotutako oharretan: «Denik eta kokapen aproposena da Mutrikuko hiri-bildu txit noblean, eliza berriaren eraikina egiteko»²⁶³.


Eliza berria eraikita, Udalak eta arkitektoak plaza berriaren balio sozial eta instituzionala finkatzea lortu zuten. Era berean, bilgune berriak sendotu egin zuen herria ekialdetik mendebaldera zeharkatzen zuen ardatza. Esan bezala, Erdi Aroko eliza botatzearekin batera, betiko galdu ziren historiaren parte bat, kaiaren inguruko paisaia eta tenpluaren ondare bizia. Eraikin eta hirigintza proiektu berriak ezaugarri berezi eta erakargarriak zituen. Hirigintzari dagokionez, zirkulu handi batekin antolatu zuen espazioa Silvestre Pérezek, zirkulu txikiagoez inguratuta. Elizaren kokapena bertako plaza zaharraren konposizio lerroen ondorio da: «Elizaren diametrala zehazteko, udaletxeko eta etxaniztarren etxearen aurreko aldeetatik irteten diren lerroek elkar egiten duten puntuan A-B lerroa markatuko da. Lerro horrek angelu berdina utziko du alde bietara eta horixe izango da diametrala. C-D ertainak eta lerro horrekin bat egiten duten puntuak ezarriko du elizaren erdigunea»²⁶⁴. Planteamendu geometriko horretaz baliatu zen Pérez: udalerrriaren ardatz bihurtu zuen eliza berria, hain zuzen ere udaletxearen plazara ailegatzen baitziren kaleak²⁶⁵. Horrenbestez, elizaren dorreak aldapan gora egiten duen ontziaren branka dirudi, eta atzealdeko gazteluak, berriz, atari hexastilo ikusgarria duenak, mendebaldetik ixten du plaza, baita udalerrria bera ere.



Kosme Damian Txurruka plaza, atzean parrokia eta Galdona jauregia dituela.



Silvestre Pérezek elizarako egindako diseinuak. Fatxada nagusia.



Silvestre Pérezek elizarako egindako diseinuak. Fatxada nagusia.

Orain artean, hainbat xehetasun eman dugu elizaren eraikuntzari buruz. Lehenengo urrats modura, 1790ean eliza zaharraren aurri adierazpena sinatu zuten. Silvestre Pérezek proiektua osatu eta Gaztelako Kontseiluak planoak eta erabakiak ontzat eman ondoren, 1803an jarri zuten lehen harria. Ekitaldi hura zuzentzen izan ziren Manuel Arriola, parrokiako bikarioa eta Iruñeko gotzainaren ordezkari zena, eta Txurruka anaiak, herriko lehen eta bigarren alkate zirenak. Geldotasunez hasi zituzten eraikuntza lanak. 1809an, gainera, eten egin zuten obra, Independentzia Gerra zela-eta. Eraikuntza lanei berriz heltzean, diru eskasiaren eta zimenduak jartzeko zailtasunen eraginez, motel egin zuten aurrera, eta 30eko hamarkadara arte ez zuten erritmo egokirik hartuko. Lehendabiziko Karlistaldiak (1834-1840) eragindako etenaldiaren ostean, 1843an amaitu zuten eliza eraikitzen. Dena dela, egiteke utzi zituzten eskailerak, ataria, goialdeko korua, erretaula nagusia eta pulpituak. 1871n amaitu zituzten lan horiek guztiak²⁶⁶.



Tenplu berria eraikitzeko lanak finantzatzeko lagapenak eta pribilegioak.

Ikus dezakezuenetz, zailak eta garestiak izan ziren parrokia berria eraikitzeko eta hornitzeko lanak. Herritarrek baliabide ekonomiko mugatuak zeuzkatenez, gorriak ikusiko zituzten halako obra arranditsua egiteko. Nahikoa baliabide izango ote zuten obrak amaitu ostean eraikina erretaula eta eskultura berriekin janzteko? Deus ere ez dakigu antzinako parrokiako erretaula barrokoa osatzen zuten eskultura eta apaingarriei buruz. Egungo zutabeek eta taulamenduek barroko kutsua dute argi eta garbi, nahiz eta gainean emandako margoek lausotu egin duten. Beste horrenbeste esan genezake eskulturrei buruz. Finantzaketa eskasa, antzinako erretaula nagusiaren itxurazko «desmaterializazioa»²⁶⁷ eta zutabeen zein eskulturen ezaugarriak uztartuz gero, pentsatzekoa da parrokia zaharreko piezak nola edo hala aprobeztatu nahi izanaren emaitza dela guztia.

Tenplu berriaren konposizioa oso garbia eta distiratsua da. Lauki handi bat du oinarrian, eta hegal simetrikoekin gurutze grekozko oinplano nagusia osatzen du. Erdiko laukiak ohiko petxinen gaineko ganga eskifatuari eusten dio. Oinarrizko kuboaren ertz bakoitzean, fuste leuneko eta doriar kapiteleko zutabe bana dago; kubo nagusiaren alboak, berriz, puntu erdiko arku toralen bidez daude mugatuta. Garai batean estukozko apaingarriak zeuden paramentu sendoetan dauden leiho termalek era homogeneo eta zuzenean argitzen dute barnealdea. Barnealdea ia batere apaindurarik gabekoa izan arren, ikusgarria da benetan. Lehenik eta behin, tenpluaren bolumen arinak dira bisitaria harrিতuta uzten dutenak. Korutik begiratzuz gero, arkitekturaren sinpletasunari zor zaion monumentaltasun eta dotorezia antzeman daitezke. Argitasunez betea dago, zabala da, soila... Inguruko eraikinetan nekez aurkituko ditugun ezaugarriak dauzka. Eraikin egokia da beraz, eta exotikoa aldi berean.



Andre Mariaren Zeruratzearen parrokia. Barrualdearen ikuspegi orokorra.



Andre Mariaren
Zeruratzearen parrokia.
Barrualdearen ikuspegi
orokorra.



Andre Mariaren
Zeruratzearen parrokia.
Barrualdearen ikuspegi
orokorra.

Plazatik begiratuta, ikusgarria du aurrealdea. Herriko arkitekturaren irudi ederrenetarikoa eskaintzen du. Plaza eta elizaren plataforma lotzen dituen eskaileren gainaldean, arkupe hexastilo klasikoa dago, arkitrabe eta frontoi lauko zutabe lerrokadura ixten dituen. Horien gainean, horma pikoa dago, eta bertan, kupularen kutxa oktogonalaren aurrean, bao termal zabala. Presbiterioaren aldameneko kanpandorreak biribiltzen du eraikina, herriko maldarekin era bikainean bat egiten duen eliza osatuz.



Andre Mariaren Zeruratzearen parrokia. Kanpoaldeko fatxada.



Andre Mariaren Zeruratzearen parrokia. Kanpoaldea. Mendebaldeko fatxada.



Andre Mariaren
Zeruratzearen parrokia.
Kanpoaldea. Alboko
fatxada.

Kritikari historiografikoaren iritziz, erabat berriztatzailea da Silvestre Pérezen lana. Batetik, bere xedea ez delako paisaia edertzea, baizik eta hirigintza eta geometria arazo bati irtenbidea ematea. Bestetik, konposizioari dagokionez, greziar eta erromatar artean oinarritutako lana da Pérezena, baina azalekoak baztertu eta mamia duena helburu. Ondorioz, ez dago Errenazimentuko itxura duen apaingura zirraragarririk. Erromatar kutsu nabarmeneko oinarriekin batera, Espainiako ohiko eraikinen ezaugarriak erabiltzen ditu. Esaterako, herreriak estiloko kapi-telen erabilera, kupularen laranja erdia kanpoaldeari ezkutatzeko²⁶⁸.

Arkitektoari dagokionez, gaztaroan egin zuen Mutrikuko Zeruratzearen eliza. Hain zuzen ere arima «gazte» horren ondorioz, molde berriak iragartzen ditu tenpluaren arkitekturak. Inolako edergarririk gabe, erabat soildutako formekin, beharrezko ez den elementu oro baztertuta, barrualdeko zein kanpoaldeko sinpletasun monumentalari esker, Ledoux eta Boullé bezalako teorialari handien korronte artistikoari hurbiltzen zaio eraikina. Arkitekto klasikoak diseinatutako Mutrikuko eliza berriak, gainera, Erromako tenpluen aztarna nabarmenak ditu; gogoan izan, alde horretatik, 1790 eta 1796 urteen artean Erroman izan zela Silvestre Pérez²⁶⁹. Frontoidun arkupeak, bao termal erraldoiek, gurutzearen besoen muturrean dauden exedra handiek eta erdialdeko kupulak Agriparen panteoia edota Erromako termak gogoratzeko bidean jartzen gaituzte. Era berean, Bramanteren eta Palladioren eraikuntza proiektu bateratuak datozkigu oroimenera.

Elizaren barnealdea gutxienez hirutan itxuraldatu dute XIX. mendean lehenengo apaingarriak erabili zituztenetik. XIX. mendeko bigarren erdialdeko modako debozio eklektikoei jarraiki, aldare nagusia eta presbiterioa behealdeko erretaula itxurako basamentu klasikoaren arabera antolatuta daude, eta elizaren zaindariari eskainitako horma irudiak ikus daitezke presbiterioko exedran; hots, Andre Mariaren Zeruratzeari, *Asumpta est Maria in coelum* idazkunari omen eginenez. Erretaularen Erdiko kalean, Kristo gurutzean ageri da goiko aldean, eta Erdian Andre Mariaren Zeruratzea, sagrarioaren ostean. Margotutako edergarri guztiak marmol koloredunen, brontzearen eta urrearen imitazioak dira, hautu eklektiko bezain elizkoien adierazle. Esan bezala, litekeena da erretaula berria egiteko Antiguako elizatik kendutako erretaula barrokoaren hainbat osagai berreskuratu izana. Deigarria da oso zutabe ederrek taulamenduarekin eta kale anitzetako antolaketarekin osatzen duten multzoa. Esan liteke jatorri bera dutela bertako konkorrak. Eliza zaharreko erretaula barrokoan ere aingeru artean ikus zitezkeen Andre Mariaren Zeruratzearen irudia, alboetan San Paulo eta San Petri zituela. Hipotesi hori XIX. mendeko agiriak argituko dute.

Joan den mendeko 60ko hamarkadan elizaren barnealdea berritzeko egindako lanetan desagerrarazi egin zituzten XIX. mendean margotutako apaingurak. Erretaula bertan utzi zuten hala ere, eta kolore argiagoeekin margotu. Garai hartan ohikoak ziren horrelako lanak; baztertu egiten zituzten luxuzko itxura zuten apaingarriak eta deboziozko margolanak, denboraren poderioz ziur asko hondatuta egongo zirenak. Distira hartzen zuten gangek, kolore argia emanda, harria bistan uzteak lagunduta. Hala ere, azken emaitzak inor gutxi ase zuen. Materialen irregularitasuna, harlangaitz horma ilunak eta angeluetako harlandu ilunak zirela-eta, protagonismo handiegia hartzen zuen paramenduak. Ondorioz, zaila zen oso murruean barnealdea eta kanpoaldeko paramenduen irmotasuna eta handitasuna ezkontzea.

Ez zen denbora asko igaroko paramenduak berritzea erabaki zuten arte. 70eko hamarkadan erabat berritu zuten barnealdeko dekorazioa, arriskuz eta sormenez beteriko hiru monumentu multzo handiren bidez. 1979 eta 1980 urteen artean, luzitu egin zituzten 1962an bistan utzitako harriak, eta exedratako hiru erretaulen ordean behe erliebeak jarri. Azken horien egilea José Luis Iriondo donostiarra da²⁷⁰, Arantzazuko santutegian ikasitakoa. Lan horiek amaitu gabe diraite egun, barnealdeko murrutako asko luzitzeke baitaude oraindik.



Andre Mariaren Zeruratzearen parrokia.
Lehenengo apainketa proiektua.
XIX. mendearen erdialdea.



Andre Mariaren Zeruratzearen parrokia.
Bigarren apainketa proiektua.
XX. mendeko 60ko hamarkada.



Andre Mariaren
Zeruratzearen parrokia.
Gaur egungo apainketa.

Ikus ditzagun exedratako eszenak arreta handiagoz. Itxura eta hizkuntza garaikidekoak dira, eta zementuz eta grisailaz daude eginak: kapera nagusian gurutziltzaketa irudikatzen da, eta Kanako ezteiak eta samariar onaren parabola daude albo banatan. Aldare nagusiaren atzean, Kristo dago. Aurpegiera atsegina du, dramatismoarik gabea. Bistan ditu kalbarioan eta gurutzean egindako zauriak, eta ezkerreko besoaz Mariarekin bat egiten du. Sarrerako arkuarekiko lerrokadura paraleloen sare batean dago integratuta gurutzea. Gainaldeko usoak eta planetak gurutze-eguzkirantz doazela dirudi. Kristoren ezker aldean, belauniko, Maria Magdalenak Mutrikuko parrokia berriaren maketa botiboa eskaintzen dio. Osaera horrek Nekaldiaren atal nagusiak biltzen ditu: Gurutziltzaketa, martiritzaren sinboloekin; Maria Kristo besarkatuz; eta, azkenik, Jesusen berpizkundea bera, gurutzetik jaitsi eta zeruratzen ari dela. Beste aldean, begira dago San Petri, eta beharbada baita San Paulo ere. San Petrik, ohi bezala elizako giltza edukitzeaz gain, atzealdean dagoen txalupako arrain sareari eusten dio.



Andre Mariaren
Zeruratzearen parrokia.
Kapera nagusiaren
xehetasuna.



Andre Mariaren
Zeruratzearen parrokia.
Kapera nagusiaren
xehetasuna.



Andre Mariaren Zeruratzearen parrokia.
Hegoaldeko exedra.



Andre Mariaren Zeruratzearen parrokia.
Iparraldeko exedra.

4.4. Eskulturak eta monumentuak

Herriko alde zahar oparoan zabaldutako plaza berrietako zenbaitek herriko pertsonaia ezagunen izena daramate. Gizartearen gorazarrearen eta gune publikoak edertzearen adibide esanguratsuen udaletxe parean dagoen Kosme Damian Txurrukari eskainitako monumentua izango da segur aski. Haren sonak gairitu egin ditu herriaren mugak. Gipuzkoan XIX. mendean landutako eskulturgintzari dagokionez, adierazgarrietakoa da Txurrukari eskainitakoa. 1882an hasi zituen eskultura lanak Bergarako Marcial Agirre Lazkanok (1841-1900). XIX. mendearen bigarren erdialdeko eskulturagile ezaguna bi urtez Italian izan zen ikasten, Foru Aldundiak diruz lagunduta, eta handik itzultitakoan Donostian zabaldu zuen tailerra. Haren eskuek landu zuten Loiolako santutegirako bidean dagoen San Ignazioren irudia ere. Eskulturagileak 1882an bidali zion eskultura egiteko baldintzak jasotzen zituen kontratua udalari. Baliagarria zaigu eskultura deskribatzeko: «Euskal almirante entzutetsua tinko eta lasai ageri da, eskuineko besoa aginte jarreran luzatuta, oinetan itsas borrokaren pieza sinbolikoak dituela»²⁷¹. Eskulturaren euskarriaren proiektua Nicomedes Mendibil arkitektoak egin zuen.

Askotan aipatu ditugu Kosme Damian Txurruka Elortzaren balentriak. Makina bat aldiz topatuko duzue haren izena herriko kaleetan, oroitzapenezko idazkuntan eta gordetako agirietan. Une egokia izan daiteke honako hau herriko iruditeria erromantikoaren adierazle ezin hobea den pertsonaia honi buruzko zenbait xehetasun emateko. Mutrikun jaio zen, 1761ean, eta hamabost



Kosme Damian Txurrukaren omenezko monumentua.



Kosme Damian Txurrukaren omenezko monumentuaren xehetasuna.



Kosme Damian Txurrukaren omenezko monumentuaren xehetasuna.

urte zituenean Cádizko Itsas Guardian sartu zen. Horrela eman zion hasiera itsasgizon eta militar prestakuntzari. 1783an Ferroleko ofizialen akademian hartu zuten. Ikasketak amaitutakoan, espedizio ugaritan hartu zuen parte; militarrek batzuk, zientifikoak beste batzuk. Arlo teknikoarekiko zuen interesak bultzatuta, hainbat ale argitaratu zituen geografiarekin eta itsasoarekin lotutako teoriengurur. 1802 eta 1803 artean jaio-terrirra itzuli zen, eta herriko alkate izendatu zuten. Hurbil zuen, nolana ere, azken hatsa emango zuen eguna. 1805ean Ingalaterraren aurkako gerra piztu zenean, San Juan Nepomuceno ontziaren gidaritza bere esku zuela, beste hamaika itsasgizon eta zientzialariren patu berbera izan zuen Trafalgarreko borrokan. Gogotsu aritu zen borrokan, harik eta kanoi bala batek jota bertan hil zen arte.

Herrian gogoan dute beste txurrukatar bat ere: Ebaristo Txurruka Brunet, Mutrikuko aurreneko kondea izandakoa, XIX. mendeko azken



Ebaristo Txurruka.

hereneko eta XX. mendearen hasierako ingeniarien artean ospetsuenetakoa. Berak egin zuen kaia zaharberritzeko eta zabaltzeko proiektu handizalea, eta haren izena darama Atxukaleko begiratokiak. Hantxe dago bere irudiaren bustoa, XX. mendeko 40ko hamarkadaz geroztik. Udalbatza aretoan dagoen Kosme Damian arbasoaren eskulturaren antz handia du.

Hori baino dezente lehenago apaindu zuten Zubiagako plazatxoa, erregimentuaren antzinako eraikinaren eta Luardo dorrearen babesean dagoena. Inguru harresitua eta herriaren hegoaldeko zabalkundea lotzen zituen leku hura edertzeko, 1864an iturri monumental bat ezarri zuten bidearen albo batean. Gaur egun nahiko utzita dagoen arrear, xarmagarria izaten jarraitzen du oso.

4.5. Mutrikuko bizimodua XIX. mendearen erdialdean

Garai hartan, gero eta ugariagoak eta zehatzagoak ziren orduko bidaiarien eta ikerlarien testigantzak. Zer pentsatzen zuten herriaz duela 150 urteko bisitariak?

Debatik Mutrikura joan ginen, elkarrengandik oso hurbil daude-eta. Itsasbazterreko kai txikia da Mutriku, mendi garaiez inguratua, eta eskailerez betetako kaleak dauzka; gora eta behera ibili behar da beti kale batetik bestera egiteko. Badira etxe ederrak halaber, Granadako dukearena eta Urreztietaren jauregia kasu, baita udaletxea bera ere. Azken hori eraikin berria da, aurrekoari su eman baitzioten Frantziako soldaduek 1811n. Silvestre Pérez jaunak egindako diseinuaren arabera eraikitako parrokia ikusi dugu eta kalonjesa agustindarren komentuan izan gara. Bertan, Alemaniako eskolaren bi margolan aurkitu ditugu, horietako bat Wandick-ek egina; era berean, herriko ondarearen parte den Murilloren lan bat ikus daiteke sakristian. Mendebaldean, aro ezberdinetan eraikitako bi moila daude, eta kaitik gertu leize-zulo bat. Bertara txalupaz baino ezin da heldu, eta naturak landutako gurutzearen irudia erakusten du²⁷².

XIX. mendearen erdialdera, zera idatzi zuen Gorosabelek:

Udalerriko biztanleen ohiko zereginak nekazaritza eta itsas arrantza dira. Garia, artoa, arbia, lekaleak, barazkiak, sagarrak, gaztainak, liho apur bat eta behiak bazkatzeko larreak dituzte euren lurretan. Txakolina izeneko ardoa egiteko mahatsa ere biltzen dute, baina horren uzta ez da ziurra izaten. Azken zortzi urteetako uztak zurinak jota galdu dira, mahatsaren organo berdeei erasaten dien gaitzaren ondorioz. Tenperatura epelari esker, limoiondo bikainak hazten dira aterperik ez duten baratzeetan, fruitu ugari eta ona ematen dutenak; zenbait laranjondo badago halaber, baina fruitu txikiak eta mikatzak ematen dituzte. Arrantzari dagokionez, neguan bisigua harrapatzen dute eta atuna udan; eta urtean zehar legatz aingira, sardina eta antxoa, besteak beste. Arrantza jardueratan 350 marinel inguruk egiten dute lan, eta 17 ontzi itsasoratzen dira neguan eta 32 udan. Hamaika irin errota dago Mutriku, Mijoa auzoraino ailegatzen den Sorgin-errekaren ibilbidean. Erreka, bestalde, Bizkaiarekin muga egiten duen Saturrarango hondartza eder eta atsegineraino ailegatzen da²⁷³.

Gaur egun ere arrantza da Mutrikuko ekonomiaren oinarria. Zenbait urte lehenago, 1826an, herriko arrantzale kofradiak gurdi berezien zerbitzua jarri zuen martxan, «Madrilera arraina bi egunetan behin eramateko. Ehun arroatako arrain zama eramateko gai zen gurdi bakoitza, eta 56 ordutan egiten zuen bidea»²⁷⁴.

Ikusten denez, herria sortu zenetik ia gaur arte iraun dute inertzia ekonomikoek. Dena dela, arrantza jada ez da Mutrikuko baliabide ekonomiko nagusia. Urteak dira arrantzaren birmoldaketaren eraginez garai bateko indarra galtzen ari dela. Nolanahi ere, jarduera horien lekuko bizia da kaia oraindik ere. Bestelako erakunde eta egiturak museo gisa daude antolatuta. Horren adibide da herrira ekarritako arrainen eskaintza eta enkantea egiten zeneko «arrain lonja zaharra». 2003az geroztik, Mutrikuri eta itsasoari buruzko erakusketa iraunkorra ikus daiteke bertan.



Hala eta guztiz ere, azken urteetan handitu eta garatu da kaia gehien. Dena den, XIX. mendean ginen, kaiak honelako itxura zuela:

Badiak kilometro eta erdi izango du luzeran eta zertxobait zabalagoa da bokalean, Talaia muturretik Burumendi muturrera; lehorrera hurbildu ahala estutu egiten da. Bertako dartsenan txalupak, kabotai ontziak eta belaontzi txikiak gorde eta babes daitezke. Nahiko sarrera deserosoa du, korronteen eta itsasgoren zein itsasbeheren eraginez; hori dela-eta, itsas hondoa jotzeko arriskua dute itsasontziek, zazpi edo zortzi brazatako sakonera besterik ez dagoenez. Hala ere, haitzik, hondar pilarik eta barrarik gabeko kaia izatean, sarbide garbi eta irekia du. Sakonera txikia dela medio, patatxentzako, txalupentzako eta ontzi txikientzako lekurik baino ez dago, hobetze lan aski handiak egiten ez diren bitartean. Saiatu da Udala zeregin horretan, eta Aldundiaren laguntza izan du, baina onura handirik lortu gabe²⁷⁵.

Kaia handitzeko ahalegin guztiek porrot egin zuten, XIX. mendeko bigarren erdialdean Ebaristo Txurrukaren portua berritzeko proiektua erdizka bete arte. Hain zuzen ere orduan eman zioten badiari aurreko mende ia osoan izan zuen itxura.



Kaia, itsasaldera begira, XX. mendean erdialdean.

Herriaren bihotza eta garapenaren oinarri den kaiari buruzko azken aipamen horiekin bukatuko dugu Mutrikuko historian eta ondarean zehar eginiko bidaia hau. Kontakizun osatu gabea da, noski. Asko dira azken urteetan abian jarritako ekintzak, eta modu batean edo bestean herriaren orainari lotuta dauden artelan eta artistak. Bada, beste historia baten protagonista izango dira horiek guztiak, beste kultura eta artearen mui. Ondare artistikoarekin bat egiteko ezagutza eta haren babesa aldarrikatzen dituen etorkizunaren arima izango dira. Alde horretatik, beti egongo da zereginik. Honako hau, horietako bat baino ez da.

Bibliografía

- AGUINAGALDE, F. Borja de. «Gipuzkoako dorretxeak eta leinuak», *Bertan*, 11. Donostia, 1997.
- *Arrietakua de Motrico. Un Palacio urbano con personalidad singular*. Mutriku, 2009.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier. «La pesca en el litoral de Gipuzkoa durante la Edad Moderna», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 3, 2000; 99-129 or.
- ALBERDI LONBIDE, Xabier; ARAGÓN RUANO, Alvaro. «La construcción naval en el País Vasco durante la Edad Media», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2, 1998; 13-33 or.
- ALDABALDETRECU, Roque. *Casas solares de Guipúzcoa*. Donostia, 1979; 175-195. or.
- *Debako udalerría. Alderdi historikoak bertako dokumentuetan oinarriturik (1294-1894)/Municipio de Deba. Aspectos históricos en base a sus documentos (1294-1894)*. Donostia, 1996.
- «La heráldica y el mar en Gipuzkoa», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2, 1998; 599-618 or.
- *Santa Mariako Eliza (Jasokundeko Ama Birjina)/La Iglesia de Santa María (Nuestra Señora de la Asunción)*. Deba, 1989.
- ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz. *El nacimiento de las Villas guipuzcoanas en los siglos XIII y XIV: Morfología y funciones urbanas*. Donostia, 1978.
- «La pesca en el País Vasco en la Edad Media», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 3, 2000; 13-28 or.
- «Las Villas Guipuzcoanas que reciben el Fuero de San Sebastián: Modo de vida de sus habitantes», *Congreso El fuero de San Sebastián y su época/Donostiako forua eta bere garaia*. Donostia, 1982; 113-134 or.
- *Urbanística medieval, Guipúzcoa*. Donostia, 1990.
- ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz; BARRENA OSORO, Elena. «El litoral vasco peninsular en la época preurbana y el nacimiento de San Sebastián», *Lurralde*, 13, 1990; 277-312 or.
- AROCENA, Fausto. «Los caminos de Santiago. Importancia de la ruta de la costa», *Euskalerríaren Adiskideen Elkartearen buletina*, XXIV, 1968; 247. or.
- ARRAZOLA ECHEVERRÍA, María A. «El Renacimiento en Guipúzcoa», I. lib. *Arquitectura*. Donostia, 2. ed., 1988.
- «El Renacimiento en Guipúzcoa», II. lib. *Escultura*. Donostia, 2. ed., 1988.
- ARRIETA, José A. *Mutrikuko eliz-historia eta arte bilduma*. Mutriku, 1993.
- ARRIETA ALBERDI, Leyre. *Mutriku: gure historiara hurbiltzen/Mutriku: una aproximación a nuestra historia*. Donostia, 1996.
- ARTEAGA ARTIGAS, María M. *Guía histórico monumental de Gipuzkoa*. Donostia, 1992.
- ASTIAZARAN ACHABAL, María I. *Arquitectos guipuzcoanos del siglo XVIII. Martín de Zaldúa, Jose de Lizardi, Sebastián de Lecuona*. Donostia, 1988.

- ASTIAZARAN ACHABAL, María I. *Arquitectos guipuzcoanos del siglo XVIII. Ignacio de Ibero, Francisco de Ibero*. Donostia, 1990.
- Astigarribiako San Andres eliza/Iglesia de San Andrés de Astigarribia. Bilbo, 2008.
- ATIENZA, Juan de. «Linajes de la villa de Motrico (Guipúzcoa)», *Hidalguía* 87-93 zk. (1968-1969).
- AZANZA LÓPEZ, José J. «La actividad del veedor de obras de cantería en los arciprestazgos de la diócesis de Pamplona (siglos XVII y XVIII)», in: *Revisión del Arte Barroco*, Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales, 19. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2000; 279 orritik aurrera.
- AZNAR GIL, Federico R. *La institución matrimonial en la Hispania cristiana bajomedieval (1215-1563)*. Salamanca, 1989.
- AZNAR VALLEJO, Eduardo. «Marinos vascos en la guerra naval de Andalucía durante el siglo XV», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 5, 2006; 41-52 or.
- AZPIAZU ELORZA, José A. «Guerra y supervivencia. Un episodio del curso guipuzcoano de mediados del siglo XVI», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 5, 2006; 279-300 or.
- *Historia de un rapto*. Donostia, 1999.
- *Balleneros vascos en el Cantábrico*. Donostia, 2000.
- *Mujeres vascas, sumisión y poder. La condición femenina en la Alta Edad Moderna*. Donostia, 1995.
- BARANDIARÁN MAESTU, Ignacio. «Excavaciones en la iglesia de San Andrés de Astigarribia (Motrico, Guipúzcoa)», *Noticiario Arqueológico Hispánico*, XV, 1971; 191-217 or.
- *Cartulario de San Millán de la Cogolla, (1076-1200)*. Zaragoza, 1989.
- BARKHAM, Michael. «La industria pesquera en el País Vasco peninsular al principio de la Edad Moderna: ¿una edad de oro?», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 3, 2000; 29-75 or.
- «Las pequeñas embarcaciones costeras vascas en el siglo XVI: notas de investigación y documentos de archivo sobre el galeón, la chalupa y la pinaza», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2, 1998; 201-222 or.
- BARRENA OSORO, Elena. *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*. Donostia, 1989 katalogoa.
- *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa (1375-1463)*. Donostia, 1982.
- BARRIO LOZA, José A. «La arquitectura señorial en Euskadi», *Arquitectura señorial en el norte de España*. Oviedo, 1993; 161-203 or.
- BASTERRETxea, Xabier. *Itsasoan galdutako mutrikuarrak (1560-2009)*. Mutriku, 2009.
- BERRAONDO, Ramón de. «Sellos medievales de signo naval», *RIEV*, XXIII, 1932; 130-137 or.
- CARO BAROJA, Julio. *Los vascos y el mar*. Donostia, 1985.
- CATARLA, M. L. *Estudio y Catálogo de la Exposición celebrada en Granada en junio de 1953*. Madrid, 1953.
- CENDOYA ECHÁNIZ, Ignacio. «La Semana Santa en Gipuzkoa. Estudio histórico-artístico», *Cuadernos de sección. Artes plásticas y monumentales* 13 zk., Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995.
- *El retablo barroco en el Goierri*. Donostia, 1992.
- CIRIQUIAIN GAIZTARRO, Mariano. *Los puertos marítimos vascongados*. Donostia, 1951.
- *Los puertos marítimos del País Vasco*. Donostia, 1986.

- *Los vascos en la pesca de la ballena*. Donostia, 1961.
- DÍEZ DE SALAZAR FERNÁNDEZ, Luis M. «El comercio y la fiscalidad de Guipúzcoa a fines del siglo XIII (Según las cuentas de Sancho IV)», *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletina*, XXXVII, 1981; 85-148 or.
- ECHEGARAY, Carmelo de. *Investigaciones históricas de Guipúzcoa*, Bilbo: Amaya, 1985.
- ERKOREKA GERVASIO, José I. «Las compañías de pesca del litoral vasco durante el Antiguo Régimen», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 3 (2000); 179-222 or.
- ESTEBAN DELGADO, Milagros. *El país Vasco Atlántico en época romana*. Donostia, 1990 katalogoa.
- «La vía marítima en época antigua, agente de transformación en las tierras costeras entre Oiaso y el Divae», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 4 (2003); 13-40 or.
- ESTRADA, Juan A. de. *Población general de España, sus reynos, y provincias, ciudades, villas, y pueblos, islas adyacentes, y presidios de Africa*, II. lib. Madril, 1768.
- FERNÁNDEZ DE ALBALADEJO, Pablo. *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833. Cambio económico e historia*, Madril, 1975.
- FERNÁNDEZ MARTÍNEZ, Montserrat; MONTECELO FUENTEFRÍA, Lourdes; HERRERO LICEAGA, Victoriano J. *Fuentes medievales del archivo municipal de Mutriku (1237-1520)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2007.
- FERREIRA PRIEGUE, Elisa M^a. «Las rutas marítimas y comerciales del flanco ibérico desde Galicia hasta Flandes», *El fuero de San Sebastián y su época/Donostiako forua eta bere garaia*, Donostia (1982); 217-234 or.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, José A. «La Sociedad Guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián», *El fuero de San Sebastián y su época/Donostiako forua eta bere garaia*, Donostia, 1982; 89-112 or.
- GARIBAY, E. de. *Los XV libros d'el compendio historial de las crónicas y vniuersal historia de todos los reynos de España*, Anberes, 1571.
- GARMENDIA ARRUEBARRENA, José. «El incendio de Motrico y algunas cartas», *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletina*, XLI (1985); 365-372 or.
- «Los capitanes Olazarra, de Motrico», *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXXVII (1992); 559-565 or.
- GIL MASSA, Jesús A. «Casas burguesas del siglo XVII en Bergara», in: *Revisión del Arte Barroco*, Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales, 19. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2000.
- GOMEZ PIÑEIRO, Francisco J. *Gipuzkoa: Geografía, historia y arte*, Donostia, 1982.
- GONZÁLEZ GONZÁLEZ, Julio. *El reino de Castilla en la época de Alfonso VIII*, 3. lib., Madril, 1960.
- GONZÁLEZ CEMPELLÍN, Juan M. *Torres de las Encartaciones*, 2. lib., Bilbo, 2004.
- GOROSABEL, Pablo de. *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las Cartas-pueblas y otros documentos importantes*, Tolosa, 1862.
- IBÁÑEZ ETXEBERRIA, Alex; SARASOLA ETXEGOIEN, Nerea; RODRÍGUEZ PÉREZ, A. I. *Estudio Histórico-Arqueológico "Santabata Ermita"*, Mutriku 2003, Aranzadi Zientzia Elkarteko Arkeologia Historikoaren Saila (argitaragabea).
- IBÁÑEZ ETXEBERRIA, Alex; RODRÍGUEZ PÉREZ, A. I. *Estudio histórico-Arqueológico "Batería de Atxukale"*. Memoria. Mutriku, 2003, Mutriku Udala-Aranzadi Zientzia Elkartea (argitaragabea).

- IBÁÑEZ ETXEBERRIA, Alex; SARASOLA ETXEGOIEN, Nerea; MORAZA BAREA, Alfredo. «Estudio histórico-arqueológico del Casco Histórico de Mutriku: Fase I», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, 2002; 35-42 or.
- IMAZ, José M. *La industria pesquera en Guipúzcoa al final del siglo XVI (Documentos de la época)*. Donostia, 1944.
- ISASA, Pedro; LINAZASORO, Iñaki. *Gipuzkoako Udaletxeen Marrazkiak / Dibujos de las Casas Consistoriales de Gipuzkoa*. Donostia, 1995.
- JUNQUERAS, Juan J.; RUSPOLI, Enrique; SCHEZEN, Roberto. *Casas señoriales de España. Palacios, castillos y casas de campo*. Bartzelona, 2004.
- Karenka Komunikazio Elkarte. *Mutriku eta mutrikuarrak argazkitan*. Oñati, 2007.
- LECUONA, Manuel de. «Arte visigótico en Guipúzcoa», *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletina*, XIX, 1963; 193-199 or.
- LEMA PUEYO, José A. [et al.]: *El triunfo de las élites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la provincia (1412-1539)*. Donostia, 2002.
- LINAZASORO RODRÍGUEZ, José I. «Arkitektura ilustratua Gipuzkoan = Arquitectura ilustrada en Guipúzcoa», *Arquitectura neoclásica en el País Vasco/Arkitektura neoklasikoa Euskal Herrian*. Bilbo, 1990.
- *Permanencias y arquitectura urbana. Las ciudades vascas de la época romana a la Ilustración*. Bartzelona, 1978.
- MARTÍNEZ DE ISASTI, Lope. *Compendio historial de Guipúzcoa*. Bilbo, 1972 (Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, 1625ean idatzia).
- MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo. *Guipúzcoa en los albores de su historia (siglos X-XII)*. Donostia, 1975.
- MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo; GONZÁLEZ DÍEZ, Emiliano; MARTÍNEZ LLORENTE, Felix J. *Colección de Documentos Medievales de las Villas guipuzcoanas (1200-1369)*. Donostia: Juntas Generales de Gipuzkoa, 1991.
- MEÑACA, M. de. «Implicaciones comerciales del Camino de Santiago en la zona donostiarra y guipuzcoana», *El fuero de San Sebastián y su época/Donostiako forua eta bere garaia*, Donostia (1982); 193-216 or.
- MORAZA BAREA, Alfredo; IBÁÑEZ ETXEBERRIA, Alex. *Estudio histórico-arqueológico del casco histórico de Mutriku (Gipuzkoa)*, 2002-2004. Mutriku Udala-Aranzadi Zientzia Elkarte (argitaragabea).
- MÚGICA, Serapio de. *Geografía general del País Vasco*. V. lib. *Provincia de Guipúzcoa*. Bartzelona, 1918.
- MURUGARREN ZAMORA, Luis. «Vida religiosa en Mutriku del siglo XIII al siglo XVI», *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletina*, LIII, 1997; 279-353 or.
- «Motrico. Convento de Sta Catalina de Areicieta (1572)», *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletina*, LI, 1995; 322-323 or.
- ODRIOZOLA OYARBIDE, Lourdes. «La construcción naval en Gipuzkoa. Siglos XVI-XVIII», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2, 1998; 93-146 or.
- ORELLA UNZUÉ, José L. «Geografías guipuzcoanas de la modernidad (VII): Pedro Teixeira (1595-1662)», *Lurralde*, 26. zk., 2003.
- «Régimen municipal de Guipúzcoa en los siglos XIII-XIV», *Lurralde*, 2, 1979; 103-267 or.
- «Régimen municipal en Guipúzcoa en el siglo XV», *Conferencias de derecho foral*. Donostia, 1982; 13-207 or.
- OSTOLAZA, María I. «La Organización Eclesiástica Guipuzcoana durante la Edad Media», *El fuero de San Sebastián y su época/Donostiako forua eta bere garaia Kongresua*. Donostia, 1982; 149-192 or.

- PEÑA SANTIAGO, Luis P. *Ermitas de Guipúzcoa*. Donostia, 1975.
- PÉREZ CENTENO, Jesús M.; PIÁ ARANGUREN, Amagoya. «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): I Campaña», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, 2000; 94-98 or.
- «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): II Campaña», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, 2001; 132-134 or.
- «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): III Campaña», in: *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, 2002; 120-121 or.
- «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): IV Campaña», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, 2003; 119. or.
- «San Andrés de Astigarribia», *Aranzadiana* 122, 2001; 78-79 or.
- «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): V Campaña», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, 2004; 125-126 or.
- PÉREZ CENTENO, Jesús M. «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): V Campaña de excavaciones», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, 2004; 125-126 or.
- PLAZAOLA ARTOLA, Juan. *Historia del arte vasco. II. Del gótico al renacimiento*. Bilbo, 2002.
- *Historia del arte vasco. III. Del barroco al siglo XIX*. Bilbo, 2003.
- RECALDE RODRÍGUEZ, Amaia; ORELLA UNZUÉ, José Luis. *Documentación Real a Guipúzcoa, siglo XV*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1988, 2 lib.
- Recuerdos de un Viage por España*. Lehendabiziko liburukia. Madril, 1862.
- SAMBRICIO RIVERA-ECHEGARAY, Carlos. *Silvestre Pérez, arquitecto de la Ilustración*. Donostia, 1975.
- SAN MARTÍN, Juan. «Más testimonios sobre la antigüedad de Astigarribia», *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletina*, XX, 1964; 172-174 or.
- «Testimonios de dos figuras románicas y una de transición, desaparecidas en Guipúzcoa», *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletina*, XIX, 1963; 337-343 or.
- SANTANA, Alberto; LARRAÑAGA, Juan A.; LOINAZ, José L.; ZULUETA, Alberto. *Euskal Herriko base-riaren arkitektura/La arquitectura del caserío de Euskal Herria*, II. lib. Gasteiz, 2001.
- SATRÚSTEGUI ZUBELDIA, José M. «Informe sobre el matrimonio de D. Pedro de Idiáquez con Doña Isabel de Lobiano en 1596». *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 16-17 zkia, 1982-1983; 522-528 or.
- SERRANO, Luciano. *Cartulario de San Millán de la Cogolla*. Madril, 1930.
- TABAR ANITUA, Fernando. «La pintura del Barroco en Euskal Herria. Arte local e importado», in: *Revisión del Arte Barroco*, Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales, 19. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2000; 117-149 or.
- TARIFA CASTILLA, María J. «Contribución a los maestros de obras guipuzcoanos del siglo XVIII», in: *Revisión del Arte Barroco*, Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales, 19. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2000; 325-337 or.
- TENA GARCÍA, María S. *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*. Donostia, 1997.
- TERAN, Manuel de. «La Balaena Biscayensis y los balleneros españoles del Mar Cantábrico», *Estudios Geográficos*, 37, 1949; 396-668 or.
- TEXEIRA, Pedro. *El Atlas del Rey Planeta. La descripción de España y de las costas y puertos de sus reinos (1634)*. Madril, 2004.

- URTEAGA ARTIGAS, María Mercedes. *Guía histórico monumental de Gipuzkoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1992; 220-224 or.
- VÁZQUEZ DE PARGA, Luis; LACARRA, José Ma; URÍA RIU, Juan. *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela*, 3 lib., Iruñea, 1992 (1. ed. 1945).
- ZENBAITEN ARTEAN. «Mutrikuko Andre Maria Zeruratzearen eliza», *Monumentos Nacionales de Euskadi. Gipuzkoa*, Bilbo, 1985; 287-293 or.
- *Arquitectura neoclásica en el País Vasco/Arkitektura neoklasikoa Euskal Herrian*. Bilbo, 1990; 289-291 or.
- *El triunfo de las élites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la provincia (1412-1539)*. Donostia, 2002.
- ZUBICARAY, Agustín de. *Motrico: apuntes, extractos y divagaciones*. Donostia, 1969.
- ZUDAIRE HUARTE, Claudio. «Organerías (III). La organistía de Motrico (S. XVII-XVIII)», in: *Cuadernos de Sección. Música*, 5; 9-22 or.

Oharrak

- ¹ Berrikuntza horren sakona izanda, oso aztarnategi arkeologi gutxi ditu herrigune historikoak. MORAZA BAREA, Alfredo; IBÁÑEZ ETXEBERRIA, Alex. *Estudio histórico-arqueológico del casco histórico de Mutriku (Gipuzkoa)*, 2002-2004 (argitaragabea). Eskerrak eman nahi dizkiet egileei, Aranzadi Zientzia Elkarteari eta Mutrikuko Udalari azterlan interesgarri hau kontsultatzeko aukera eman izanagatik, oinarritzkoa herrigune historikoaren bilakaera ezagutzeko. Honako lan honen azken xehetasunak jasotzeko, funtsezkoak izan dira Alfredo Morazak adeitasunez emandako aholkuak eta oharra. Eskerrik asko.
- ² GARCÍA DE CORTÁZAR, José A. «La Sociedad Guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián», *Congreso El fuero de San Sebastián y su época/Donostiako forua eta bere garaia*. Donostia, 1982; 99. or
- ³ *Ibidem*, 94. or.
- ⁴ Egileak eginiko egokitzapena. Jatorrizkoa hemen: OSTOLAZA, María I. «La Organización Eclesiástica Guipuzcoana durante la Edad Media». *Congreso El fuero de San Sebastián y su época / Donostiako forua eta bere garaia*. Donostia, 1982, 9. agiria; 179. or.
- ⁵ BARRENA OSORO, Elena. *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*. Donostia, 1989; 272. or.
- ⁶ BARANDIARÁN MAESTU, Ignacio. «Excavaciones en la iglesia de San Andrés de Astigarribia (Motrico, Guipúzcoa)». *Noticario Arqueológico Hispánico*, XV (1971); 208. or.
- ⁷ OSTOLAZA, María I. «La Organización Eclesiástica Guipuzcoana durante la Edad Media», *Congreso El fuero de San Sebastián y su época / Donostiako forua eta bere garaia*. Donostia, 1982, 9. agiria; 179. or. Eta SERRANO, Luciano. *Cartulario de San Millán de la Cogolla*. Madril, 1930, 263. agiria; 266-267 or. Egia esan, ez da erraza dokumentuari zentzu osoa antzematea. Lope kondearen eta Álvaro abadearen arteko adiskidetzeko egintza dirudi, non lehenengoak monasterioaren dohaintza baieztatzen duen –monjeek diotenez, beraiek erabili dute Astigarribiako monasterioa– eta bigarrenak mandoa ematen dion nobleari, fede ona adierazteko.
- ⁸ OSTOLAZA, María I. «La Organización Eclesiástica Guipuzcoana durante la Edad Media». *Congreso El fuero de San Sebastián y su época / Donostiako forua eta bere garaia*. Donostia, 1982, 9. agiria; 179. or.
- ⁹ ALBERDI LONBIDE, Xabier; ARAGÓN RUANO, Alvaro. «La construcción naval en el País Vasco durante la Edad Media». *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 2 (1998); 17-18 or.
- ¹⁰ BARRENA OSORO, Elena. *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*. Donostia, 1989; 267. or.
- ¹¹ LECUONA, Manuel de. «Arte visigótico en Guipúzcoa», *Euskalerraren Adiskideen Elkartearen buletina*. 1963; 193-199 or.
- ¹² GARCÍA DE CORTÁZAR, José A. «La Sociedad Guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián». *Congreso El fuero de San Sebastián y su época / Donostiako forua eta bere garaia*. Donostia, 1982; 94. or.
- ¹³ Beste eremu geografiko batean egongo bagina, zabalkunde gune horietatik edo bide nagusietatik gertuago, baoak gutxienez ehun urte zaharragoa izan beharko zuen. Kronologia horixe dute Donemiliagako ferra arkuek, adibidez. Astigarribiaren kasuan, anakronismoa izan liteke, edota kronologia zaharrago baten seinale. Anakronismoa izatekotan, hala ere, ferra arkuak oso profil bitxia du. Donemiliagako estilo mozarabiarraren XII. mende hasierako erreferentzia ote da? Garai hartan tailer ugari zeuden Done Jakue bidean, baita Donemiliagan bertan ere, eta erromanikoaren formak zabaltzen ari ziren han-hemenka. Ez dut uste, beraz.
- ¹⁴ BARANDIARÁN MAESTU, Ignacio. «Excavaciones en la iglesia de San Andrés de Astigarribia (Motrico, Guipúzcoa)». *Noticario Arqueológico Hispánico*, XV (1971); 215. or.
- ¹⁵ *Astigarribiako San Andres eliza/Iglesia de San Andrés de Astigarribia*. Bilbo, 2008; 32. or.
- ¹⁶ BARANDIARÁN MAESTU, Ignacio. «Excavaciones en la iglesia de San Andrés de Astigarribia (Motrico, Guipúzcoa)». *Noticario Arqueológico Hispánico*, XV (1971); 211. or.

- ¹⁷ Ikus, adibidez, Leireko estreinako monasterioaren planta. IÑIGUEZ ALMECH, Francisco. «El monasterio de San Salvador de Leyre». *Príncipe de Viana*, 104-105 zk. (1966); 91-97 or. Gaur egunekoak 1030ean hartu zuen haren tokia. Askoz ere lehenagokoa zen, beraz. Erromaniko aurreko beste planta batzuen adibideak hemen ditugu: BANGO TORVISO, Isidro. «El espacio para enterramientos privilegiados en la arquitectura medieval española». *ADHTA*, IV (1992); 100-104 or.
- ¹⁸ BARANDIARÁN MAESTU, Ignacio. «Excavaciones en la iglesia de San Andrés de Astigarribia (Motrico, Guipúzcoa)». *Noticiario Arqueológico Hispánico*, XV (1971); 191-217. or.
- ¹⁹ Pérez Centeno eta Piá Aranguren arkeologoek zuzendutako kanpaina horiek guztiek txosten eta argitalpen bana dute. Ikuspuntu orokor bat hemen dago: PÉREZ CENTENO, Jesús M.; PIÁ ARANGUREN, Amagoya. «San Andrés de Astigarribia». *Aranzadiana*, 122. zk., 2001; 78-79 or. Kanpaina horietako bakoitza, hemen: PÉREZ CENTENO, Jesús M.; PIÁ ARANGUREN, Amagoya. «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): I Campaña», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, (2000), 94-98 or. ; «Iglesia de San Andrés de Astigarribia (Mutriku): II Campaña», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, (2001), 132-134 or. ; «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): III Campaña», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, (2002), 120-12 or. ; «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): IV Campaña de excavaciones», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, (2003), 119. or. ; «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): V Campaña de excavaciones», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, (2004), 125-126 or.
- ²⁰ BARANDIARÁN MAESTU, Ignacio. «Excavaciones en la iglesia de San Andrés de Astigarribia (Motrico, Guipúzcoa)», *Noticiario Arqueológico Hispánico*, XV (1971); 199-205 or.
- ²¹ PÉREZ CENTENO, Jesús M.; PIÁ ARANGUREN, Amagoya. «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): II Campaña», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, (2002); 121. or.
- ²² PÉREZ CENTENO, Jesús M.; PIÁ ARANGUREN, Amagoya. «San Andrés de Astigarribia (Mutriku): III Campaña», *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, (2003); 119. or.
- ²³ Barandiaránek zazpi garai bereizi zituen eraikinaren bizitzan: 1. Lehendabiziko eraikina, 1025 eta 1075 artekoa; 2. Zabalkundeetako baten sagarapena, 1108an; 3. Kanpoko perimetroa, XIII. mendearen erdialdekoa; 4. Elizaren men-debaldeko zabalkundea, XIII. mendearen azken herenekoa; 5. Hilobien berrantolaketa (XVII. mendea); 6. Arkupea eta dorrea (XVIII. mendea agian); eta 7. Barrualdeko zolaketa berria (1870-1875). BARANDIARÁN MAESTU, Ignacio. «Excavaciones en la iglesia de San Andrés de Astigarribia (Motrico, Guipúzcoa)», *Noticiario Arqueológico Hispánico*, XV (1971); 216-217 or.
- ²⁴ Euskal Herriko Unibertsitateko lantaldeak Agustín Azcáratearen zuzendaritzapean landutako sintesi proposamenari jarraitu diogu funtsean. Hamaika esku-hartze bereizi dituzte, bata bestearen segidan egindakoak. www.ehu.es/arqueologiadelarquitectura/castellano/linea.php?id=2. 9
- ²⁵ VÁZQUEZ DE PARGA, Luis; LACARRA, José M^{te}; URÍA RIU, Juan. *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela*. Iruña, 1992 (lehen edizioa, 1945), II. liburukia; 507. or.
- ²⁶ ARTEAGA ARTIGAS, María M. *Guía histórico monumental de Gipuzkoa*. Donostia, 1992; 223. or. 1988ko uholdeetan, lur-jausi batek agerian utzi zuen bidearen basamentua zirudiena, ordura arte ezagutzen zirenak baino harlauza handiagoz eta sakonagoz osatutakoa. Erdi Aroa baino lehenagoko zoladura ote zen hura? Auskalo. Geroko azterlanek eman beharko dituzte eman beharreko erantzunak.
- ²⁷ ARRIETA, José A. *Mutrikuko eliz-historia eta arte bilduma*. Mutriku, 1993; 48. or.
- ²⁸ SAN MARTÍN, Juan. «Testimonios de dos figuras románicas y una de transición, desaparecidas en Guipúzcoa». *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletina*, XIX (1963); 341-343 or.
- ²⁹ «Dono, itaque, uobis illam ballenam quam homines de Motricu sub annuo redditu tenentur mihi dare, ut eam uobis unoquoque anno in perpetuum tribuant sine aliqua contradictione eo modo quo mihi tribuere tenebantur». GONZÁLEZ GONZÁLEZ, Julio. *El reino de Castilla en la época de Alfonso VIII, III Documentos 1191-1217*. Madril, 1960; 229-230 or., 694. agiria. Mutrikuko ohitura hori arrunta omen zen garai hartan. Adibidez, 1220an, Alfontso IX.ak beretzat gordetzen zuen Getariako arrantzaleek urtero harrapatzen zuten lehendabiziko balea. ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz. «La pesca en el País Vasco en la Edad Media». *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco* 3 (2000); 26. or.
- ³⁰ ESTEBAN DELGADO, Milagros. «La vía marítima en época antigua, agente de transformación en las tierras costeras entre Oïasso y el Divae». *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, (2003); 13-40 or., 32. or., 94. oharra.
